

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.  
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

106884b4d68fdd3d4369682882d1b87834601e7549212e6bcf59efb837e8c307

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

## **TOLOSAKO UDALBATZAK 2024KO ABENDUAREN 23AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**2024.12.23**

Tolosako Udaletxean, 2024ko abenduaren hogeita hiru, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

### **Alkate-lehendakaria:**

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

### **Bertaratutako zinegotziak:**

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)

Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)

Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)

Josune Sanz Vidal(EH BILDU)

Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)

Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)

Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)

Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)

Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)

Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)

Javier Zabala Sastre(EAJ-PNV)

Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)

Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)

Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

### **Ez bertaratutako zinegotzia:**

Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

### **Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

### **Kontuhartzaile akzidentala:**

Paulino Alonso Eraso

### **Eguneko gai-zerrenda**

1. Akta hau onartzea:

2024ko azaroaren 28ko ohiko osoko bilkurakoa.

2. Onartzea 2025eko lanpostuen zerrenda.
3. Hasieraz onartzea Tolosako Udaleko lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia.
4. Ezestea langile baten bateragarritasun-eskaera (S.E.A.).
5. Bertan behera uztea A.M.E. langileari emandako bateragarritasuna.
6. Hasieraz onartzea 2025eko Aurrekontu Orokorra.
7. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturak.
8. Hasieraz onartzea Herri-jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen Ordenantza Fiskalaren aldaketa.
9. Onartzea udalekuen prezio publikoak.
10. Ebaztea ondasun higiezinari buruzko zerga erregulatzen duen Ordenantza Fiskalari aurkeztutako erreklamazioa, eta Ordenantza behin betiko onartzea.
11. Onartzea IZFE sozietatearekin eginiko hitzarmenaren luzapena.
12. Hasieraz onartzea Tolosako haur eta nerabeen oporraldi garaiko aisialdi-zerbitzua arautzen duen Erregelamendua.
13. Onartzea Hizkuntza Politikako Plan Estrategikoaren proposamena.
14. Berri ematea: Tolosako udal-biztanleen erroldaren berrikuspenetik ateratako biztanleen kopuru ofiziala, 2024ko urtarrilaren 1ean.
15. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. **AKTA HAU ONARTZEA:**  
**2024KO URRIAREN 31KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. **ONARTZEA 2025EKO LANPOSTUEN ZERRENDA.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

## IKUSIRIK

Administrazio Publikoek, horien artean udalek, beren zerbitzura dituzten giza baliabideak egituratzeko antolaketa instrumentu bat behar dute, eman behar dituzten zerbitzu beharren arabera eta lanpostu bakoitzak eduki behar dituen gutxieneko betebeharrak batzuen baitan. Aipaturiko instrumentu hori Lanpostuen Zerrenda da eta bertan, Tolosako udalak duen lanpostuetan, lanpostu bakoitzak duen eduki eta ezaugarriak definitzen dira.

## GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

2025 urtean Lanpostu zerrendan hainbat aldaketa eta egokitzapen proposatzen dira, hain zuzen ere hauexek:

**Lehena.- “Komunikazio teknikaria” lanpostua sortzea.**

Komunitate eta Gobernantza sailak, “Komunikazio teknikari” plaza bat sortzeko eskaera egin du.

Plaza honen sorrera aztertu aurretik, orain arte udalean bideratutako komunikazio mota desberdinen arteko hausnarketa bat egin behar da. Honela, udalean dauden bi lan-esparruek (Komunitate eta Gobernantza eta modernizazioko unitateak) izan duten garapena kontuan hartu behar da:

- Batetik, Modernizazioko unitateak bere lana oinarritu du administrazio elektronikoaren ezarpenean (baimenak, NISAE, espedienteen arrazionalizazioa, izapideen eskuliburua, egoitza elektronikoa...), gardentasun atariaren tratamenduan (iragarkiak, publizitate ofiziala eta legez argitaratu beharreko informazioa), eta udal web berriaren azterketan, azken hori informazio-kudeatzailearekin eta gobernu taldeko komunikazioko arduradunarekin.

- Bestetik, Komunitatea eta Gobernantza Sailak, nagusiki, udalaren partaidetza prozesu ezberdinak (geroz eta gehiago), kanpoko komunikazioko kudeaketa (ofiziala ez den edo izapide- edo lege-betebeharrekin lotuta ez dagoen informazioa) eta gobernantzarekin lotutako ekimenak sustatzen ditu.

Bakoitzak egiten dituen lan hauek bere egunean egin zen lanpostuen katalogoa ez dator bat gaur egungo errealitatearekin: alde batetik, Modernizazioarekin lotutako funtzioak ez dira ia jasotzen (ez teknikariarentzat, ezta espedienteen administrariarentzat ere); bestetik, Gobernantzari dagozkion zereginak ez dira aipatu ere egiten: kode etikoa, gobernu onari buruzko kodea, langile eta karguen formakuntza, gobernantza berriari buruzko ekimenak herritarrekin eta beste administrazioekin etab...

- Bestaldetik, informatikako zerbitzuek ezinbesteko protagonismoa izan behar dute ibilbide honetan. Tolosako Udalak azken urteetan etengabeko prekarietate-egoera bizi izan du bere zerbitzu informatikoei dagokienez. Hala ere, egoera hori aldatzeko pausoak eman dira eta horrek, zalantzarik gabe, Informatika Saila birdefinitu eta berrantolatzea ekarriko du, egungo premiekin hobeto bat etor dadin.

Guzti hau kontuan hartuta, Komunitate eta Gobernantza sailaren, Informatika sailaren eta Modernizazio Unitatearen elkarlana ezinbestekoa dela ondorioztatzen da, udal honentzat estrategikoak diren gaiak lantzeko: komunikazioa, publizitatea, gardentasuna, web orria.... Horregatik, bakoitzaren tokia eta zereginak modu orokorrean aztertu eta zehaztu behar dira, gai hauei dagokienez.

Honekin lotuta, Komunikazio eta publizitate-arloetan ere, zereginak ez daude ondo zehaztuta udal organigraman. Gaur egun, komunikazioa, bi arlo nagusietan banatzen da:

- a) Udalak argitaratu behar duen informazioa, bai prozeduren izapidetzetik eratorria delako (iragarki ofizialak, lizitazioak, hautaketa-jardunbideak, zergen kudeaketa, etab), bai arau batek argitalpen hori nahitaezkoa dela ezartzen duelako (Gardentasunari buruzko 19/2013 Legea, Toki-Erakundeei buruzko 2/2016 Legea). Honako hau *Komunikazio instituzionala* deituko dugu.
- b) Interes publikoko arrazoiak direla medio, udalak argitaratzea komenigarritzat jotzen duen informazioa, hala nola, argibideak ematea, irisgarritasuna bermatzea edo berriak interes orokorra izatea. Honako hau, *kanpo komunikazioa* edo *udalaren jardunbideekin lotura zuzena ez duen komunikazioa* deituko genuke

Zentzu honetan, *Komunikazio instituzionalak* honako baldintzak bete behar ditu:

- a) Udal administrazioaren prozedura batean, edota arau batek xedaturikoan oinarritzen da.
- b) Dagokion administrazio-prozedura elektronikoan edo informazio ofiziala argitaratzeko sistema elektronikoan txertatu behar da.
- c) Zuzena izan behar du, zera, bat etorri behar du jardunbidea arautzen duen xedapenekin, edota informazio publikoa arautzen duen legediarekin.
- d) Homogeneoa behar du, bai fondoan, baita forman ere. Udal Sail bakoitzak ezin ditu bere espedienteak kudeatu, edo bere informazioa publikoa egin edozein modutan edo formatuetan. Udal organoek onarturiko formatuak eta plantillak kontuan hartu behar ditu.
- e) Informazioa Tolosako Udalaren berezko informazio gisa identifikatu behar da, hau da, erakunde hau identifikatzen duten elementuak erabili behar ditu, armarririk hasita, organo eskudunak erabakitzen dituen beste ikur batzuen kaltetan izan gabe.
- f) Komunikazio mota hau honako esparruetan garatzen da: aldizkari ofizialetan, iragarki-taulatan (web orrikoan zein fisikoan), prentsan, web orrian kokatzen den Tolosako udaleko egoitza elektronikoan, web orriaren bestelako ataletan, eta gardentasun atarian.

- g) Udal sail ezberdinetatik datorren informazio publikoa, honako irizpideak kontuan hartuta lantzen da:
- a) Modernizazio teknikariak (Herritarren eta administrazio elektronikoaren teknikari juridikoa gaur egun), arlo bakoitzeko teknikariekin elkarlanean, dagokion prozeduraren izapideak eta dokumentuen edukia lantzen dute. Idazkariak eta Idazkaritzako teknikariek dokumentuen berrikuspena egiten dute, haien legezatasuna zainduz.
  - b) Prozeduren izapideak, formatuak, plantillak...Administrazio Elektronikoaren Batzordean adosten dira. Batzorde honetan, UDATE, Artxiboa, Informatika, Modernizazioa, Idazkaritza, eta kasuz kasuko Saila koordinatzen dira.
  - c) Modernizazio unitateko espedienteen kudeatzaileak web orrian argitaratzen du informazioa
- h) Modernizazio unitateak, bere aldetik, Gardentasun Atarirako informazio instituzionala lantzen du, eta argitaratzen du.
- i) Web orrian argitaratze-lan batzuk, Komunitate eta Gobernantza saileko kudeatzaileak burutzen ditu.

Beraz, argi dago, Modernizazio Unitateak honako zeregin hauek betetzen dituela:

1. *Komunikazio instituzionala* izendaturikoa landu, goian aipaturiko terminoetan.
2. *Komunikazio instituzionala* kudeatu, sortu (hainbat kasuetan), eta argitaratu.
3. Gainontzeko sailekin koordinatu.

Aldiz, Kanpo komunikazioa edo udalaren jardunbideekin lotura zuzena ez duen komunikazioari dagokionez, udalak hainbat gabezia eta beharrak ditu eta hauek hobetu beharra daude.

Honela, Komunitate eta Gobernantza arduradunak egindako proposamena aztertu ondoren, hainbat eginkizun beste sailekin batera egitea proposatzen da, besteen artean:

1. Kanpoko komunikazioaren arloan:
  - a) Webguneen **ardurari** dagokionez, *komunikazio instituzionala* ezin da bere zereginetan sartu, aurretik aipatu diren arrazoiengatik.
  - b) Udal egoitza elektronikoa eta udaleko *komunikazio instituzionala* jasotzen dituen **webgunearen atalaren ardura** Modernizazio Unitatearena izan behar du, kontuan hartzen baditugu informazio horrek bete behar dituen baldintzak, lehen aipaturikoak. Halaber, Komunikazio-teknikariaren **ardura** izango lirateke *Kanpo komunikazioa edo udalaren jardunbideekin lotura zuzena ez duen komunikazioarekin* lotutako gaiak webgune honetan.
  - c) Webgune nagusiaren **kudeaketari** dagokionez, lantalde bat osatzea proposatzen da, Modernizazioko Unitateko langileek, Komunitate eta Gobernantza Saileko langileek, eta Informatika Saileko langileek osatuta,

**bakoitzak bere ardurarekin.**

- d) **Udalaren irudi korporatiboa** ez da komunikazioaren lana soilik. Gogoratu behar da horrek dituen bestelako osagaiak: politikoak, ondare historikokoak... Herriko armarriaz hitz egiten bada, Idazkaritzari dagokio gai hau lantzea, eta prozedura garatzea, 2/2003 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.
2. Barne komunikazioen arloan, barne komunikazioa lantzea sail bakoitzari dagokio. Komunikazio-teknikariak honako zereginak bete ditzake:
- a) Barne komunikazio planak diseinatzeko laguntzea.
  - b) Enplegatu berrien harrara-plana diseinatzeko laguntzea.
  - c) Webgunearen edukiei dagokienez, aurreko atalean aipatutakoa berresten da. Komunikazio instituzionala Modernizaziotik lantzea proposatzen da, eta bestelakoa, ados, baino webgunean ez da barne-komunikaziorik lantzen.
  - d) Plantillak Modernizaziotik lantzen dira, dagokion Sailarekin elkarlanean, eta Administrazio Elektronikoaren Batzordean adosten dira.
  - e) Lanerako beharrezkoak diren euskarriak sortzea komunikazio ikuspegitik, gainontzeko sailekin koordinatuta.
3. Gardentasun eta informazio publikoaren arloetan, Komunikazio-Teknikariaren zereginak *Kanpo komunikazioa* edo *udalaren jardunbideekin lotura zuzena ez duen komunikazioarekin* lotutako gaietan ematea proposatzen da. 128/2018 Errege Dekretuko 2.3 eta 5.1.e) artikuluetan xedatutakoaren arabera, estatu-gaitasuna duten funtzionarioen ardura da gardentasuna bermatzea Idazkaritzari eta Kontuhartzaitzari dagozkion gaietan, alegia:
- a) Informazio instituzionala eta erakundeari buruzkoa
  - b) Informazio juridikoa eta araei buruzkoa
  - c) Kudeaketa publikoari buruzko informazioa (dirulaguntzak, kontratuak, hitzarmenak...)
  - d) Giza baliabideei buruzko informazioa
  - e) Aurrekontu- eta finantza-informazioa

Guzti honen ondorio nagusia, hasieran aipatu den moduan, hiru arloen (Komunitate eta Gobernantza sailaren, Informatika sailaren eta Modernizazio Unitatearen) elkarlana ezinbestekoa da.

Honela, komunikazioari dagozkion hainbat funtzio eta zeregin sail eta azpisail desberdinen artean egiten direla ikusi ondoren, hau da komunikazioko teknikaria lanpostuari dagozkion funtzioen proposamena:

***Erantzukizun orokorrak:***

Udaleko komunikazioari dagozkion lanak teknikoak egitea, udaleko sailekin elkarlanean.

### **Lan esanguratsuenak:**

#### **KANPO KOMUNIKAZIOA**

- Kanpo komunikazioko plan estrategikoa garatzea eta martxan jartzea.
- Publizitate kanpainak diseinatzea eta garatzen laguntzea.
- Komunikazio tresna eta kanal berriak identifikatzea eta martxan jartzen laguntzea.
- Udalari buruz argitaratzen diren albiste eta informazioen eguneroko jarraipena eta barne mailako komunikazioa egitea.
- Udal aldizkarietako albisteen idazketa, aldizkarien diseinua, inprimaketa eta banaketaren gainbegiraketa egitea.
  
- Udalaren webguneen kudeaketa, Informatika, Komunitate eta Gobernantza eta modernizazio unitaterekin lankidetzan eta bakoitza bere esparruan:
  - + Udalaren webgune nagusiaren eta beste webguneen edukien eguneraketa. Udalaren informazio orokorra (albisteak, agenda, prentsa oharrak...) eta sail bakoitzaren informazioa eguneratzen laguntzea.
  - + Udalaren webgune nagusiaren eta gainerako webguneen hobekuntza eta garapenean laguntzea, kontuan hartuta gardentasuna, datuen babesa eta komunikazio eraginkortasuna, genero-ikuspegiarekin.
  - + Udalaren webgune nagusiaren eta gainerako webguneen erabileraren hileroko jarraipena egiten laguntzea.
  
- Komunikazio strategiaren eraginkortasunaren azterketa.
- Aurreko eta ondoko probak prestatzea eta abian jartzea: Asebetetze-inkestak, adierazleen programa, etab.
- Udalaren irudi korporatiboa aztertzea eta garatzea, gainontzeko sailekin lankidetzan, armarria salbu.
- Udalak antolatutako ekintzen deialdiak zabaltzea.
- Sare sozialen dinamizazioa.

#### **BARNE KOMUNIKAZIOA**

- Giza Baliabideak sailarekin batera, barne komunikazio plana diseinatzen laguntzea.
- Giza Baliabideak sailarekin batera, enplegatu publiko berrien harrera plana diseinatzen laguntzea.

#### **PRENTSA GABINETEA**

- Komunikabideekin beharrezko erlazioa mantentzea eta handitzea, besteak beste; informazio eskaerei erantzuteko, prentsaurrekoen prestaketarako, udal agenda zabaltzeko eta udalaren presentzia handitzeko.
- Udal sail ezberdinekin, udalaren komunikabide tresnetan argitaratzeko modukoak diren albiste eta informazioa identifikatu eta prestatzea.
- Udalarekin zerikusia duten albisteak argitaratzea eta modu eraginkorrean herri-tarregana iristeko tresnen aukeraketa.
- Prentsaurrekoak, gidoiak, hitzaldiak, elkarrizketak eta erreportaiak prestatzea.
- Krisi egoeretan komunikazio strategiaren aholkularitza ematea.

- Udalaren komunikazio tresnen bidez argitaratu beharreko informazioaren aukeraketak aholkularitza, idazketa, zuzenketa eta diseinua egitea, dagokion lan esparruan.
- Testuen gainbegiraketa eta zuzenketa egitea argitaratu baino lehen, dagokion lan esparruan.
- Protokolo eta agerraldien inguruko aholkularitza ematea eta ekintza horien koordinazioan laguntzea.

### **GARDENTASUNA ETA INFORMAZIO PUBLIKOA**

Modernizazioko zereginak egiten dituzten udal langileekin batera arituko da funtzio hauetan:

- Kanpo komunikazioa edo udalaren jardunbideekin lotura zuzenik ez duten komunikazioarekin zerikusia duten gaiak.
- Gardentasun atarian argitaratzen den informazio instituzionala modu egoki baten zabaltzen laguntzea.
- Informazio publikoaren alorrean laguntza teknikoa ematea udal langileei.
- Udal-zerbitzuetako katalogoetaz eta gutunetaz arduratzea.

### **TEKNOLOGIA BERRIEN EZARPENEAN ETA MODERNIZAZIOAN LAGUNTZA**

- Laguntza teknikoa ematea komunikazio tresna eta kanal berrien ezarpenean.
- Udalak modernizaziorako eta teknologia berrietara egokitzeko martxan dituen proiektuetan lankidetzen aritzea, Informatikako saila eta modernizazio unitatearekin batera.

### **EGINKIZUN KOMUNAK:**

- Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
- Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
- Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
- Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
- Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
- Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldeztu aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Lanpostu honetarako kazetaritzan gradua edo ikus entzunezkoa gradua edo antzekoa izatea eskatzen da. Behin funtzioak aztertu ondoren, honako behin-behineko balorazio proposamena egiten da:



<b><u>Faktorea</u></b>	<b><u>Behin-behineko balorazioa</u></b>
Espezializazioa	100
Esperientzia	100
Agintea	0
Oihartzuna	200
A. intelektualala	75
A. Fisikoa	0
Nekagarritasuna	0
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	0
Dedikazioa	0

Amaitzeko, kontuan hartu behar da, gaur egun komunikazioaren zati handi bat kanpoko zerbitzuen bidez ematen duela udalak eta modu honetan, udalak zerbitzua zuzenean emango luke. Honela, lanpostu honi dagokion gastua 72.105 euro aurten aurreikusten da eta era berean, 2025 urteko aurrekontu proiektuan, publizitate partida gutxitu egin da.

Lanpostu honen sorrera beste lanpostu baten amortizazioarekin sortuko da, hau da, "kirol instalazioetako arduraduna" lanpostua amortizatzen da eta horren ordez, "komunikazio teknikari" lanpostua sortzen da, pertsonal baliabideen homogeneitatea mantentzeko helburuarekin eta udalak dituen behar berrietarako egokitzeko.

**Bigarrena.- "Etxebizitzetako arkitektoa"** lanpostua sortzea, Hirigintza, obra eta zerbitzuak sailari atxikitua.

Udal gobernuak etxebizitzaren funtzio sozialaren betebeharrak aurrera eramateko neurriak martxan jartzeko borondatea adierazi du; honetarako, hainbat proiektu estrategiko martxan jarri nahi ditu eta honetarako, "Etxebizitzetako arkitektoa" lanpostua sortzea proposatzen da. Zentzu honetan, Hirigintzako arduradunak egindako txostenean, lanpostu honen sorrerarako ibilbidea deskribatzen da.

Batetik, Udalbatzak, 2020KO azaroaren 26an, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, Erretengibel SAU sozietatea desegitea erabaki zuen. Sozietate honek Tolosako Alde Zaharreko birgaitzean eta berroneratzean lan handia egin zuen Azterketa soziourbanistikokoak idatziz, plan eta proiektu urbanistikoak bultzatuz, eraikin eta

urbanizazioen proiektuak idatziz eta birgaitze-obrak eginez eta baita lurzorua kudeaketa eta sustapena bultzatuz etxebizitzaren eta ekipamenduen eraikuntza amaitu arte. Sozietatea desegin zenetik bertako 2 langile eta aipatutako funtzioak Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko departamentuak hartu ditu.

Ikei research & consultancy, S.A enpresak, udalaren enkarguz, Tolosako etxebizitza hutsen eta etxebizitza-beharraren diagnostikoa egin zuen 2019 eta 2020 artean, genero ikuspuntua ere sartuta, eta udal jarduera-lerroen definizioa eta etxebizitza huts horiek merkaturatzeko proposamenak barneratuta. Azterketa horretan ondorioztatu zen Tolosan 253 etxebizitza huts zeudela eta, horietatik, Alde Zaharrean 94 zeudela, auzo guztietatik gehiena.

Bestalde, azken urtetan ikusi da alde zaharra degradazio prozesu batean dagoela eta horregatik 2023 eta 2024 artean Alde Zaharraren Hiri-berroneratzearen Plan Integrala jarri zuen abian Udalak. Bertan egindako aurrediagnostikoan etxebizitza arloan egoera hobetzeko hainbat erronka eta proposamen jaso dira: alde zaharrean gazteen emantzipazioa eta alokairu soziala sustatzea, hutsak dauden etxebizitzak mobilizatzea, etxadi patioen erabilera sustatzea, e.a.

Bestetik, Arantzazulab eta Tolosako Udalak 2022an hasi eta 2023an amaitu zuten Herritarren Batzarreko gomendioei jarraiki, Udalak etxebizitza eredu berrien inguruko gogoeta egiteko konpromisoa hartu zuen. Honekin lotuta, Udalak jabetzan duen Tolosako HAPO-ko 24. lurre hirigintza-esparruko 24.1 lurramendi Pasealekua azpiesparruko a.20.3/24.1 lursailean alokairu erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzak eta eranskinak eraikitzeke asmoa dago. Eta bertan etxebizitza eredu berritzaileak eraikitzeke aukera aztertu nahi da.

Azkenik, 2015eko etxebizitza Legeak Udalei ematen dizkien eskumenak kontuan hartuta, batetik; Udalerrira aurrera eramaten ari den Hirigintza garapenetatik eratorrita Udala jasotzen ari den ondasunak kudeatzeko beharra ezagututa, bestetik; eta Tolosako Alde Zaharra jasaten ari den degradazioa kontuan hartuta, lurren kudeaketa eta etxebizitza publikoen sustapenari behar bezala ekiteko zentzuzkoa dirudi funtzio horiek barneratuko dituen arkitekto baten lanpostua sortzea. Betiere idazkaritzako Etxebizitza Teknikariaren lanpostuaren osagarri izan beharko du lanpostu berri honek.

Hau guztia ikusi ondoren, honako funtzioak proposatzen dira:

***Erantzukizun orokorrak:***

Etxebizitza publikoen sustapenaren arloko lan teknikoak egitea.

### ***Lan esanguratsuenak:***

#### **ETXEBIZITZEN SUSTAPENA**

- Etxebizitza eta eraikin hutsen kaptaziorako zein orubeak eskuratzeko beharrezko azterketak egitea eta irizpenak ematea.
- Etxebizitza eredu berrien azterketak egitea.
- Etxebizitzaren sustapenerako hirigintzaren plangintza, garapen, kudeaketa eta exekuzioari buruzko dokumentazioa idaztea, edo beste batzuek egindakoari buruzko irizpena ematea.
- Beste sail batzuei, herritarrei edo udalbatzari etxebizitzaren sustapenari buruzko aholkularitza teknikoa ematea.
- Horren ondoriozko bestelako lan teknikoak egitea: balorazio txostenak, memoria baloratuak, patologiei buruzko txostenak, etab.
- Alde Zaharreko Plan Integralari lotuta, etxebizitza arloko erronkei aurre egiteko proiektuak lantzea. Eremuaren degradazioa iraultzeko planak garatzea, lurren kudeaketa eta etxebizitza publikoen sustapena hainbat helbururekin: gazteen emantzipazioa, alokairu soziala, etxebizitza hutsak betetzea, etxadi patioen erabilera ahalbidetzea.
- Herrian aurkitzen diren infraetxeen, hau da, bizigarritasun baldintzak, bereziki higiene, osasun eta segurtasunari buruzkoak, betetzen ez dituzten etxeen kudeaketa.

#### **KONTRATAZIOA / OBRAK:**

- Etxebizitza berrien zein eraikinen birgaitzearen obra-proiektuak edo dokumentuak idaztea, proiekturik ez bada behar, udal-obrak egiteko.
- Proiektu tekniko txikien obra-zuzendaritza egitea, edo beste batzuek gauzatu dituzten udal-sustapeneko obren zuzendaritza kontrolatu eta ikuskatzea.
- Obra-espeditteen eta zerbitzu kontratuen gaineko txostenak eta irizpen teknikoak ematea.
- Kontratazio-organoak zehazten dituen kontratuez arduratzea.
- Beste sail batzuei, herritarrei edo Udalbatzari aholkularitza teknikoa ematea udal-sustapeneko obrei buruzko gaietan.

#### **UNITATE/SAILAREN KUDEAKETA:**

- Teknikari gisa parte hartzea, horretarako eskatuz gero, eta bere eskumeneko arloei dagokienez, udal informazio-batzordeetan.
- Etxebizitzaren sustapenarekin lotutako udal proiektuak eta obrak aurrera eramateko dirulaguntzak kudeatzea eta beharrezko txostenak egitea.

#### **EGINKIZUN KOMUNAK:**

- Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
- Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.

- Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
- Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
- Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
- Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, alde zuzenetik horretarako jarraibideak jasota.

Honetarako, plaza bat sortzea aurreikusten da, goi mailakoa izango dena eta arkitekturan ikasketak izango dituenak. Behin funtzioak aztertu ondoren, honako behin-behineko balorazio proposamena egiten da:

<u>Faktorea</u>	<u>Behin-behineko balorazioa</u>
Espezializazioa	200
Esperientzia	100
Agintea	0
Oihartzuna	300
A. intelektualak	100
A. Fisikoa	0
Nekagarritasuna	0
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	0
Dedikazioa	75

**Hirugarrena.**- "Irratiko agente" lanpostua, "Udaltzain (G/A)" bihurtzea.

Joan den urriaren 28an "Irratiko agente" lanpostua betetzen ari zen titularra jubilatu egin zen, eta honela, udaltzainburuak proposatu du lanpostu hori "Udaltzain (G/A)" lanpostuan bihurtzea, udaltzain guztiek lan txanda desberdinetan irratiko funtzioak egitea proposatzen baita iaz onartutako lan antolaketa berriaren baitan.

Lanpostu honen balorazioari dagokionez, joan den urtean sortu ziren "Udaltzain (G/A)" lanpostuen behin-behineko balorazio berdina izango dute. Zentzu honetan, hauxe da egiten den proposamena:

<u>Faktorea</u>	<u>Behin-behineko balorazioa</u>
Espezializazioa	100
Esperientzia	75
Agintea	0
Oihartzuna	100
A. intelektuala	25
B. Fisikoa	25
Nekagarritasuna	50
Arriskugarritasuna	75
Lanaldia	175
Dedikazioa	150

**Laugarrena.-** Eskala bikoitza duten hainbat lanpostu, eskala bakarrekin uztea.

Giza Baliabide sailak Lanpostu zerrendaren azterketa bat egin ondoren, somatu du hainbat lanpostu “eskala” bikoitza dutela, hau da, Eskala orokor zein eskala bereziko lanpostuak bezala daude sailkatuak. Honek, deialdiak egiterako orduan zailtasunak eta arazoak ekartzen ditu, batipat lanpostuaren ezaugarriak finkatzerako garaian eta gaitegia prestatzerako orduan; horregatik, ondoren aipatuko diren lanpostu hauen eskala bikoitza, eskala bakarrean uztea proposatzen da:

- “Kontuhartzaitzako Goi mailako teknikaria”; kasu honetan lanpostuaren ezaugarriak kontuan hartuaz, Administrazio **bereziko** eskala gisa uztea proposatzen da, izan ere lanpostua hau betetzeko titulazioa ekonomia edo antzeko alorretan baita.

- “Giza Baliabideetako arduraduna”: kasu honetan lanpostuaren ezaugarriak ikusirik, Administrazio **orokorreko** eskala gisa uztea proposatzen da, izan ere lanpostu hau betetzeko eskatzen den titulazioa orokorra baita.

- “Giza Baliabideetako teknikaria” (3.305 eta 3.306 lanpostuak): aurreko kasuan bezala, lanpostuaren ezaugarrietatik ondorioztatzen da lanpostu hau Administrazio **orokorreko** eskalan sailkatua egon behar duela, izan ere lanpostu hau betetzeko eskatzen den titulazioa orokorra baita.

- “Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta azoketako arduraduna”: kasu honetan, lanpostuaren funtzioak hain heterogeneoa izanik, ezin da titulazio bakar bat eskatu lanpostu hau betetzeko, horregatik lanpostu hau Administrazio **orokorreko** eskalan sailkatua egon behar du lanpostuak dituen ezaugarrien baitan.

**Bosgarrena.-** Lanpostu zerrendako hizkuntz eskakizunak, otsailaren 22ko 19/2024 dekretura egokitzea.

2024ko martxoaren 8an, euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko dekretua argitaratu zen Euskal Herriko Aldizkari ofizialean. Bertan, beste hainbat gaien artean, Lanpostu zerrendan hizkuntza eskakizunak egokitzeko agindua agertzen da, bi zentzutan hain zuzen ere: batetik, hizkuntza-eskakizunak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko izendapenetara egokitzea; eta bestetik, lanpostu bakoitzari bi hizkuntza-eskakizun ezartzea, bi trebetasunen arabera (irakurmena-idazmena eta entzumena-mintzamena).

Honela, Euskara eta Hezkuntza sailetik Lanpostu zerrendaren egokitzapen horien azterketa egin ondoren, lanpostu gehienek hizkuntz eskakizun berbera mantendu dute baina hainbat kasuetan aldaketak proposatu dira bi zentzutan: batetik, hainbat lanpostuk, beren funtzioak aztertu ondoren, hizkuntz eskakizun aldaketa jasan dute eta bestetik, beste kasu batzuetan, hizkuntz eskakizun asimetrikoa finkatu da, guztia Hizkuntz Politikarako Sailordetzak eman beharreko txostenera baldintzatua geratzen delarik.

Honela, hizkuntz eskakizun asimetrikoak honako lanpostuei esleituko zaizkie:

Lanpostua	Ulermena- mintzamena	Irakurmena- idazmena
Igeltsero balioaniztuna (6.208)	B1	A2
Gidari pertsonal balioaniztuna (6.209)	B1	A2
Igeltsero eta gidari pertsonal balioaniztuna (6.210)	B1	A2
Pertsonal balioaniztuna A (6.211)	B1	A2
Pertsonal balioaniztuna B (6.212)	B1	A2
Ofizial iturgina (6.213)	B1	A2
Kirol-instalazioetako arduraduna (10.106)	B1	A2
Udal-eraikinetako pertsonala (6.216)	B2	B1
Udal-eraikinetako pertsonala (6.216)	B2	B1

Bestalde, honako lanpostu hauei hizkuntza eskakizuna aldatzea proposatzen da, egun dituzten funtzioak kontuan hartuta:

Lanpostua	Ulermena- mintzamena	Irakurmena- idazmena
Txistularia (8.402)	B2	B2
Diziplina eta jardueretako arkitekto teknikoa (6.201)	C2	C2
Gizarte langilea "parte-hartzea eta lankidetz" (5.103)	C1	C1

Gizarte langilea "Informazioa, orientazioa eta balioespena" (5.106)	C1	C1
Gizarte langilea "familia eta bizikidetzatza" (5.107)	C1	C1
Gazteriako teknikaria (8.201)	C2	C2
Berdintasun teknikaria A (11.101)	C2	C2
Berdintasun teknikaria B (11.102)	C2	C2
Kirol-instalazioen kudeatzailea (10.102)	C2	C2

Azkenik, hizkuntza muina duten lanpostuetan, lehen "TG/TH" izendapena azaltzen zen tokian; orain TP izena azaldu behar du, zehazki lanpostu hauetan:

- Hezkuntza eta Euskarako arduraduna (9.101).
- Hizkuntza-normalizazioko teknikaria (9.102).
- Itzultzailea (9.103).
- Euskaltegiko zuzendaria eta irakaslea (9.201).
- Idazkari akademikoa eta irakaslea (9.202).
- Euskaltegiko irakaslea (9.203).

Aldaketa hauek Hizkuntz Politikarako Sailordetzak eman beharreko txostenera baldintzatuak geratuko dira, izan ere hark txostena egin behar du.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**Lehena.**- 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, "*Las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares*". Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeko ahalarren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen Zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena
- Sailkapen profesionalean zein Taldetakoa den
- Lanpostuaren eskala
- Lanpostua betetzeko modua
- Ordainsari osagarriak

Lehen aipatutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

**Bigarrena.**- 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu publikoari buruzkoa, 45 eta 46 artikuluan arautzen ditu Lanpostuen Zerrendak, honela:

*“45. artikulua.– Lanpostu-zerrendak.*

*1.– Lanpostu-zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-beharrizanak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera.*

*2.– Lanpostu-zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo bereizita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratadun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.*

*3.– Lanpostu-zerrendak eta haietan izandako aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkarian foru-aldundietakoak edo toki-erakundeetakoak direnean. Argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira ondorioak izaten lanpostu-zerrendak, non eta berariaz beste data bat zehazten ez den. Hori guztia, lanpostu-zerrenden barruko datuen transferentzia bermatze aldera.*

*4.– Une bakoitzean errazago ezagutu dadin zein den lanpostu-zerrenden egoera, bai eta zerrenda horien kudeaketa errazteko ere, enplegu publikoaren eskumena duten organoek aldian-aldian eguneratuko dute zerrendon gaineko informazioa. Halaber, administrazio bakoitzeko egoitza elektronikoa agertu beharko dira bateratuta, gardentasunez, eta etengabe eguneratuta.*

*5.– Ez da egongo lanpostu-zerrenda alde zurretik zertan aldatu kasu hauetan: dagokien euskal administrazio publikoetan enplegu publikoaren eskumena duten sailek funtzionarioen lanpostuen adskripzioa aldatzean –giza baliabideen berresleipen, berradskripzio edo birbanaketarengatik–, baldin eta destino berria badago eragindako langileen arestiko zerbitzu-udalerrri berean –edo campus berean, Euskal Herriko Unibertsitatearen kasuan– eta lan-baldintzak aldatzen ez badira. Aldaketa, dena den, lanpostu-zerrendan sartu beharko da; sartu ere, lanpostu-zerrendaren hurrengo aldaketan, berradskripzioa gertatuz gerokoan.*

*6.– Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezkotresnak. Apartatu honetan xedaturik dagoenerako, aldaketa hauek ez dira kontuan hartuko: eduki funtzionala ukitu gabe, lanpostuak adskribatuta dauden sail edo organoen izenari bakarrik eragiten diotenak.*

*7.– Lanpostu-zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez, non ezingo duten barnean hartu lanposturik baldin eta haren dotazioari ezin bazaio eutsi dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantilletan aurreikusitako kredituekin.*

*8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostu-zerrendak Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, lege honen 17. artikuluan xedatutakoaz bat.*



9.– *Foru- eta toki-administrazioetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean, haien arauen arabera horretarako eskumena duen organoak onartuko ditu lanpostu-zerrendak.*

46. artikulua.– *Lanpostu-zerrenden edukia.*

1.– *Lanpostu-zerrendek datuok adieraziko dituzte, nahitaez, lanpostu bakoitzeko:*

- a) *Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dagoen dotazio kopurua.*
- b) *Zer sail edo zentro organikotara adskribatuta dagoen.*
- c) *Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, sailkapen profesionaleko talde edo azpitaldeak eta zer kidego, eskala edo beste sistematarantz adskribatuta dauden, hala badagokio. Ez dago eragozpenik lanpostuak talde, azpitalde, kidego edo eskala batera baino gehiagotara adskribatzeko.*
- d) *Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala.*
- e) *Hornitzeko-sistema –dela lehiaketa, dela izendapen askea– eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaien hornikuntza hori.*
- f) *Ordainsari osagarriak, lanpostuari lotuak.*
- g) *Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.*
- h) *Dedikazio-araubidea.*
- i) *Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den.*

2.– *Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira, era berean, dena delako lanpostuan jarduteko eskatzen diren berariazko betekizunak, hala badagokio.*

3.– *Lanpostu-zerrenden bitartez bakarrik ken daitezke lanpostuak edo dotazioak lan-kargak aztertzeko prozesuen ondorioz, langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren.*

4.– *Behin-behineko langileen lanpostu-zerrendek hauek jasoko dituzte, gutxienez: artikulua honen 1. apartatuko a), b), g) eta h) letretan aipatzen den informazioa, eta ordainsarien guztizko zenbatekoa”*

**Hirugarrena.-** 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitakoren arabera. Halaber, Lege honen 90.1 artikulua xedatutakoaren arabera, Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.

Aurrekoarekin kontsonantzia, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legeko

90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBko 126. artikulua, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantilla aldatzeko prozedura.

Halaber, 126.2 artikuluan xedatzen du plantillak handitu ahal izango direla supostu zehatz batzuetan:

*“2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:*

- a) *Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.*
- b) ***Siempre que el incremento de las dotaciones sea consecuencia del establecimiento o ampliación de servicios de carácter obligatorio que resulten impuestos por disposiciones legales.***

*Lo establecido en este apartado será sin perjuicio de las limitaciones específicas contenidas en leyes especiales o coyunturales.”*

Hori horrela, kontuan hartu behar da etxebizitzetako bi xedapenetatik (ekainaren 18ko 3/2015 etxebizitza Legea eta ekainaren 8ko 149/2021 Dekretua) eratorritako funtzioak txertatuko dira lanpostu berri honen funtzioetan. Funtzio hauek txertatzearen arrazoia da orain arte etxebizitza arloan bi xedapenak aurreikusten dituzten ekintzak ez zirela orain arte kontenplazten eta horregatik, lanpostu berri hau sortzea proposatzen da.

**Laugarrena.-** Abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023 urterako Estatutako Aurrekontu Orokorra onartzen dituena, bere 19. 2 artikuluan adierazten du 2023 urterako ordainsariak ezingo dutela % 2.5eko igoera finkoa baino handiago eduki 2022ko abenduaren 31rekiko, bai pertsonal baliabideei bai antzinasunari dagokionez.

Dena den, nahiz eta xedapen honek udal plantillaren handitzea ez duen baimentzen, kasu zehatz batzuetan, udala legez zerbitzu horiek ematera derrigortuta dagoen kasuetan alegia, baimenduta egongo da plazen sorrera. Honela dio 31/2022 Legearen 20.4 f) eta g) artikulua:

*“f) Las plazas necesarias para la puesta en marcha y funcionamiento de nuevos servicios cuyo establecimiento venga impuesto en virtud de una norma estatal, autonómica o local.*

*g) En los servicios públicos que pasen a ser prestados mediante gestión directa, el número de plazas que las empresas externas destinaban a la prestación de ese servicio concreto.”*

Kasu honetan, aurrekontu Legearen 20.4 artikulua g) atalaren babespean egon litzateke bi plaza hauen sorrera, izan ere etxebizitza funtzio sozialari dagozkion funtzioak beteko lituzke.

Kasu honetan, ekainaren 18ko 3/2015 etxebizitza Legea eta ekainaren 8ko 149/2021 Dekretuak etxebizitza hutsen eta etxebizitzaren funtzioa soziala betetzeko neurriei buruzkoak, hainbat obligazio finkatzen ditu etxebizitza alorrean, besteen artean, gazteek etxebizitza sustatzeko neurriak, etxebizitza eredu berriak egiteko hausnarketa eta plangintza egitea, etxebizitza hutsak betetzeko sustapen neurriak hartzea etab...

## ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua c) atalean xedaturikoaren arabera, giza baliabideetako instrumentuen irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, lanpostu zerrendaren aldaketa hau ordezkari sindikalekin negoziatu beharko da.

## ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkek:** Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Estitxu Kortejarena Ugarte,
- **Abstentzioak:** Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** 2025 urteko eta Lanpostu Zerrenda onartzea, honako plazen sorrera eta amortizazioekin:

- 1.- “Komunikazio teknikaria” lanpostua sortzea
- 2.- “Etxebizitzetako arkitekto” lanpostua sortzea
- 3.- “Kirol instalazioetako arduradun” lanpostua amortizatzea
- 4.- “Irratiko agente” lanpostua amortizatzea eta “Udaltzain (G/A)” lanpostua sortzea.

**Bigarrena.-** “Komunikazio teknikaria” eta “Etxebizitzetako arkitekto” lanpostuen behin-behineko balorazioa eta funtzioak onartzea.

**Hirugarrena.-** Lanpostu zerrendaren eskala bikoitza duten hainbat lanpostu, eskala bakarrean uztea, honakoak hain zuzen ere:

- “Kontuhartzaitzako Goi mailako teknikaria”; Administrazio **bereziko** eskala.
- “Giza Baliabideetako arduraduna”: Administrazio **orokorreko** eskala.
- “Giza Baliabideetako teknikaria” (3.305 eta 3.306 lanpostuak): Administrazio **orokorreko** eskala.
- “Garapen ekonomikoa, enplegua, merkataritza, turismoa eta azoketako arduraduna”: Administrazio **orokorreko** eskala.

**Laugarrena.-** Lanpostu zerrendako hizkuntz eskakizunak, euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko dekretua otsailaren 22ko 19/2024 dekretura egokitzea eta hainbat lanpostuen hizkuntz eskakizuna aldatzea, guztia Hizkuntz Politikarako Sailordetzak eman beharreko txostenera baldintzatua.

a) Hizkuntz eskakizun asimetrikoak honako lanpostuei esleitzea:

Lanpostua	Ulermena- mintzamena	Irakurmena- idazmena
Igeltsero balioaniztuna (6.208)	B1	A2
Gidari pertsonal balioaniztuna (6.209)	B1	A2
Igeltsero eta gidari pertsonal balioaniztuna (6.210)	B1	A2

Pertsonal balioaniztuna A (6.211)	B1	A2
Pertsonal balioaniztuna B (6.212)	B1	A2
Ofizial iturgina (6.213)	B1	A2
Kirol-instalazioetako arduraduna (10.106)	B1	A2
Udal-eraikinetako pertsonala (6.216)	B2	B1
Udal-eraikinetako pertsonala (6.216)	B2	B1

b) Honako lanpostu hauei hizkuntza eskakizuna aldatzea:

Lanpostua	Ulermena- mintzamena	Irakurmena- idazmena
Txistularia (8.402)	B2	B2
Diziplina eta jardueretako arkitekto teknikoa (6.201)	C2	C2
Gizarte langilea "parte-hartzea eta lankidetzatza" (5.103)	C1	C1
Gizarte langilea "Informazioa, orientazioa eta balioespena" (5.106)	C1	C1
Gizarte langilea "familia eta bizikidetzatza" (5.107)	C1	C1
Gazteriako teknikaria (8.201)	C2	C2
Berdintasun teknikaria A (11.101)	C2	C2
Berdintasun teknikaria B (11.102)	C2	C2
Kirol-instalazioen kudeatzailea (10.102)	C2	C2

c) Hizkuntza muina duten lanpostuetan, hizkuntz eskakizunaren atalean, TP izena azaltzea, zehazki lanpostu hauetan:

- Hezkuntza eta Euskarako arduraduna (9.101).
- Hizkuntza-normalizazioko teknikaria (9.102).
- Itzultzailea (9.103).
- Euskaltegiko zuzendaria eta irakaslea (9.201).
- Idazkari akademikoa eta irakaslea (9.202).
- Euskaltegiko irakaslea (9.203).

**Bosgarrena.**- Lanpostu zerrendaren onarpen hau baldintzatzea kontuhartzailearen fiskalizaziora eta Udaltzainburuak egin beharreko txostenera eta ordezkari sindikalekin legez negoziatu behar diren baldintzetara.

**Seigarrena.**- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

**Aurkako Botoak:** Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du 2025eko lanpostuen zerrenda.

### **3. HASIERAZ ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO LANPOSTUEN BALORAZIOA BERRIKUSTEKO ARAUDIA.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

#### **IKUSIRIK**

**Lehena.-** Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen.

Hori horrela, udalbatza osoak, berrikuspen araudiari dagokionean, honakoa onartu zuen:

*“**BOSGARRENA.-** Lanpostuen Balorazioko berrikuspena arautuko duen Erregelamenduaren onarpena atzeratzea, araudia lantzen eta negoziatzen den bitartean.”*

**Bigarrena.-** Honela, 2024ko bigarren seihilabetean Tolosako udal gobernu eta ordezkariak sindikala testu bat lantzen hasi ziren eta horren ondorioz, araudi proposamen bat adostu dute.

**Hirugarrena.-** Lanpostuen berrikuspenerako araudi hau Rodriguez Viñals enpresaren eskuliburuan oinarritu da eta lanpostuen balorazioen berrikuspenak eta lanpostu berrien balorazioak Rodriguez Viñals, S.L.k egindako faktore eta irizpideen arabera egingo dira, guztia araudi berri honetan proposatzen diren prozedurak jarraituz.

**Laugarrena.-** Araudi honen helburua, izenburuak dioten bezala, udaleko lanpostuen errebisioa eta eguneratzea izango da; honetarako, bost urteetan udaleko lanpostu guztien errebisioa aurrera eramateko helburua edukiko du arautegi honek.

Aldi berean, urtero udal gobernuak plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz baloratuko diren eta errebisatuko diren lanpostuak.

**Bosgarrena.**- Lanpostuen berrikuspenak edo lanpostu berrien balorazio prozedurak bi bide ezberdinetatik bultzatu ahal izango da:

- Lehena, **ofiziozko berrikuspena**; honetan bi prozedura erabiliko dira:
  - a) Ohiko prozedura: Udalak sustaturiko prozesuaren barruan, lanpostuen balorazioa berrikusteko onartutako plangintzaren arabera garatuko dena.
  - b) Ezohiko prozedura: lanpostu baten funtzioak modu kualitatiboan aldatzen direnean, (berrantolaketa bat egin delako, betebeharrak berriak sortu direlako, etab.) edo indarrean dagoen balorazioan akats edo hutsune nabarmenak ikusten direnean.
- Bigarrena, **interesatuek** berriz aztertzeko eskaturiko prozedura: honetan, udalak epe bat irekiko duten interesatuek, ahal nahi izan ezker, dagokin eskaera aurkez dezaten.

## ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua k) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen ordainsariei eta bere lan baldintzei dagozkien gaiak pertsonalaren ordezkarekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, erreglamendu hau 2024ko urriaren 15ean, urriaren 22an eta azaroaren 12an, ordezkari sindikalekin negoziatu zen.

## ONARTZEKO PROZEDURA

Arautegi honek udal ordenantza izaera du eta udal ordenantzak onartzeko prozedura, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.1 a) artikuluan arautzen da, hain zuzen ere haxe da jarraitu beharreko prozedura:

**Lehena.**- Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman behar dio.

**Bigarrena.**- Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman, gutxienez hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

**Hirugarrena.**- Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi eta Osoko Bilkurak behin betiko onartu. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez badute, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat joko dute.

Kasu honetan ez da aplikagarria izango urriaren 1ko 39/2015 Administrazio Prozedura Legearen 133 artikuluan ezarritakoa, egoitza elektronikoan kontsulta publikoa egitearen betebeharrei buruzkoa, hau da, erreglamenduak egiteko garaian hiritarren parte hartzeari buruzko izapidea salbuetsi ahal izango, besteen artean, udaleko barne araudia bat onartzen proposatzen den kasuetan. Hauxe finkatzen du 133 artikulua:

**Artículo 133. Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos.**

1. *Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*

- a) *Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
- b) *La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
- c) *Los objetivos de la norma.*
- d) *Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.*

2. *Sin perjuicio de la consulta previa a la redacción del texto de la iniciativa, cuando la norma afecte a los derechos e intereses legítimos de las personas, el centro directivo competente publicará el texto en el portal web correspondiente, con el objeto de dar audiencia a los ciudadanos afectados y recabar cuantas aportaciones adicionales puedan hacerse por otras personas o entidades. Asimismo, podrá también recabarse directamente la opinión de las organizaciones o asociaciones reconocidas por ley que agrupen o representen a las personas cuyos derechos o intereses legítimos se vieren afectados por la norma y cuyos fines guarden relación directa con su objeto.*

3. *La consulta, audiencia e información públicas reguladas en este artículo deberán realizarse de forma tal que los potenciales destinatarios de la norma y quienes realicen aportaciones sobre ella tengan la posibilidad de emitir su opinión, para lo cual deberán ponerse a su disposición los documentos necesarios, que serán claros, concisos y reunir toda la información precisa para poder pronunciarse sobre la materia.*

4. **Podrá prescindirse de los trámites de consulta, audiencia e información públicas** previstos en este artículo en el caso de **normas** presupuestarias u **organizativas** de la Administración General del Estado, la Administración autonómica, la Administración local o de las organizaciones dependientes o vinculadas a éstas, o cuando concurren razones graves de interés público que lo justifiquen.”

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.



Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehenik.-** Tolosako udaleko lanpostuen balorazioa berrikusteko araudiari hasierako onarpena ematea, hain zuzen ere honako testuari:

### **“TOLOSAKO UDALEKO LANPOSTUEN BALORAZIOA BERRIKUSTEKO ARAUDIA**

#### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1.- Araudiaren xedea eta mugak**

- 1. Araudi honen xedea da Tolosako Udaleko lanpostu berrien balorazioa egitea, edo Lanpostuen Zerrendan dauden lanpostuen balorazioa berraztertzea, aplikagarria den legeriak une bakoitzean xedatzen duena kontuan hartuta.*
- 2. Araudi honen aplikazioaren bidez ezarritako ordainsariekin errespetatu behar dituzte ordainsari kontzeptu guztiengatik, toki erakundeen zerbitzuan dauden langileek jaso dezaketen gutzitza gehieneko eta gutxieneko mugak.*
- 3. Aurrekoen ildotik, ezin izango zaizkie ordainsari baldintza diskriminatzaileak aplikatu kolektibo edo lanpostu jakin batzuei.*

##### **2.- Espedienteen izapidetzea eta erantzukizuna**

*Lanpostuak baloratzeko espedienteen erantzukizuna eta administrazio-artxioboaren ardura Giza Baliabideak Azpisailarena izango da.*

##### **3.- Organo eskuduna**

*Udalbatza izango da Tolosako Udaleko lanpostuen katalogoa eta balorazioa onartzeko edo aldatzeko organo eskuduna, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan xedaturikoa kontuan harturik.*

##### **4.- Giza Baliabideak Azpisailari esleitutako zereginak**

*Giza Baliabideak Azpisailak honako zeregin hauek izango ditu:*

1. Lanpostu bakoitzari esleitutako funtzioen eta zereginen deskribapenak definitzeko edo zuzentzeko proposamenak egitea, eta horiei buruzko txostenak egitea.
2. Eskuordetutako zinegotziari urteko egutegia proposatzea, lanpostuen balioespenak berrikusteko prozesuak egiteko, bai Udalak onartutako planean jasotakoak, bai interesdunek eskatutakoak.
3. Lanpostuen balorazioa eguneratzeko proposamenak eta txostenak egitea.
4. Lanpostu berrien balorazioa informatzea eta proposatzea.
5. Lanpostuen kudeaketari buruzko datuak aztertzea eta ustiatzea.
6. Lanpostuen balorazioa berraztertzekeo prozesuak programatzea.
7. Eskaerak eta erreklamazioak erregistratzea eta kontrolatzea.
8. Balorazio Batzordea koordinatzea eta haren programazioa proposatzea.
9. Balorazio Batzordeari aholkularitza teknikoa ematea.
10. Balorazio- eta birsailkapen-espeditenteak izapidetzea eta artxibatzea.
11. Prozeduretan hobekuntza teknikoak aztertzea eta proposatzea.
12. Orokorrean, lanpostuen katalogazioarekin eta balorazioarekin zerikusirik duten prozedurak informatzea eta izapidetzea.

#### **5.- Lanpostuen balorazioa egiteko/berraztertzekeo eskuliburua**

Lanpostuen balorazioen berrikuspenak eta lanpostu berrien balorazioak Rodriguez Viñals, SLk egindako faktore eta irizpideen arabera egingo dira, harik eta Udalbatzak balorazio-eskuliburu berri bat onartzen duen arte.

## **II. LANPOSTUAREN BALORAZIOA EGITEKO EDO BERRIZ AZTERTZEKO OFIZIOZ SUSTATURIKO PROZEDURAK**

#### **6.- Lanpostu berri bat baloratzea.**

6.1. Lanpostu berri bat sortzeko, indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzeaz gain, honako dokumentu hauek onartu beharko dira:

- Sortzen den lanpostuari esleitutako funtzioak eta zereginak.
- Lanpostuaren kokapena Udalaren organigraman.
- Lanpostuaren balorazioa, Udalbatzak onartutako araudiaren arabera.

6.2. Lanpostua baloratzeko prozedura araudi honen 10. artikuluan xedaturikoa izango da. Hala ere, arrazoi justifikatuak direla medio, lanpostuari behin-behineko balorazioa esleitu ahal izango zaio, beti ere dagokion prozedura kontuan hartuz.

## **7.- Lanpostuen balorazioa ofizioz berrikustea.**

7.1 Lanpostuen balorazioa ofizioz berrikusteko, honako prozedura hauek erabiliko dira:

- a) **Ohiko prozedura:** Udalak sustaturiko prozesuaren barruan, lanpostuen balorazioa berrikusteko onartutako plangintzaren arabera.
- b) **Ezohiko prozedura:** Lanpostu baten funtzioak modu kualitatiboan aldatzen direnean (berrantolaketa bat egin delako, betebeharrak berriak sortu direlako, etab.) edo indarrean dagoen balorazioan akats edo hutsune nabarmenak ikusten direnean.

7.2. Balorazioaren berrikuspena egiterakoan kontuan hartu beharko dira lanpostuaren **funtzioen aldaketak** (lanpostuak baldintza kualitatibo ezberdinak eskatzen dituenak) eta **ez** lanpostuari atxikituriko **zereginak** (lanpostuari dagozkion gaitasun edo baldintza desberdinak eskatzen ez duten zereginak), beti ere lanpostuari esleitutako berariazko osagarriari eragiten dioten zereginen hazkunde kualitatibo edo kuantitatibo nabarmenik ez badakarte (adibidez, ordutegi ezberdinak ezartzea -arratsaldetan eta jaiegunetan-, nekagarritasuna areagotzea...).

7.3. Urtero, Giza Baliabideen zinegotzi delegatuak edo, hala badagokio, Alkatezak egutegi bat onartuko du, onartutako Planaren arabera dagozkion balorazioak berrikusteko.

## **8.- Lanpostuen balorazioa ofizioz berrikusteko plangintza.**

8.1. Lanpostuen ofiziozko berrikuspena aldiro egingo da, modu sistematikoan eta programatuan, udalak onartutako plangintzaren arabera. Plangintza hori, lanpostuen balorazio orokorra behin betiko onartu, eta bi urtera hasiko da exekutatzeko.

8.2. Tolosako Udaleko lanpostuen balorazioa ofizioz berrikusteko planak honako eduki hau izango du, gutxienez:

- a) Udalbatzak onartutako lanpostuen katalogoa, lanpostu bakoitzari esleitutako balorazioa, eta udal organigrama.
- b) Proposatzen diren balorazioen berrikuspeneren programazioa, Azpisailaren

*ikuspuntutik dauden lehentasunen arabera, kontuan hartuta udaleko lanpostu guztien balorazioen berrikuspena, gehienez ere, bost urteko epean egin behar dela.*

- c) Egiten diren aldaketa-proposamenak arrazoitu egin behar dira, 7.2 artikuluan ezarritako irizpideen arabera, eta honako dokumentu hauek izango dituzte: lanpostuari esleitutako funtzioen eta zereginen katalogoa aldatzeko proposamena, balorazio berri bat egiteko proposamen arrazoitua, eta, hala badagokio, Sailaren organigrama aldatzeko proposamena.*
- d) Lanpostu bati esleitutako eginkizunak gehitu, gutxitu edo aldatuz gero, beste lanpostu batzuetan duen eragina aztertu beharko da.*
- e) Lanpostuen balorazioa berrikusteko faseak ezartzeaz gain, plangintzak zehaztuko ditu epeak, eta prozesuan zehar aplikatu beharreko adierazleak.*

*8.3. Tolosako Udaleko lanpostuen balorazioa ofizioz berrikusteko Planaren onespena honako prozedura honen arabera gauzatuko da:*

- a) Giza Baliabideak Azpisaileko arduradunak planaren proposamena aurkeztuko dio zinegotzi delegatuari, eta, halakorik ez badago, alkateari, Araudi hau onartu eta, gehienez, hilabete bateko epean.*
- b) Segidan, plangintzaren proposamena jakinaraziko zaie sail eta azpisailetako arduradunei (politikoei zein teknikoei), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- c) Giza Baliabideak Azpisaileak aztertu egingo ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta plangintzaren proposamena osatuko du, dagokion izapidetzea izan dezan. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*
- d) Ondoren, plangintzaren proposamena jakinaraziko zaio langileen ordezkariari, eta Balorazio Batzordean negoziatuko da. Langileen ordezkariak hamabost laneguneko epea izango du gutxienez, proposatutako Plangintza aztertzeko negoziazioak hasi aurretik.*
- e) Ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak Udaleko lanpostuen balorazioa berrikusteko plangintza onartuko du.*
- f) Plangintza aldatu beharko balitz, izapidetze berdina egingo da.*

8.4. *Plangintzak kontuan hartuko ditu sailtako arduradunek proposatutako aldaketak, baina balorazioen berrikuspenen ordena eta lehentasunak Plangintzak berak ezarriko ditu.*

8.5. *Lehentasunez izapidetzeko eskaera bat baino gehiago egonez gero, zinegotzi delegatuak edo, hala badagokio, alkateak ezarriko du lehentasun-hurrenkera, sail interesdunetako arduradunei eta langileen ordezkariari entzun eta Giza Baliabideak Azpisailak dagokion txostena egin ondoren.*

8.6. *Era berean, plangintzan aurreikusitako berrikuspenen programazioa ikuspegi orokor batetik egin beharko da, udal sail eta azpisail guztien egoera kontuan hartuta.*

8.7. *Halaber, kontuan hartu beharko dira Giza Baliabideak Azpisailari plangintza exekutatzeko esleitzen zaizkion baliabideak.*

8.8. *Ezartzen den berrikuspenen plangintzak bermatu behar du udaleko lanpostu guztiak gehienez 5 urteko epean aztertu, berrikusi eta aztertuko direla.*

## **9.- Lanpostuen balorazioa berrikusteko ofiziozko ohiko prozedura.**

9.1. *Giza Baliabideak Azpisailak, arloko zinegotziak aginduta, lanpostuen funtzio/zereginen eta balorazioen proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontaktzen hasita.*

9.2. *Proposamena jakinaraziko zaie dagokien sailtako arduradunei (politikoei zein teknikoei), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontaktzen hasita.*

9.3. *Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioen proposamena aurkeztuko du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik. Honako kasuak egon daitezke:*

*Lehena: Lanpostuei dagozkien faktoreen funtzioetan eta puntuazioetan aldaketa nabarmenik ez egotea. Orduan, berrikuspena amaitutzat jotzeko proposamena egingo du Giza Baliabideak Azpisailak.*

*Bigarrena: Lanpostuei esleitutako funtzioak aldatzea, baina puntuazio orokorra ez aldatzea. Kasu horretan, Lanpostuen Katalogoaren eta balorazioaren osagaien aldaketak izapidetzeko proposamena egingo du Giza Baliabideen azpisailak, Udalbatzak onar dezan.*

*Hirugarrena: Lanpostuari dagozkion faktoreen batuketaren ondorioz puntuazio orokorra aldatzen denean, lanpostuaren balorazioa ezartzeko edo aldatzeko prozedura hasiko da, hurrenez hurren.*

*9.4. Artikulu honetan jasotako proposamen guztiak langileen ordezkariak jakinarazi behar zaizkio, eta ondoren negoziatu behar dira dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hau beste zazpi lanegunetz luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*

*9.5. Lanpostuen katalogoa edo/eta lanpostuen balorazioa aldatzea dakarten proposamenak izapidetu egin beharko dira, udalbatzak onar ditzan:*

- a) Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*
- b) Balorazio Batzorde Iraunkorrek onartutako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- c) Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkariak jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da (lanpostuen zerrenda aldaketa gisa).*
- d) Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irrimo denetik, eta salbuespeneko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik.*

## **10.- Lanpostu baten balorazioa berrikusteko ofizialko prozedura ezohikoa.**

*10.1. Balorazio hau ofizialko gauzatuko da lanpostu baten funtzioak modu kualitatiboan aldatzen direnean (berrantolaketa bat egin delako, betebeharrak berriak sortu direlako, etab.), edo indarrean dagoen balorazioan akats edo hutsune nabarmenak ikusten direnean. Halaber, prozedura hau jarraituko da lanpostu berri bat sortzen denean.*

*10.2. Berrikusteko prozedura hau izango da:*

- a) Giza Baliabideak Azpisailak, zinegotzi delegatuak (edo alkateak, hala badagokio) aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorazioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontaktatzen hasita.*

- b) *Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- c) *Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*
- d) *Proposamena langileen ordezkari jakinarazi behar zaio, eta ondoren negoziatu behar da dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hori beste zazpi lanegunetz luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*
- e) *Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*
- f) *Balorazio Batzorde Iraunkorrek egindako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- g) *Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkari jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- h) *Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik, eta salbuespenezko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik.*

### **III. LANPOSTUAREN BALORAZIOA EGITEKO EDO BERRIZ AZTERTZEKO INTERESDUNEK ESKATURIKO PROZEDURAK**

#### **11.- Interesdunak**

*Prozedura honetan interesduntzat joko dira: eragindako lanpostua hornitzen duten langileak, dagokien saileko arduradun teknikoak eta langileen ordezkariak.*

#### **12.- Lanpostuaren balorazioa berrikustea eskatzeko arrazoiak.**

*Lanpostuaren balorazioa berrikusteko eskaera modu arrazoituan eskatu beharko da,, honako hauen arabera:*

- a) *Lanpostuaren funtzioak modu kualitatiboan aldatu direlako, kontutan hartuz Araudi honen 7.2 artikuluan xedaturikoa.*
- b) *Egindako balorazioan akats edo hutsune nabarmenak ikusi direlako.*

**13.- Lanpostu baten balorazioa berrikusteko prozedura interesdunak hala eskatuta.**

**13.1. Berrikusteko prozedura hau izango da:**

- a) *Eskaera udaleko erregistrotik aurkeztu eta gero, Giza Baliabideak Azpisailak, arloko zinegotziak aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorazioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontatzen hasita.*
- b) *Urtero, Giza Baliabideen zinegotzi delegatuak edo, hala badagokio, Alkatetzak egutegi bat onartuko du interesdunek eskatutako balorazioak berrikusteko.*
- c) *Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- d) *Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*
- e) *Honako kasu hauek egon daitezke:*
  - a) *Lehena: Lanpostuei dagozkien faktoreen funtzioetan eta puntuazioetan aldaketa nabarmenik ez egotea. Orduan, berrikuspenera amaitutzat jotzeko proposamena egingo du Giza Baliabideak Azpisailak.*
  - b) *Bigarrena: Lanpostuei esleitutako funtzioak aldatzea, baina puntuazio orokorra ez aldatzea. Kasu horretan, Lanpostuen Katalogoaren eta balorazioaren osagaien aldaketak izapidetzeko proposamena egingo du Giza Baliabideak Azpisailak, Udaltzat onar dezan.*
  - c) *Hirugarrena: Lanpostua berria denean, edo lanpostuaren puntuazio orokorra aldatzen denean (dagozkion funtzioak kualitatiboki aldatu direlako, edo egindako*



*balorazioan akatsa zegoelako), lanpostuaren balorazioa ezartzeko edo aldatzeko prozedura hasiko da, hurrenez hurren.*

*13.2. Artikulu honetan jasotako proposamen guztiak langileen ordezkariak jakinarazi behar zaizkio, eta ondoren negoziatu behar dira dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hau beste zazpi lanegunez luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatu ezker.*

*13.3. Lanpostuen katalogoa edo/eta lanpostuen balorazioa aldatzea dakarten proposamenak izapidetu egin beharko dira, Udalbatzak onar ditzan:*

- a) Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*
- b) Balorazio Batzorde Iraunkorrek onartutako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- c) Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkariak jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- d) Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik, eta salbuespeneko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik .*
- e) Prozedurako sustatzaileek ezingo dute beste eskaera bat aurkeztu bi urteko epean, ebazpena irmoa den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*

#### **IV.- LANPOSTUAK BALORATZEKO BATZORDE MISTO PAREKIDE ETA IRAUNKORRA**

##### **14.- Balorazio Batzorde misto parekidea.**

*Balorazio Batzorde Mistoa lanpostuen balorazioa aztertzeko, berrikusteko eta negoziatzeko organoa da.*

*Bere xedea izango da lanpostuen balorazioei buruzko proposamenak Antolakuntza Informazio Batzordeari aurkeztea, Udalbatzak ebatz ditzan.*

##### **15.- Batzordearen osaketa**

*15.1. Balorazio Batzordearen osaketa parekidea izango da. Bertan parte hartuko dute udal gobernuko ordezkariak eta Tolosako Udalean ordezkariak duten sindikatuak.*

*ordezkariek (funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen ordezkariek).*

*15.2. Udal ordezkarien karguaren iraupena dagokien agintaldiarekin bat etorriko da, eta hori amaitzen denean utzi beharko dute.*

*15.3. Sindikatuen ordezkaritza berritu behar da hauteskunde sindikalen ondoren.*

*15.4. Horrez gain, funtzionario batek bileren akta egingo du, fede publikoa emateko, idazkari moduan.*

*15.5. Batzordearen lehendakaria alkatea edo hark izendaturiko korporazioko kidea izango da.*

*15.6. Balorazio Batzorde Iraunkorrak teknikarien edo aholkularien laguntza eska dezake, beharrezkotzat jotzen duenean.*

#### **16.- Balorazio Batzorde Mistoaren funtzionamendua**

*16.1. Batzordea bilduko da lehendakariak deialdia egiten duenean, ofizioz edo ordezkaritza sindikalak eskatzen duenean.*

*16.2. Deialdiak gutxienez bi laneguneko epea errespetatu beharko du. Deialdiarekin batera, gai zerrenda eta aztertu beharreko dokumentazioa banatuko da. Nolanahi ere, Araudi honetako 8., 9. eta 13. artikuluetan xedaturiko epeak errespetatuko dira.*

*16.3. Bilerak isilpekoak izango dira. Isilpean gordetzeko betebeharra betetzen ez bada, lehendakariak ahalmena izango du kide hori kanporatzeko.*

#### **17.- Aplikagarriak diren araudi osagarriak.**

*Erregelamendu honetan aurreikusita ez dagoen guztian, Batzorde Parekide Mistoaren funtzionamendua honako hauean ezarritakoaren arabera izango da: Tolosako Udalak onartutako Balorazio Eskuliburua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legea eta, subsidiarioki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legea.*

#### **18.- Araudi honen ondorioak soldata-masan.**

*18.1. Araudi honen xedapenen aplikazioak, berez, ez du eraginik izango soldata masaren zenbatekoan. Hala eta guztiz ere, alde puntualak egon daitezke lanpostuen balorazio*

*teknikoa egiteko erabilitako faktoreetakoren baten kalkulurako aurreikusitako biribiltzetik etorriak, Araudi honetan aurreikusitako baldintzetan.*

*18.2 Aurreko puntuan aipatutakoa ez da kontutan hartuko Araudi honetan edo Lanpostuak Baloratzeko Eskuliburuan jasotako irizpideak aplikatuta lanpostu batzuen balorazio teknikoaren berrikuspenetik, edo irizpide horien edukia aldatzeagatik edo lana antolatzeko sistemak edo sailkapen profesionalaren aldaketatik etor litezkeen aldaketen kasuetan.”*

**Bigarrenik.-** Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratzea, erreklamazio zein iradokizunak aurkeztu ahal izateko 30 lanegunetan informazio publikoan edukiaz.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman dio Tolosako Udaleko lanpostuen balorazioa berrikusteko araudiari.

#### **4. EZESTEIA LANGILE BATEN BATERAGARRITASUN-ESKAERA (S.E.A.).**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

Sonia Eguiguren Aristizabal udal langileak, zaldian ibiltzen ikasteko irakasle/entrenatzaile lanak egiteko bateragarritasun eskaera egin du. Urtean 70-90 ordu inguru izango dira, eta asteburuetan edo astean egun batean, goizez, izango dira entrenamenduak.

### **KONTUAN HARTURIK**

**Lehena.-** Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 145. artikuluan ondorengo xedatzen du:

“Toki-administrazioko funtzionarioen bateraezintasunen araubidea abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Estatuak toki-administrazioko funtzionarioei aplikatzeko ematen dituen arauetan funtzio publikorako oro har ezarritakoa da.”

Ildo beretik, 53/1984 Legeak, abenduaren 26koak, Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunak arautzen dituenak, 2.1 c) artikuluan xedatzen du lege hau aplikagarri izango zaiela toki-korporazioen zerbitzura dauden langileei.

**Bigarrena.-** Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, bateragarritasun jarduera publiko edo pribatu batean egiten den desberdintzen du; kasu honetan, jarduera pribatua burutuko du langileak.

**Hirugarrena.-** Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunak arautzen dituen abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 14. artikulua adierazten du herri administrazioetatik kanpoko lanbide, lan-, merkataritza- edo industria jardueretan aritzeko, aldez aurretik bateragarritasun aitortpena beharko dela.

Era berean, Euskal Enplegu Publikoa erregulatzen duen abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 171. artikulua ere horrela xedatzen du:

“171. artikulua. Bateraezintasun-araubidea.

1. Enplegatu publikoek zorrotz bete behar dute indarrean dauden legeetan jarritako bateraezintasun-araubidea, eta euskal administrazio publikoek hori bete dadin eskatu behar dute.

2. Sektore publikoan edo pribatuan edozein jarduera betetzeko, berariazko ebaluazioa egin beharko da aurrez eta, hala badagokio, bateragarritasun-baimena beharko da, zeina bakar-bakarrik emango baita indarrean den legedian aurreikusitako egoeretan eta erregelamenduz erabakitzen den prozedurari jarraikiz.”

**Laugarrena.-** 53/1984 Legeko IV kapituluko 11. artikuluan ondorengoa xedatzen du jarduera pribatuei buruz:

“De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 1º, 3, de la presente Ley, el personal comprendido en su ámbito de aplicación no podrá ejercer, por sí o mediante sustitución, actividades privadas, incluidas las de carácter profesional, sean por cuenta propia o bajo la dependencia o al servicio de Entidades o particulares que se relacionen directamente con las que desarrolle el Departamento, Organismo o Entidad donde estuviera destinado.”

Kasu honetan, egin nahi duen jarduera pribatuak ez du zerikusirik eta lotura zuzenik ez departamentuarekin ezta udalaren jarduerarekin ere.

**Bosgarrena.-** Aldiz, 53/1984 Legeko 16.4. artikuluan ordainsarietako muga ezartzen da. Zehazki, ondorengoa xedatzen da:

“Asimismo, por excepción y sin perjuicio de las limitaciones establecidas en los artículos 1º.3, 11, 12 y 13 de la presente Ley, podrá reconocerse compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas al personal que desempeñe puestos de trabajo que comporten la percepción de complementos específicos, o concepto equiparable, cuya cuantía no supere 30 por 100 de su retribución básica, excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad.”

53/1984 Legeko 16.4. artikuluan ezartzen den ordainsarien arloko muga bakarra.

Kasu honetan, oinarrizko soldata 10.024,64€koa da eta berariazko osagarria 14.133,00€koa. Oinarrizko soldataren %30a 3.007,392€ dira. Ikus daiteke berariazko osagarria oinarrizko soldataren %30a baino gehiago dela. Beraz, 53/1984 Legeko 16.4. artikuluan oinarrituta berariazko osagarria gehienez 3.007,392€koa izan daiteke eta kasu honetan ordainsarien muga pasa egiten da.

**Seigarrena.-** Euskal Enplegu Publikoa erregulatzen duen abenduaren 1eko 11/2022 Legeko hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian egoera honen aurrean aukera hau ezartzen da:

“HOGEITA HAMAIKAGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Berariazko osagarria murriztea jarduera pribatuak egiteko bateragarritasuna baimentzeko.

- a. Euskal administrazio publikoetako funtzionarioek eska dezakete lanean diharduten lanpostuari dagokion berariazko osagarria, edo horren pareko kontzeptua, murriztea, helburu izanik ez gaintitzea Herri Administrazioen Zerbitzuan diharduten Langileen Bateriaezintasun Egoerei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 16.4 artikuluan adierazten den ehunekoa eta jarduketa pribatuetan aritzeko bateragarritasuna eskatu ahal izatea.
- b. Aukera horretatik kanpo gelditzen dira honako hauek guztiak: zuzendaritza-kide publiko profesionalak, zuzendari-maila edo handiagoa duten behin-behineko langileak, 29 edo 30. mailako destino-osagarria esleitu zaien lanpostuetan diharduten langileak eta jasotzen dituzten ordainsari osagarrietan bateraezintasunaren faktorea daukatenak.
- c. Euskal administrazio publikoek administrazio horietako funtzionarioen berariazko osagarria edo kontzeptu parekagarria murrizteko prozedura onartuko dute, interesdunek eurek hala eskatuta.
- d. Lan-alorreko enplegu-harremana duten enplegatu publikoei funtzionarioen baldintza berberetan emango zaie bateragarritasun-baimena, jarduera pribatuetan aritu ahal izateko, baina, horretarako, ezinbestekoa izango da ordainsariak murriztea.
- e. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eremuan, beharrezkoak diren xedapenak ezarriko dira arautze aldera zein egoera, baldintza, ondorio eta prozedura behar diren osasun-langileek berariazko osagarriari uko egin ahal izatea izan dezaten aplikatzen zaien araudi espezifikoaren arabera.”

Horiek horrela, langileak berariazko osagarria murriztea eska dezake, jarduera pribatuarekin bateragarritasuna lortzeko helburuz. Kasu honetan, berariazko osagarria 14.133,00€tik 3.007,392€ra jaitsi beharko litzateke.

## PROZEDURA

Prozedurari dagokionez, bateragarritasun eskaera onartzea edo ukatzea, abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 14. artikulua baitan, **udalbatzari** dagokio, betiere dagokion txostena jaso ondoren.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehen.**- Sonia Eguiguren Aristizabal langileari jarduera pribatua egiteko bateragarritasuna ukatzea.

**Bigarrena.**- Langileari berariazko osagarria murrizteko aukera duela jakinaraztea eta horretarako eskaera egin beharko duela adieraztea. Hala nahi izanez gero, berariazko osagarria 3.007,392€tara jaitsi beharko luke.

**Hirugarrena.**- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, ezeztu du langile baten bateragarritasun-eskaera.

## **5. BERTAN BEHERA UZTEA A.M.E. LANGILEARI EMADAKO BATERAGARRITASUNA.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

### **KONTUAN HARTURIK**

**Lehena.-** Giza Baliabide saileko teknikariak txosten teknikoa luzatu du, honakoa adieraziz:

**Lehena.-** 2024ko apirilaren 29an, udalbatzak, besteen artan, honako erabakia hartu zuen:

*“LEHENA.- Aitor Miguel Eraso udal langileari, arratsaldez, 16:00etatik aurrera, entrenatzaile pertsonal lanetan aritzeko bateragarritasun eskaera onartzea.*

***BIGARRENA.-** Bateragarritasun baimenean onartzen diren baldintzak aldatuko hauen berri eman beharko dio, hauek berriro aztertu eta dagokion ebazpena em*

***HIRUGARRENA.-** Akordioa interesatuari jakinaraztea.”*

**Bigarrena.-** Erabaki hau hartu ondoren, Giza baliabide azpisailak antzeman du onartutako bategarritasun onarpenean akats bat dagoela eta horregatik, azpisail honetatik berriro dagokion azterketa egingo da.

### **LEGE XEDAPENAK ETA GAIAREN AZTERKETA**

**Lehena.-** Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 145. artikuluan ondorengo xedatzen du:

“Toki-administrazioko funtzionarioen bateraezintasunen araubidea abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Estatuak toki-administrazioko funtzionarioei aplikatzeko ematen dituen arauetan funtzio publikorako oro har ezarritakoa da.”

Ildo beretik, 53/1984 Legeak, abenduaren 26koak, Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunak arautzen dituenak, 2.1 c) artikuluan xedatzen du lege hau aplikagarri izango zaiela toki-korporazioen zerbitzura dauden langileei.

**Bigarrena.-** Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, bateragarritasun jarduera publiko edo pribatu batean egiten den desberdintzen du; kasu honetan, jarduera pribatua burutuko du langileak.

**Hirugarrena.-** Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunak arautzen dituen abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 14. artikulua adierazten du herri administrazioetatik kanpoko lanbide, lan-, merkataritza- edo industria jardueretan aritzeko, aldez aurretik bateragarritasun aitortpena beharko dela.

Era berean, Euskal Enplegu Publikoa erregulatzen duen abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 171. artikulua ere horrela xedatzen du:

“171. artikulua. Bateraezintasun-araubidea.

1. Enplegatu publikoek zorrotz bete behar dute indarrean dauden legeetan jarritako bateraezintasun-araubidea, eta euskal administrazio publikoek hori bete dadin eskatu behar dute.

2. Sektore publikoan edo pribatuan edozein jarduera betetzeko, berariazko ebaluazioa egin beharko da aurrez eta, hala badagokio, bateragarritasun-baimena beharko da, zeina bakar-bakarrik emango baita indarrean den legedian aurreikusitako egoeretan eta erregelamenduz erabakitzen den prozedurari jarraikiz.”

**Laugarrena.-** 53/1984 Legeko IV kapituluko 11. artikuluan ondorengoa xedatzen du jarduera pribatuei buruz:

“De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 1º, 3, de la presente Ley, el personal comprendido en su ámbito de aplicación no podrá ejercer, por sí o mediante sustitución, actividades privadas, incluidas las de carácter profesional, sean por cuenta propia o bajo la dependencia o al servicio de Entidades o particulares que se relacionen directamente con las que desarrolle el Departamento, Organismo o Entidad donde estuviera destinado.”

Kasu honetan, egin nahi duen jarduera pribatuak ez du zerikusirik eta lotura zuzenik ez departamentuarekin ezta udalaren jarduerarekin ere.

**Bosgarrena.-** Aldiz, 53/1984 Legeko 16.4. artikuluan ordainsarietako muga ezartzen da. Zehazki, ondorengoa xedatzen da:

“Asimismo, por excepción y sin perjuicio de las limitaciones establecidas en los artículos 1º.3, 11, 12 y 13 de la presente Ley, podrá reconocerse compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas al personal que desempeñe puestos de trabajo que comporten la percepción de complementos específicos, o concepto equiparable, cuya cuantía no supere 30 por 100 de su retribución básica, excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad.”

53/1984 Legeko 16.4. artikuluan ezartzen den ordainsarien arloko muga bakarra.

Kasu honetan, oinarrizko soldata 11.826,64€koa da eta berariazko osagarria 15.310,82€koa. Oinarrizko soldataren %30a 3.547,99€ dira. Ikus daiteke berariazko osagarria oinarrizko



soldataren %30a baino gehiago dela. Beraz, 53/1984 Legeko 16.4. artikuluan oinarrituta berariazko osagarria gehienez 3.547,99€koa izan daiteke eta kasu honetan ordainsarien muga pasa egiten da.

**Seigarrena.-** Euskal Enplegu Publikoa erregulatzen duen abenduaren 1eko 11/2022 Legeko hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian egoera honen aurrean aukera hau ezartzen da:

“HOGEITA HAMAIKAGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Berariazko osagarria murriztea jarduera pribatuak egiteko bateragarritasuna baimentzeko.

- a. Euskal administrazio publikoetako funtzionarioek eska dezakete lanean diharduten lanpostuari dagokion berariazko osagarria, edo horren pareko kontzeptua, murriztea, helburu izanik ez gainditzea Herri Administrazioen Zerbitzuan diharduten Langileen Bateriaezintasun Egoerei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 16.4 artikuluan adierazten den ehunekoa eta jarduketa pribatuetan aritzeko bateragarritasuna eskatu ahal izatea.
- b. Aukera horretatik kanpo gelditzen dira honako hauek guztiak: zuzendaritza-kide publiko profesionalak, zuzendari-maila edo handiagoa duten behin-behineko langileak, 29 edo 30. mailako destino-osagarria esleitu zaien lanpostuetan diharduten langileak eta jasotzen dituzten ordainsari osagarrietan bateraezintasunaren faktorea daukatenak.
- c. Euskal administrazio publikoek administrazio horietako funtzionarioen berariazko osagarria edo kontzeptu parekagarria murrizteko prozedura onartuko dute, interesdunek eurek hala eskatuta.
- d. Lan-alorreko enplegu-harremana duten enplegatu publikoei funtzionarioen baldintza berberetan emango zaie bateragarritasun-baimena, jarduera pribatuetan aritu ahal izateko, baina, horretarako, ezinbestekoa izango da ordainsariak murriztea.
- e. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eremuan, beharrezkoak diren xedapenak ezarriko dira arautze aldera zein egoera, baldintza, ondorio eta prozedura behar diren osasun-langileek berariazko osagarriari uko egin ahal izatea izan dezaten aplikatzen zaien araudi espezifikoaren arabera.”

Horiek horrela, langileak berariazko osagarria murriztea eska dezake, jarduera pribatuarekin bateragarritasuna lortzeko helburuz. Kasu honetan, berariazko osagarria 15.310,82€tik 3.547,99€koa jaitsi beharko litzateke.

## PROZEDURA

Prozedurari dagokionez, bateragarritasun eskaera onartzea edo ukatzea, abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 14. artikulua baitan, udalbatzari dagokio, betiere dagokion txostena jaso ondoren.

ESKU764704ee-21a7-4797-9a0e-2651b3b46ba3

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** Aitor Miguel Eraso udal langileari 2024ko apirilaren 24an emandako bateragarritasun ebazpena bertan behera uztea.

**Bigarrena.-** Langileari berariazko osagarria murrizteko aukera duela jakinaraztea eta horretarako eskaera egin beharko duela adieraztea. Hala nahi izanez gero, berariazko osagarria 3.547,99€tara jaitsi beharko luke.

**Hirugarrena.-** Akordioa interesatuari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, bertan behera utzi du A.M.E. langileari emandako bateragarritasuna.

## 6. HASIERAZ ONARTZEA 2025EKO AURREKONTU OROKORRA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

### IKUSIRIK

**Lehena.-** 2024ko azaroaren 6an egin zen Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrean, udal gobernuak 2025eko aurrekontuen proiektua aurkeztu zuen. Bertan, aurrekontu proiektuari ekarpenak aurkeztu ahal izateko beste Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde bat egitea erabaki zen, azaroaren 20an.

**Bigarrena.-** 2024ko azaroaren 20ko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzordean Tolosako EAJ-PNV udal taldeak hainbat ekarpen aurkeztu zituen aurrekontuaren proiektua hobetzeko asmoz.

**Hirugarrena.-** Ekarpenak aztertu ondoren, udal gobernuak 2025eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra eta bere barne dauden ondorengo aurrekontuak aurkeztu ditu:

Udala	39.198.600, 00
Tolargi S.L.	1.134.959,0 0
Tolosa Gasa S.A. (%60ko partaidetza)	310.124,00

### KONTUAN HARTURIK

Araudi aplikagarria: 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.

Aurrekontu Orokorra osatzen duten aurrekontuetako bakoitzean sartu dira ekitaldian likidatu beharreko eskubideengatik aurreikusitako sarreraren egoera eta ordainketazko nahiz konpromisoazko beharrei aurre egiteko kredituen gastuen egoera.

Aurrekontuetan jasotako diru-sarrerak nahikoak dira bertan aurreikusitako gastuei aurre egiteko. Era horretan, Aurrekontu Orokorra ez du hasierako defizitirik.

Aurrekontu Orokorra nahiz bera osatzen duten aurrekontuak egiterakoan aurrekontu gaietan indarrean dauden xedapenak izan dira kontuan.

Aurrekontu Orokorraren onarpena Udalbatzarraren esku dago eta gehiengo soilaren aldeko botoa behar du.

Aurrekontu Orokorra onartzen duen behin-behineko erabakia hartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko behar da eta udaletxeko iragarki taulan jarri, jendeari horren berri emateko eta, hamabost laneguneko epean, jendeak aztertu eta egoki

irizitako erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, Udalbatzarrak hilabeteko epean erabaki beharko du eta Aurrekontu Orokorra behin-betiko onartu.

Erreklamaziorik ez badago, hartutako behin-behineko erabakia behin-betikoa izango da.

Proposamena bozkatu egin da, ondorengo emaitzarekin:

- **Aldeko botoak:** Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Kristina Pelaez Errazkin
- **Abstentzioa:** Ainhoa Dominguez Landa eta Biotxa Agirre Ugalde.

Hau dela eta, batzordeak

## DIKTAMINATU DU

**Lehena:** 2025 urteko Aurrekontu Orokorriari hasierako onarpena ematea.

Aurrekontuaren laburpena kapituluka hau da:

### Tolosako Udalaren Aurrekontua.

SARRERAK			INGRESOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	6.469.611,00	1	Impuestos directos	6.469.611,00
2	Zeharkako zergak	450.000,00	2	Impuestos indirectos	450.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	6.688.400,00	3	Tasas y otros ingresos	6.688.400,00
4	Transferentzia korronteak	19.290.103,00	4	Transferencias corrientes	19.290.103,00
5	Ondare sarrerak	1.400.186,00	5	Ingresos patrimoniales	1.400.186,00
6	Inbertsioen besterenganatzea	760.000,00	6	Enajenación de inversiones reales	760.000,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	174.300,00	8	Activos financieros	174.300,00
9	Finantza Pasiboak	3.966.000,00	9	Pasivos financieros	3.966.000,00
	GUZTIRA	39.198.600,00		TOTAL	39.198.600,00

GASTUAK			GASTOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Pertsonal Gastuak	12.607.355,00	1	Gastos de personal	12.607.355,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	15.925.479,00	2	Bienes corrientes y servicios	15.925.479,00
3	Finantza Gastuak	31.000,00	3	Gastos financieros	31.000,00
4	Transferentzia korronteak	4.792.584,00	4	Transferencias corrientes	4.792.584,00
6	Inbertsio errealak	4.819.920,00	6	Inversiones reales	4.819.920,00
7	Kapital Transferentziak	385.000,00	7	Transferencias de capital	385.000,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	637.262,00	9	Pasivos financieros	637.262,00
	GUZTIRA	39.198.600,00		TOTAL	39.198.600,00

### Tolargi S.L.ren Aurrekontua

SARRERAK			INGRESOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Impuestos directos	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Impuestos indirectos	0,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.367.749,00	3	Tasas y otros ingresos	1.367.749,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
5	Ondare sarrerak	0,00	5	Ingresos patrimoniales	0,00
6	Inbertsioen besterenganatzea	0,00	6	Enajenación de inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	-232.790,00	8	Activos financieros	-232.790,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	1.134.959,00		TOTAL	1.134.959,00

GASTUAK			GASTOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Pertsonal Gastuak	520.720,00	1	Gastos de personal	520.720,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	355.858,00	2	Bienes corrientes y servicios	355.858,00
3	Finantza Gastuak	5.000,00	3	Gastos financieros	5.000,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
6	Inbertsio errealak	239.881,00	6	Inversiones reales	239.881,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	13.500,00	9	Pasivos financieros	13.500,00
	GUZTIRA	1.134.959,00		TOTAL	1.134.959,00

**Tolosa Gasa S.A.ren Aurrekontua (%60a)**

SARRERAK			INGRESOS		
Kap.	Izena	%60a Euro	Cap.	Denominación	%60a Euros
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Impuestos directos	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	2	Impuestos indirectos	0,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	443.241,00	3	Tasas y otros ingresos	443.241,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
5	Ondare sarrerak	0,00	5	Ingresos patrimoniales	0,00
6	Inbertsioen besterenganatzea	0,00	6	Enajenación de inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	-133.117,00	8	Activos financieros	-133.117,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
GUZTIRA		310.124,00	TOTAL		310.124,00

GASTUAK			GASTOS		
Kap.	Izena	%60a Euro	Cap.	Denominación	60% Euros
1	Pertsonal Gastuak	0,00	1	Gastos de personal	0,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	310.124,00	2	Bienes corrientes y servicios	310.124,00
3	Finantza Gastuak	0,00	3	Gastos financieros	0,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
6	Inbertsio errealak	0,00	6	Inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
GUZTIRA		310.124,00	TOTAL		310.124,00

**Aurrekontu bateratua**

SARRERAK			INGRESOS		
Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	6.463.621,00	1	Impuestos directos	6.463.621,00
2	Zeharkako zergak	450.000,00	2	Impuestos indirectos	450.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	8.473.746,00	3	Tasas y otros ingresos	8.473.746,00
4	Transferentzia korronteak	19.290.103,00	4	Transferencias corrientes	19.290.103,00
5	Ondare sarrerak	1.400.186,00	5	Ingresos patrimoniales	1.400.186,00
6	Inbertsioen besterenganatzea	760.000,00	6	Enajenación de inversiones reales	760.000,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	-191.607,00	8	Activos financieros	-191.607,00
9	Finantza Pasiboak	3.966.000,00	9	Pasivos financieros	3.966.000,00
GUZTIRA		40.612.049,00	TOTAL		40.612.049,00

GASTUAK

GASTOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Pertsonal Gastuak	13.128.075,00	1	Gastos de personal	13.128.075,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	16.559.827,00	2	Bienes corrientes y servicios	16.559.827,00
3	Finantza Gastuak	36.000,00	3	Gastos financieros	36.000,00
4	Transferentzia korronteak	4.792.584,00	4	Transferencias corrientes	4.792.584,00
6	Inbertsio errealak	5.059.801,00	6	Inversiones reales	5.059.801,00
7	Kapital Transferentziak	385.000,00	7	Transferencias de capital	385.000,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	650.762,00	9	Pasivos financieros	650.762,00
	GUZTIRA	40.612.049,00		TOTAL	40.612.049,00

**Bigarrena.**- Jendaurrean jartzea hamabost egunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz gain Tolosako Udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

**Aurkako Botoak:** Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, hasierako onarpena eman dio 2025eko aurrekontu orokorrari.

## 7. ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURAK.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

## IKUSIRIK

2024an jarraian zehazten diren fakturak jaso dira eta 2019, 2020 eta 2022 ekitaldietako faktura data dute, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2024/1/11	2019/11/12	Pagola Eraikuntzak S.L.	2019/70	Udaletxeko estalkian egindako lanak	147,40 €
2024/1/11	2020/12/29	Pagola Eraikuntzak S.L.	2020/106	Errotako iragazketa konpontzea	567,49 €
2024/1/11	2022/6/7	Pagola Eraikuntzak S.L.	2022/56	Udaletxeko estalkian egindako lanak	4.099,48 €

Aipatutako fakturek dagokion sailaren oniritzia jaso dute.

## KONTUAN HARTURIK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin.

Aipatutako 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2023ko abenduaren 31an goran aipatutako fakturei dagozkien obligazioak onartu gabe zeuden eta 2024ko aurrekontutik onartuko dira.

Fakturak onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkek:** Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:



## IRIZPENA

Itxitako ekitaldietako faktura hauek onartzea:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2024/1/11	2019/11/12	Pagola Eraikuntzak S.L.	2019/70	Udaletxeko estalkian egindako lanak	147,40 €
2024/1/11	2020/12/29	Pagola Eraikuntzak S.L.	2020/106	Errotako iragazketa konpontzea	567,49 €
2024/1/11	2022/6/7	Pagola Eraikuntzak S.L.	2022/56	Udaletxeko estalkian egindako lanak	4.099,48 €

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu ditu itxitako ekitaldiko fakturak.

### **8. HASIERAZ ONARTZEA HERRI-JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOARI ETA HAREN APROBETXAMENDU BEREZIARI DAGOZKIEN TASEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

### **IKUSIRIK**

**LEHENA.-** Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“**LEHENA.-** 2023ko urriaren 26an, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasek ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

**BIGARRENA.-** Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailean 5eko 11/1989 zenbakidun Foru Araua erabilia aipatutako ordenantza aldatzeko proposamena jaso dela Kultura sailetik, 2.2.8 eranskina, hain zuzen ere, postuak herriko jaietan eta ferietan dagokiona.

**HIRUGARRENA.-** Gaur egun, honela dago 2.2.8 eranskina:

<i>Postuak herriko jaietan eta ferietan</i>	€ 2024
Taberna, foodtruck, kafetegi eta antzerakoak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	10,05
Txurrotegi eta txokolategiak eta ore frijituak mahaiak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	6,90
Pastelak, taloak, gozokiak, fruta sikuak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak, etab. Saltzeko txosnak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	6,90
Jaietako edonolako artikuluak saltzeko saltokiak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	21,60
Tiro txosnak eta antzeko jokoak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	4,05
Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	10,05
Zabuak, tresna hegalariak, kalesitak zaldiko-maldikoak, bunperrak eta, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	5,45
Auto-txoke pistak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	2,80
Ikuskizun eta antzerkiak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	2,80
Zirkoak.	
Kultur Departamentuaren adostasunarekin	312,00
Kultur Departamentuaren adostasunik gabe	757,35
Iñauteriak eta San Juan jaietan, udalaren adostasunarekin (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,41
Auzoko jaietan, udalaren adostasunarekin (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	1,38
Gabonetako karrusela	163,70

**"APLIKAZIO ARAUAK**

1. *Jaietako esparruko lurak adjudikatzeko enkante sistema erabiliko balitz, enkante hori kasu bakoitzean Udalak onartuko dituen oinarri eta baldintzen arabera egingo litzateke.*

2. *Jaietako esparruko lurren adjudikazioa Feriariaren Elkarte edo lege barruko nortasuna duten edozein pertsona fisiko edo juridikoekin hitzarmen bidez ere egin ahal izango da.*

3. *Inauteriak eta San Joan jaietan, udalaren adostasuna gutxienez ondorengo puntuetan izan beharko du:*

- *Baimendutako egunak*
- *Ordainketa epeak*

- *Tiket eta bonuen salneurria*
- *San Joan jaietako atrakzioen aurreikuspena.*

4. *Auzoetako jaietan, udalaren adostasuna gutxienez ondorengo puntuetan izan beharko du:*

- *baimendutako egunak*
- *ordainketa epeak*
- *tiket eta bonoen salneurria.”*

**LAUGARRENA.-** Kultura sailak gaur egungo egoera aztertuta, 2.2.8 eranskina honela onartzea proposatu du:

	<b>POSTUAK ETA BARRAKAK</b>	
1	<b>POSTUAK</b>	EUROAK 2025
1.1	Elikagaiak edo edariak saltzeko postuak: Taberna, kafetegi, txurrotegi, txokolategiak, taloak, food truck-a. pastelak, patata frijituak eta antzerakoak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	8,50
1.2	Artikuluak saltzeko postuak: artisautza, jostailuak, arropa, oinetakoak, bitxigintza eta hainbat produktu. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	7,10
1.3.	Denboraldiko postuak: izozkiak, gaztainak, etab. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,84
2	<b>BARRAKAK ETA KASETAK</b>	
2.1	Zabuak, tresna hegalariak, kalesitak, zaldiko-maldikoak, auto-txoke pistak, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,41
2.2	Jaietako tiro txosnak, globo, jostailu eta antzeko joko salmentak dituztenak. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,41
3	<b>BESTELAKOAK</b>	
3.1	Karrusela y cama elastica (120 m <sup>2</sup> -raino, eguneko).	10€
3.2	Karrusela y cama elastica ( 120 m <sup>2</sup> baino gehiago, eguneko).	20€

3.3	Zirkoak (eguneko)	50€
3.4	Denboraldiko Zirkoak, gutxienez 2 hilabeteko epea (eguneko)	5€
3.5	Ikuskizun eta antzerkiak(m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	2,8

*“Barraka eta feria moduan kontuan hartuko dira honako hauek: Zabuak, tresna hegalaria, kalesitak, zaldiko-maldikoak, auto-txoke pistak, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak. Eta jaietako kasetak honako hauek dira.*

*Kaseta moduan kontuan hartu dira honako hauek: jaietako tiro txosnak, globo, jostailu eta antzeko joko salmentak dituztenak .*

### KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau **PROPOSATZEN DU:**

**LEHENA.-** Tolosako udaleko Herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagokion 2.2.8 eranskina aldatzea.

Honela geratuko da 2.2.8 eranskina:

	POSTUAK ETA BARRAKAK	
1	POSTUAK	EUROAK 2025
1.1	Elikagaiak edo edariak saltzeko postuak: Taberna, kafetegi, txurrotegi, txokolategiak, taloak, food truck-a. pastelak, patata frijituak eta antzerkiak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	8,50
1.2	Artikuluak saltzeko postuak: artisautza, jostailuak, arropa, oinetakoak, bitxigintza eta hainbat produktu. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	7,10
1.3.	Denboraldiko postuak: izozkiak, gaztainak, etab. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,84

2	<b>BARRAKAK ETA KASETAK</b>	
2.1	Zabuak, tresna hegalariak, kalesitak, zaldiko-maldikoak, auto-txoke pistak, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,41
2.2	Jaietako tiro txosnak, globo, jostailu eta antzeko joko salmentak dituztenak. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,41
3	<b>BESTELAKOAK</b>	
3.1	Karrusela y cama elastica (120 m <sup>2</sup> -raino, eguneko).	10€
3.2	Karrusela y cama elastica ( 120 m <sup>2</sup> baino gehiago, eguneko).	20€
3.3	Zirkoak (eguneko)	50€
3.4	Denboraldiko Zirkoak, gutxienez 2 hilabeteko epea (eguneko)	5€
3.5	Ikuskizun eta antzerkiak(m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	2,8

*“Barraka eta feria moduan kontuan hartuko dira honako hauek: Zabuak, tresna hegalariak, kalesitak, zaldiko-maldikoak, auto-txoke pistak, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak. Eta jaietako kasetak honako hauek dira*

*Kaseta moduan kontuan hartu dira honako hauek: jaietako tiro txosnak, globo, jostailu eta antzeko joko salmentak dituztenak .*

**BIGARRENA.-** Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.”

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko bozkak:** Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Tolosako udaleko Herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagokion 2.2.8 eranskina aldatzea.

Honela geratuko da 2.2.8 eranskina:

	<b>POSTUAK ETA BARRAKAK</b>	
1	<b>POSTUAK</b>	EUROAK 2025
1.1	Elikagaiak edo edariak saltzeko postuak: Taberna, kafetegi, txurrotegi, txokolategiak, taloak, food truck-a. pastelak, patata frijituak eta antzera-koak (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	8,50
1.2	Artikuluak saltzeko postuak: artisautza, jostailuak, arropa, oinetakoak, bitxigintza eta hainbat produktu. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	7,10
1.3.	Denboraldiko postuak: izozkiak, gaztainak, etab. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,84
2	<b>BARRAKAK ETA KASETAK</b>	
2.1	Zabuak, tresna hegalaria, kalesitak, zaldiko-maldikoak, auto-txoke pistak, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,41
2.2	Jaietako tiro txosnak, globo, jostailu eta antzeko joko salmentak dituztenak. (m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	0,41
3	<b>BESTELAKOAK</b>	
3.1	Karusela y cama elastica (120 m <sup>2</sup> -raino, eguneko).	10€

3.2	Karrusela y cama elastica ( 120 m <sup>2</sup> baino gehiago, eguneko).	20€
3.3	Zirkoak (eguneko)	50€
3.4	Denboraldiko Zirkoak, gutxienez 2 hilabeteko epea (eguneko)	5€
3.5	Ikuskizun eta antzerkiak(m <sup>2</sup> edo zatikia, eguneko)	2,8

*"Barraka eta feria moduan kontuan hartuko dira honako hauek: Zabuak, tresna hegalariak, kalesitak, zaldiko-maldikoak, auto-txoke pistak, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak. Eta jaietako kasetak honako hauek dira*

*Kaseta moduan kontuan hartu dira honako hauek: jaietako tiro txosnak, globo, jostailu eta antzeko joko salmentak dituztenak .*

**BIGARRENA.-** Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman dio herri-jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantza fiskalaren aldaketari.

## 9. ONARTZEA UDALEKUEN PREZIO PUBLIKOAK.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

### IKUSIRIK

LEHENA.- Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“LEHENA.- 1989ko irailaren 29an, Ohiko Osoko Bilkurak prezio publikoen ordenantza onartu zuela.

BIGARRENA.- Gazteria zerbitzuko teknikariak udalekuen prezio publikoen ondorengo eranskina onartzea proposatu duela:

#### **1. artikulua. Kontzeptua**

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43.etik 50.era bitarteko artikuluetan ematen zaizkidan eskumenez baliatuz, Tolosako udal udalekuen zerbitzua emateagatiko prezio publikoa ezartzen du Udal honek.

#### **2. artikulua. Ordaintzera behartuak**

Udalekuetan izena ematen dutenak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

#### **3. artikulua. Sortzapena**

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra zerbitzuaren xedea den zerbitzua ematen hasten denetik sortzen da, hau da, jardueran izena emateko edo parte hartzeko eskabidea egiten denetik.

#### **4. artikulua. Zenbatekoa eta ordaintzeko obligazioa**

Prezio publikoaren zenbatekoa I. eranskinean ezarritakoa izango da.

#### **5. artikulua. Kobrantza**

a) Prezio publikoaren ordainketa kuota bakarrean egingo da, ekainaren 15tik 30era bitarte.

b) Ordainketa guztiak banketxearen bidez helbideratuko dira.

c) Prezioa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua ematen ez bada edo garatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

d) Izenematea deuseztatzeko eskaera egin daiteke ondorengo arrazoiengatik, baina edozein dela ere arrazoa, prezio publikoaren %20a ez da itzuliko:

\* Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, udalekuetan parte hartu ezin duela argudiatuz.

\* Ez-ohiko egoera pertsonalean, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.



e) Partehartzaileak udalekuak hasi aurretik eskatu beharko du ordainketak bertan behera uzteko edo kuota itzultzeko. Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak udalekuetako egun batera ere ez dela joan ziurtatzen bada.

f) Prezio publikoen ondoriozko zorrak premiamendu- prozeduraren bidez eskatuko dira.

## **6. artikulua. Prezio murrizketa**

### **6.1. Prezio murrizketa**

6.1.1. Familia ugarietarako %50ean murriztuko zaie prezio publikoa.

6.1.2. Familia gurasobakarretarako %50ean murriztuko zaie prezio publikoa.

6.1.3. Tolosako udalarekin zorrik ez badute eta Gizarte Zerbitzuen eta Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen onuradun badira, %80 murriztuko zaie prezio publikoa.

6.1.4. 42.900 euro baino txikiagoko ondarea dutenek 2. eranskinean azaltzen diren prezio publikoaren murrizketa izango dute. Horretarako bizikidetzaren unitateko kideen dirusarrerak hartuko dira kontuan eta ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduerak bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.

### **6.2. Prezio murrizketaren kudeaketa**

6.2.1. Familia ugariaren kasuan, izenemate epealdian familia ugariaren izaera duela ziurtatu beharko dute edo Tolosako udalari baimena emango dio Nisae elkarreragingarritasun nodoaren bidez egoera hori egiaztatzeko.

6.2.2. Familia gurasobakarren kasuan, eskaera egiten duenak Tolosako udaleko Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantzen 12. artikuluko baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

6.2.3. Gizarte Zerbitzuen eta Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen onuradun badira, egoera hori ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du edo Tolosako udalari baimena emango dio hori ziurtatu ahal izateko.

6.2.4. Egoera ekonomikoarengatik prezio murrizketa eskatu duten kasuetan, bizikidetzaren unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

6.2.5. 6.1. artikuluko murrizketak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentai handiena duen jeitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura gehien sortzen dion jeitsiera.

## **7. artikulua. Kudeaketa**

Ordenantza honetan arautzen den Prezio publiko hauek kitzatzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagozkion guztian, Zergen Foru-Arau Orokorrean aurrikusitakoa izango da aplikaziozkoa.

## **8. artikulua. Indarrean sartzea**

Prezio publikoa ezartzeko akordio hau indarrean jarriko da testu arautzaile hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

### I. ERANSKINA

EPEA	DURACIÓN	TA-RIFA
1 aste	1 semana	25 €
2 aste	2 semanas	45 €
3 aste	3 semanas	65 €
4 aste	4 semanas	85 €

### II. ERANSKINA

Bizikidetzaren unitateko kide kopurua	0-15.876 €	15.877-19.501 €	19.502-21.723 €	21.724-24.320 €
1 edo 2	80%	60%	50%	0%
3	90%	70%	60%	25%
4 edo gehiago	95%	90%	90%	60%

## KONTUAN HARTURIK

Tasa eta Prezio Publikoari buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru arauan honakoa xedatzen da:

*Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:*

- Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak
- Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onspena ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau **PROPOSATZEN DU:**

**LEHENA.-** Prezio publikoen 3.1.14 eranskina (Udalekuak) onartzea, goran azaltzen diren aplikazio arau eta eranskinekin.

**BIGARRENA.-** Ordenantza honetako aldaketak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, hasierako onarpena jaso ondoren aldaketa hauek jendurrean jarriko dira ikusgai, 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean, epe horretan interesdunek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizun guztiak.

Aldaketa hauek indarrean sartuko dira behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun baliouduneko epea igaro ondoren.”

Proposamena aztertu da eta 6.1.4 puntu argiago azaltzea erabaki da. Honela geratuko litzateke:

“2. eranskinean azaltzen diren prezio publikoen murrizketaz gozatu ahalko dute, 42.900 euro baino txikiagoko ondarea dutenek. Horretarako bizikidetzaren unitateko kideen dirusarrerak hartuko dira kontuan eta ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduerara bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.”

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko bozkak:** Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

**Abstentzioa:** Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Prezio publikoen 3.1.14 eranskina (Udalekuak) onartzea:

### 1. artikulua. Kontzeptua

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43.etik 50.era bitarteko artikuluetan ematen zaizkidan eskumenez baliatuz, Tolosako udal udalekuen zerbitzua emateagatiko prezio publikoa ezartzen du Udal honek.

### 2. artikulua. Ordaintzera behartuak

Udalekuetan izena ematen dutenak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

### 3. artikulua. Sortzapena

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra zerbitzuaren xedea den zerbitzua ematen hasten denetik sortzen da, hau da, jardueran izena emateko edo parte hartzeko eskabidea egiten denetik.

### 4. artikulua. Zenbatekoa eta ordaintzeko obligazioa

Prezio publikoaren zenbatekoa I. eranskinean ezarritakoa izango da.

## 5. artikulua. Kobrantza

- a) Prezio publikoaren ordainketa kuota bakarrean egingo da, ekainaren 15tik 30era bitarte.
- b) Ordainketa guztiak banketxearen bidez helbideratuko dira.
- c) Prezioa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua ematen ez bada edo garatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.
- d) Izenematea deuseztatzeko eskaera egin daiteke ondorengo arrazoiengatik, baina edozein dela ere arrazoia, prezio publikoaren %20a ez da itzuliko:

\* Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, udalekuetan parte hartu ezin duela argudiatuz.

\* Ez-ohiko egoera pertsonalean, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.

e) Partehartzaileak udalekuak hasi aurretik eskatu beharko du ordainketak bertan behera uzteko edo kuota itzultzeko. Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak udalekuetako egun batera ere ez dela joan ziurtatzen bada.

f) Prezio publikoen ondoriozko zorrak premiamendu- prozeduraren bidez eskatuko dira.

## 6. artikulua. Prezio murrizketa

### 6.1. Prezio murrizketa

6.1.1. Familia ugariari %50ean murriztuko zaie prezio publikoa.

6.1.2. Familia gurasobakarrei %50ean murriztuko zaie prezio publikoa.

6.1.3. Tolosako udalarekin zorrik ez badute eta Gizarte Zerbitzuen eta Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen onuradun badira, %80 murriztuko zaie prezio publikoa.

6.1.4. 2. eranskinean azaltzen diren prezio publikoen murrizketaz gozatu ahalko dute, 42.900 euro baino txikiagoko ondarea dutenek. Horretarako bizikidetzaren unitateko kideen dirusarrerak hartuko dira kontuan eta ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduerak gauzatzeko erabiltzen duen lokala.

### 6.2. Prezio murrizketaren kudeaketa

6.2.1. Familia ugariaren kasuan, izenemate epealdian familia ugariaren izaera duela ziurtatu beharko dute edo Tolosako udalari baimena emango dio Nisae elkarreragingarritasun nodoaren bidez egoera hori egiaztatzeko.

6.2.2. Familia gurasobakarren kasuan, eskaera egiten duenak Tolosako udaleko Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren 12. artikuluko baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

6.2.3. Gizarte Zerbitzuen eta Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen onuradun badira, egoera hori ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du edo Tolosako udalari baimena emango dio hori ziurtatu ahal izateko.

6.2.4. Egoera ekonomikoarengatik prezio murrizketa eskatu duten kasuetan, bizikidetzaren unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

6.2.5. 6.1. artikuluko murrizketak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentai handiena duen jeitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura gehien sortzen dion jeitsiera.

### 7. artikulua. Kudeaketa

Ordenantza honetan arautzen den Prezio publiko hauek kitatzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagozkion guztian, Zergen Foru-Arau Orokorrean aurrikusitakoa izango da aplikaziozkoa.

### 8. artikulua. Indarrean sartzea

Prezio publikoa ezartzeko akordio hau indarrean jarriko da testu arautzaile hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

## I. ERANSKINA

EPEA	DURACIÓN	TA-RIFA
1 aste	1 semana	25 €
2 aste	2 semanas	45 €
3 aste	3 semanas	65 €
4 aste	4 semanas	85 €

## II. ERANSKINA

Bizikidetza unitateko kide kopurua	0-15.876 €	15.877-19.501 €	19.502-21.723 €	21.724-24.320 €
1 edo 2	80%	60%	50%	0%
3	90%	70%	60%	25%
4 edo gehiago	95%	90%	90%	60%

**BIGARRENA.-** Ordenantza honetako aldaketak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.artikuluaren xedatutakoarekin bat etorruta, hasierako onarpena jaso ondoren aldaketa hauek jendaurrean jarriko dira ikusgai, 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean, epe horretan interesdunek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizun guztiak. Aldaketa hauek indarrean sartuko dira behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

**Abstentzioak:** Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu ditu udalekuen prezio publikoak.

**10. EBAZTEA ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALARI AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOA, ETA ORDENANTZA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

**IKUSIRIK**

LEHENA.- Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“**LEHENA.-** 2024ko urriaren 31ean, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketak onartu zituela. Besteak beste, ondorengo hobaria:

«Zergaren kuota osoari dagokion % 50eko hobaria, eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza erabilerako eraikinetan. Dena dela, obra horiek borondatez egin beharko dira. Alegia, obra horiek ez dira indarrean dagoen araudiak inposatutakoak izango. Hobari hauek ezarri ahal izateko, instalazioetan, beroa sortu ahal izateko kolektoreak jarri beharko dira. Kolektore horiek Administrazio eskudunak homologatu beharko ditu. Subjektu pasiboek dagozkien eskabideak egin ostean emango da hobaria eta sistema instalatzen denetik hasita 5 urtetan aplikatuko da.

Hobari honen eskaerarekin ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria.
- Eskatzaile bakoitzaren jabetzari dagokion inbertsioa.
- Instalatutako energia sistemaren homologazioa.”

**BIGARRENA.-** 2024ko azaroaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (215 zbkia) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketaren haserako onarpena argitaratu zen eta 30 egun abiletan jendaurrean jarri zen espedientea interesdunek espedientea aztertu eta egokitzat jo ditzaken erreklamazioak aurkezteko. Epea 2024ko abenduaren 20an amaitzen da.

**HIRUGARRENA.-** 2024ko azaroaren 13an, 14362 zenbakidun erregistroaren bidez, Frantzisko Xabier Mitxelena Iparragirrek erreklamazioa sartu zuen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantza fiskalaren aldaketari.

**LAUGARRENA.-** Erreklamazio honetan bi aldaketa proposatzen dituzte. Alde batetik, "argindarra" hitza sartu eta bestetik hobaria 5 urtetan aplikatzea eskabidea egiten denetik eta ez sistema instalatzen denetik:

«Zergaren kuota osoari dagokion % 50eko hobaria, eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza erabilerako eraikinetan. Dena dela, obra horiek borondatez egin beharko dira. Alegia, obra horiek ez dira indarrean dagoen araudiak inposatutakoak izango. Hobari hauek ezarri ahal izateko, instalazioetan, beroa EDO ARGINDARRA sortu ahal izateko kolektoreak jarri beharko dira. Kolektore horiek Administrazio eskudunak homologatu beharko ditu. Subjektu pasiboek dagozkien eskabideak egin ostean emango da hobaria eta ESKABIDEA EGITEN denetik hasita 5 urtetan aplikatuko da.

Hobari honen eskaerarekin ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria.
- Eskatzaile bakoitzaren jabetzari dagokion inbertsioa.
- Instalatutako energia sistemaren homologazioa."

## KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau **PROPOSATZEN DU:**

**LEHENA.-** Interesdunak aurkeztutako erreklamazioa onartzea, eta zerga-hobaria honela arauatzea:

«Zergaren kuota osoari dagokion % 50eko hobaria, eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza erabilerako eraikinetan. Dena dela, obra horiek borondatez egin beharko dira. Alegia, obra horiek ez dira indarrean dagoen araudiak inposatutakoak izango. Hobari hauek ezarri ahal izateko, instalazioetan, beroa EDO ARGINDARRA sortu ahal izateko kolektoreak jarri beharko dira. Kolektore horiek Administrazio eskudunak homologatu beharko ditu. Subjektu pasiboek dagozkien eskabideak egin ostean emango da hobaria eta ESKABIDEA EGITEN denetik hasita 5 urtetan aplikatuko da.

Hobari honen eskaerarekin ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria.
- Eskatzaile bakoitzaren jabetzari dagokion inbertsioa.
- Instalatutako energia sistemaren homologazioa.”

**BIGARRENA.-** Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin betikoz onartzea, abenduaren 20an amaitzen den jendaurreko epean beste alegaziorik aurkezten ez bada.

**HIRUGARRENA.-** Ordenantza fiskalaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian argitaratzea.”

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko bozkek:** Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

**Abstentzioa:** Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Interesdunak aurkeztutako erreklamazioa onartzea, eta zerga-hobaria honela arauatzea:

«Zergaren kuota osoari dagokion % 50eko hobaria, eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza erabilerako eraikinetan. Dena dela, obra horiek borondatez egin beharko dira. Alegia, obra horiek ez dira indarrean dagoen araudiak inposatutakoak izango. Hobari hauek ezarri ahal izateko, instalazioetan, beroa EDO ARGINDARRA sortu ahal izateko kolektoreak jarri beharko dira. Kolektore horiek Administrazio eskudunak homologatu beharko ditu. Subjektu pasiboek dagozkien eskabideak egin ostean emango da hobaria eta ESKABIDEA EGITEN denetik hasita 5 urtetan aplikatuko da.

Hobari honen eskaerarekin ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria.
- Eskatzaile bakoitzaren jabetzari dagokion inbertsioa.
- Instalatutako energia sistemaren homologazioa.”



**BIGARRENA.-** Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin betikoz onartzea, abenduaren 20an amaitzen den jendaurreko epean beste alegaziorik aurkezten ez bada.

**HIRUGARRENA.-** Ordenantza fiskalaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

**Abstentzioak:** Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du ondasun higiezinari buruzko zerga erregulatzen duen ordenantza fiskalari aurkeztutako erreklamazioa ebaztea, eta horren aldaketa behin betiko onartu du.

## **11. ONARTZEA IZFE SOZIETATEAREKIN EGINIKO HITZARMENAREN LUZAPENA.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

### **AURREKARIAK**

**LEHENA.-** Tolosako udalbatzak, 2021eko egindako osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

*“LEHENA.- Onartzea Tolosako udala eta IZFE, S.A.-Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen arteko Lankidetzeta-Hitzarmena, udalari zerbitzu informatikoak emateko xedea duena, ondoko klausulen arabera:*

**LEHENA.** Hitzarmenaren xedea.

*Lankidetzeta-hitzarmen honek IZFE SA sozietateak Tolosako Udalari egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea du helburu. Halaber, zerbitzuok egiteko era eta baldintzak zehaztuko dira .*

**BIGARRENA.** IZFE SA sozietatearen betebeharrak.

Oro har, IZFE SA sozietateak konpromisoa hartzen du, egindako informatika-zerbitzuei dagokienez, Tolosako Udalak eskatzen dizkion informatika, mantentze eta kudeaketako arazoetan aholkularitza, sostengua eta laguntza emateko.

Halaber, zerbitzu informatikoen ezarpena bermatuko du Tolosako Udaleko antolamenduaren egiturako maila guztietan, honen ezaugarri eta behar zehatzen arabera, horretarako erakundeko langileei prestakuntza egokia eskaini beharko dielarik.

#### **HIRUGARRENA** .TolosakoUdalaren betebeharrak.

Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren informatika- zerbitzuak eman eta jasotzearen ondoriozko diru-ekarpenak hitzarmen markoaren II. Eranskinean zehazten den gastuak banatzeko sistemaren eta hitzarmen marko horretan azaltzen den jarraipen batzorde betearazleak proposatutako banaketa irizpideen arabera egiteko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalekin informatikako lankidetzaren proiektuaren kostuaren %100eko ekarpena mantenduz.

Baita ere, ezarrita dauden edo ezarri nahi diren informatika zerbitzuak eta produktuak garatu eta hobetzera zuzendutako jardunetan (informatika egiturak definitzea, irizpideak eta estandarrak finkatzea, aplikazio berriak definitu, garatu eta ezartzea...) eraginkortasunez laguntzeko eta parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

#### **LAUGARRENA**.- Informazio sistemen segurtasuna.

1. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko, IZFE SAK bete egingo ditu informazio sistemen segurtasunari dagokionez arlo hauetan indarrean dagoen arauditik eratorritako betebeharrak guztiak: administrazio elektronikoa eta identifikazio sistemak; izaera pertsonaleko datuen babesa; eta jabetza intelektualaren babesa softwarearen erabileran eta garapenean.

2.IZFE SAK beharrezko neurriak hartuko ditu, neurri teknikoak zein antolaketa mailakoak, informazioaren eta zerbitzuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatu edo eskuratzea saihesteko. Horretarako, une bakoitzean dauden bitarteko tekniko egokienak eta antolakuntzazko bitarteko onenak erabiliko ditu, horien gainean izan daitezkeen arriskuak kontuan hartuta.

3.Izaera pertsonaleko datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoari jarraituz, Tolosako Udala izango da tratamenduen arduraduna, eta IZFE SA, berriz, tratamendu eragilea izango da.

IZFE SAK berak gordetzen duen informazioa soilik tratatuko du, udal edo toki erakundeak formalki izendatutako tratamendu arduradunengandik jasotzen dituen jarraibideei jarraituz, eta inoiz ez du aplikatuko edo erabiliko hemen aurreikusitakoa ez den beste helburuetarako.

IZFE SAK, informazioak eta zerbitzuak jasotzeko unean, ez du horien osotasun eta segurtasuna babesteko beharrezko neurriak betetzen ez dituen sistema informatikorik erabiliko. Gauza bera informazio eta zerbitzuak gordetzen edo tratatzen diren lokal, ekipa, sistema eta programei dagokienez ere.

4.Informazio eta zerbitzuen tratamenduko edozein fasetan parte hartzen duten IZFE SAREN langileek eta udaletako eta gainerako toki erakundeetako zerbitzuek indarrean dauden segurtasun neurriak eta sekretu profesionala mantendu behar dituzte horiei dagokienez, eta

gorde egin behar dituzte; eta betekizun hauek indarrean jarraituko dute, hala egokituz gero baita IZFE SAREkiko harremanak amaitu ondoren ere.

IZFE SAK obligazio honen berri emango die bere langileei, izan ditzaketen erantzukizunak aditzera emanez. Eta obligazio hau bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

Neurri horiek aplikatuko zaizkie, baita ere, tratamenduan parte har dezaketen hirugarrenen langileei; hortaz, hori jasota egongo da dagozkien zerbitzu prestaziorako akordioetan.

5. Tolosako Udalaren informazioa, tratamenduaren xede izango dena, hirugarren pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu bati komunikatzeko, ezinbestekoa izango da informazioaren edo tratamenduaren ardura duen pertsonaren baimena.

6. IZFE SAREN sistema informatikoetan gordetako Tolosako Udalaren zerbitzu eta informazioek legedi aplikagarrian zehaztutako baldintzen arabera segurtasun neurriak izan beharko dituzte. Beraz, aintzat hartu beharko dira hurrenak:

a) Gutxienez, administrazio elektronikoen arloan informazioari eta zerbitzuei esleitutako mailari dagozkionak, kontuan hartuta Segurtasun Eskema Nazionalari buruzko 3/2010 Errege Dekretua.

b) Teknikaren egoera, aplikazio kostuak eta tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak kontuan hartuta, izaera pertsonaleko datuen tratamenduari lotutako pertsonen eskubideei eta askatasunei dagokienez egon daitezkeen arriskuen azterketatik ondorioztatzen diren neurriak, izan teknikoak, izan antolakuntzakoak, arriskuaren arabera segurtasun maila bermatzeko xedez.

7. Zerbitzua zuzen ematen dela eta informazio sistemen segurtasuna egoki kudeatzen dela bermatzeko, IZFE SAK garatuta, onartuta eta ezarrita du Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema bat, ISO 27001 arauaren arabera ikuskatu eta ziurtatua.

**BOSGARRENA.** Emango diren oinarrizko zerbitzuak.

IZFE SAK Tolosako Udalarik eskaintzen dizkion informatika zerbitzuen artean, oinarrizkotzat jotzen dira, eta haien mantentze eta hobetze lanek lehentasuna izango dute beste edozein proiekturen gainetik, gutxienez honako hauek:

1. Informatika, teknologia eta telekomunikazio azpiegiturekin lotutako zerbitzuak.
2. Hauekin lotutako proiektuak zuzentzea: IKT komunak, azpiegitura teknologikoak, informazio sistemak, soluzio informatikoak nahiz aplikazioak.
3. Soluzio informatikoak aztertu, garatu, integratu, ezarri eta mantentzeko zerbitzuak.
4. Lizentziak, aplikazioak eta soluzio informatikoak erosi eta kudeatzea udalen proiektu orokorraren premiei erantzuteko. Zerbitzu honen barruan sartuko da, dagokionean, soluzioaren integrazioa eta egokitzapena.
5. Laguntza teknikoa erabiltzaileei.
6. Prestakuntza

Zerbitzu horien deskribapen xehatua hitzarmen honen I. eranskinean garatzen da, eta, horrekin batera, IZFE SA sozietatearen bidez Tolosako Udalarik eskaintzen zaizkion aplikazio eta sistema informatikoen zerrenda ere jasotzen da. Horiak mantentzeko eta hobetzeko lanek lehentasuna izango dute beste edozein proiekturen gainetik

**SEIGARRENA.** Beste zerbitzu batzuk.

Oinarrizko zerbitzuez gain, IZFE SAK zerbitzu informatikoen katalogo hau eskaini ahal izango dio Tolosako Udalari:

- 1) Bideragarritasun azterketak.
- 2) Tratamendu informatikoa izan dezaketen proiektuak definitzen laguntzea.
- 3) Konponbide informatikoak aplikatu aurreko antolaketa azterketak egitea.
- 4) Aplikazioak edo merkatuko soluzio informatikoak eskuratzeko aholkularitza, behar espezifikoerantzuteko.
- 5) Aholkularitza informatiko eta teknologikoko zerbitzuak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko plan estrategiko korporatiboak definitu, ezarri eta gauzatzeko, nahiz horien inguruko aholkularitza ematea
- 6) IKT proiektuen, azpiegitura teknologikoen, informazio sistemen, soluzio informatikoen eta aplikazio espezifikoerantzuteko zuzendaritza.
- 7) Udalarentzako berariazko softwarea garatzeko zerbitzuak.
- 8) Azpiegitura zerbitzuak IZFE SAren hodei pribatuan.
- 9) Toki erakundearen sareari dagozkion elementuak -zerbitzari eta routerrak- konfiguratzeko laguntzea, bai eta lanpostuari dagozkionak ere.
- 10) Erakunde eskatzailearen beharretara egokitutako prestakuntza programak, IZFE SAren egoitzetan edo erakundearen beraren egoitzetan.
- 11) Beste zerbitzu batzuk: IZFE SA sozietatearen xedearekin zerikusia duen beste edozein zerbitzu

**ZAZPIGARRENA.** Prestakuntza.

IZFE SAK Foru Elkarteak berak garatutako aplikazio informatikoei buruzko prestakuntza ikastaroak antolatu eta emango ditu, batez ere, Tolosako Udaleko langileen aldetik tresna informatikoen erabilera zuzena ziurtatzearren, betiere, hitzarmen markoko hamabosgarren klausulan hitzartutakoari loturik.

Prestakuntzaren arloko helburuak finkatzeko, irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan:

- Urteko prestakuntza egutegiak egoteko ahalegina egingo da. Egutegi horiek erabiltzaile guztiei jakinaraziko zaizkie, komenigarritzat jotzen den moduan, eta IZFE SA enpresak Interneten dituen foroetan ere sartuko dira.

- Ahaleginak egingo dira prestakuntzak maila aurreratuak izan ditzan, bai bulegotika aplikazioetan, bai IZFEren aplikazioetan.

- Aplikazio bakoitzeko eskuliburuak egingo dira, argiak eta ondo egituratuak, erabiltzaileei laguntzeko.

**ZORTZIGARRENA.** Udal-solaskideak.

Hitzartutako alderdien artean beharrezko komunikazioa mantentzearren, Tolosako Udalak ordezkari bat izendatuko du IZFE SA sozietatearekiko solaskide gisa, egindako edo egingo diren zerbitzuekin zerikusia duten eta toki-erakundearen eragina izan dezaketen gai edo gorabehera guztiak koordinatzeko.

**BEDERETZIGARRENA** . Fakturazioa.

Hitzarmen honen xede diren zerbitzu informatikoak emateagatiko fakturazioa, bai oinarrizko zerbitzuak, bai beste zerbitzu batzuk, hiru hilean behin egingo da, arau orokor gisa, eta honako kontzeptu hauek jaso beharko ditu.

1. Oinarrizko zerbitzuak, honako hauek barne:

Lankidetzaren proiektuaren gastuen derramari dagokion parte, lankidetzaren proiektuaren oinarrizko zerbitzuen urteko Adenda-Derrama II. berariazko hitzarmen honen eranskinean ezarritako gastuen arabera.

2.- Beste zerbitzu batzuk (hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritakoak).

Tolosako Udalak eskatutako zerbitzuak, baldin eta horien kostua ez badago jasota Udalaren lankidetzaren proiektuaren urteko kostuan – Oinarrizko zerbitzuak–, Tolosako Udalak onartutako eskaintza espezifikoa jasotzen den moduan eta prezioan fakturatuko dira.

Tolosako Udalak hitzarmen honen arabera bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak finantzatzeko kredituak (lankidetzaren proiektuaren oinarrizko zerbitzuen urteko Adenda-Derrama II. eranskinean) adierazitako zenbatekoak dira, eta bertan adierazitako aurrekontu partidetan daude kontsignatuta.

**HAMARGARRENA**. Eztabaidak konpontzea.

Hitzarmen honen kudeaketa, jarraipena eta kontrola egiteko, hitzarmen markoaren bederetzigarren klausulan ezarritako jarraipen batzordeari aurkeztuko zaizkio, argitu eta ebatzi ditzan.

**HAMAIKAGARRENA**. Hitzarmena berrikustea.

Hitzarmen honen testua aldatu ahal izango da, alderdietako edozeinek eskatuta, hitzarmenaren xedea eta haren ondoriozko jarduerak hobeto gauzatzeko beharrezkoa denean.

Hitzarmenaren klausulak berrikusten badira, dagozkion aldaketak bertan sartu beharko dira, alderdiek izenpetuko duten gehigarri baten bidez.

Era berean, eranskin prozedura horren bidez, alderdiek eranskinak eranstea edo aldatzea erabaki ahal izango dute, bai hitzarmen honetan zehaztutako zerbitzu informatikoak hobetzeko, handitzeko edo eguneratzeko, bai gastuak banatzeko sistema aldatzeko, baina horrek ez du ekarriko hitzarmen honetako klausulak berrikustea.

**HAMABIGARRENA**. Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Atariko Tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera arautuko da. Halaber, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen da, bere 6.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**HAMAHIRUGARRENA.** Indarrean sartzea eta indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, 2021ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen, edozein momentutan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena gehienez beste lau urtetarako luzatzea edo iraungitzea.

**HAMALAU GARRENA**

Hitzarmen hau azkenduko da bere xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoiak gertatzeagatik.

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 51.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.

b) Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.

c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.

Halakoetan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen alderdiari, epe jakin baten barruan bete ditzan betegabetzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala.

e) Aurrekoak ez diren bestelako arrazoiak, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitakoak.

Nolanahi ere, salaketa jakinarazi den momentuan hasita dauden jarduerak bukatzeko konpromisoa hartzen dute bi alderdiek.

Hitzarmena suntsiarazteak ez du ekarriko hitzarmen honen hirugarren klausulan aurreikusitako egindako kontribuzio ekonomikoa itzultzea, jada gauzatu bada, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango.

**HAMABOS GARRENA.** Jurisdikzio eskuduna

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegiei dagokie hitzarmen hau aplikatu eta garatzearen ondorio diren auziez arduratzeko eskumena.

**BIGARRENA.-** Onartzea hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izatea, 2021ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen, edozein momentutan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena gehienez beste lau urtetarako luzatzea edo iraungitzea.

**HIRUGARRENA.-** *Onartzea hitzarmen honen ondoriozko gastua 2021eko ekitaldirako, eta honako aurrekontu-partida hauei egozte:*

0300.222.05.920.30 2021 AD-1224/2021 1.781,68

0300.227.01.920.30 2021 AD-1222 eta 1223/2021 130.694,48

*2022-2024 ekitaldietarako, gastuaren baimena baldintzatuta geratuko da gastua baimentzen den ekitaldiko aurrekontuan nahiko kreditua izatera, dagokion aurrekontu partidan*

**LAUGARRENA.-** *Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena eta eranskinak, eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpe ditzala.*

**BOSTGARRENA.-** *Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea.*

**SEIGARRENA.-** *Erabaki hauek IZFE, S.A.-Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteari jakinaraztea.”*

**BIGARRENA.-** IZFE foru-sozietatearen ordezkariak 2021ean sinatutako hitzarmena lau urtez luzatzeko konpromisoa jasotzen duen hitzarmenaren ale bat helarazi dio udal honetako alkatetzari, SINATZEKE aplikazio informatikoaren bidez. Udal honetako Sarrera Erregistro Orokorrean inolako idazkirik jaso ez denez, espedientea modu anomaloan hasi da.

Beraz, Tolosako Udalaren eta IZFE foru-sozietatearen artean sinatutako lankidetzahitzarmenaren luzapena xedea duan espedientea izapidetu eta ebatzi behar da, Informatika Zerbitzuen Foru Sozietateak beste lau urtez zerbitzu informatikoak eman diezazkion udal honi.

## **AZTERKETA JURIDIKOA**

**LEHENA.-** Idazkari honek 2021eko abuztuaren 17an egindako txostenaren terminoak (2021IHTP0007 espedientean jasotakoak) berresten ditu, honela laburbilduta:

- Agertutako alderdiek gaitasun juridiko nahikoa dute luzapen-dokumentua sinatzeko.
- Kontratuaren xedea Tolosako Udalari laguntza informatikoa ematea da, eta Udal honen eskumen-eremuaren eta zerbitzuak ematen dituen sozietatearen xedearen barruan dago.
- Lankidetzaren publiko horizontalari dagokionez, Udal Idazkari honek honako hau idatzi zuen aipatu den txostenean:

“Hitzarmenak, sektore publikoko bi erakundeen arteko lankidetzaren xedatzen du, bakoitzaren eskumenekoak diren prestazioak burutzeko. Lankidetzaren mota hau *-lankidetzaren horizontala-* arautzen du 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 31.

artikuluan: **31. artikulua. Auto-antolaketarako ahalmena eta lankidetzaren publiko bertikal eta horizontaleko sistemak.**

1. *Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu hauetakoren batean, lankidetzaren horren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe:*

a) *Lankidetzaren bertikaleko sistemen bitartez, .....*

b) **Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzaren horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 6. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin.**

.....

Kasu honetan, IZFE, S.A., Gipuzkoako Foru Aldundiko sozietate publiko instrumentalak hitzarmenaren Eranskinean xedaturiko zerbitzu informatikoak eskainiko eta fakturatuko dizkio udalari, eta Tolosako udalak emandako zerbitzuengatik fakturak ordainduko dizkio.

Bestaldek, hitzarmen honek betetzen ditu 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 6. 1 artikuluan xedaturikoa:

1. *Lege honen eremutik kanpo geratzen dira lege honetan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian sartzen ez den edukia duten hitzarmenak, honako hauek elkarren artean egindakoak badira: Estatuko Administrazio Orokorra, ..... tokientitateak, haien mendekoak diren nortasun juridiko publikoko erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak, baldin eta, azken kasu horretan, botere adjudikatzailearen izaera badute.*

*Hitzarmen horiek kanpoan geratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:*

a) *Esku hartzen duten erakundeek ez dute merkatu-bokaziorik izango. Merkatu irekian lankidetzaren jardueren ehuneko 20 edo gehiago egiten dituztenean uste izango da halako bokazio bat dagoela. Ehuneko hori kalkulatzeko, aintzat hartuko da guztizko negozio-bolumenaren batezbestekoa edo jardueraren beste adierazle egokiren bat; esate baterako, kontratuaren adjudikazioaren aurretiko hiru ekitaldietan hitzarmenaren xedea den prestazioa dela-eta jasandako gastuak. Jardueraren sorrera-data edo hasiera-data dela-eta edo jarduerak berrantolatu direla-eta ez badago eskura aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumena edo jardueraren beste adierazle egokirik-gastuak, esate baterako-, edo horiek indarra galdu badute, nahikoa izango da jardueraren mailaren kalkulua errealitatearekin bat datorrela erakustea, negozio-proiektzioen bitartez bereziki.*

b) *Hitzarmenak erakunde parte-hartzaileen arteko lankidetzaren bat ezartzea edo garatzea, bermatze aldera dagozkien zerbitzu publikoak halako moduz ematen direla non amankomunean dituzten helburuak lortuko baitira.*

c) *Lankidetzaren garapenerako gida bakarra interes publikoarekin lotutako alderdiak izatea.*

Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak, 2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, bestek beste, IZFE S.A.ri egingo zaizkion enkarguen baldintza orokorrak onartu zituen, 9/2017 Legeari,



Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenari, egokituz. Ebazpen horretan berretsi zen sozietate horren izaera juridikoa, bitarteko propio pertsonifikatu gisa.

Hitzarmenaren xedea aztertu denean, zerbitzu publikoak eta helburu amankomunak aipatu dira.

Hitzarmenaren interes publikoari dagokionez, aurrekarietan aipatzen den moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen arteko *“lankidetzaz hori lurralde historikoko udalei beren helburuak lortzen laguntzeko aipaturiko eskumenean oinarritzen da, eta interes publiko ukazina du, ez bakarrik udal administrazioaren esparruan informazioaren eta komunikazioen teknologien berezko tresnen erabilera garatzen delako, eta, horrela, udal zerbitzu publikoen eraginkortasuna handitzen delako, baita tresna horiek udalerrien artean eta foru sistema informatikoekin erabiltzeko aukera ematen duelako ere; horrela, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea errazten da, eta, aldi berean, foru kudeaketa hobetzen da Foru Aldundiaren eta udalen esparruen eskumenak elkarri lotuta dauden arloetan.”*

Botere esleitzailen arteko lankidetzaz horizontalari dagokionez, Europako Legebiltzarreko eta Kontseiluko 2014/24/EB Zuzentarauak, otsailaren 26koak, Kontratazio Publikoari buruzkoak, honako aipamen eta xedapenak jasotzen ditu:

- Kontuan hartzeko ataletan:
  - *(31)....El hecho de que las dos partes de un acuerdo sean poderes públicos no excluye por sí mismo la aplicación de las normas de contratación. No obstante, la aplicación de las normas de contratación pública no debe interferir con la libertad de los poderes públicos para ejercer las funciones de servicio público que le han sido conferidas utilizando sus propios recursos, lo cual incluye la posibilidad de cooperación con otros poderes públicos.*
  - *Es preciso asegurar que la cooperación entre entidades públicas exentas no acabe falseando la competencia con respecto a los operadores económicos privados, hasta el punto de situar a un proveedor de servicios privado en una posición de ventaja respecto de sus competidores.*
  - *(32) Los contratos públicos adjudicados a personas jurídicas controladas no deben estar sometidos a la aplicación de los procedimientos previstos en la presente Directiva si el poder adjudicador ejerce sobre la persona jurídica de que se trate un control análogo al que ejerce sobre sus propios servicios, siempre que la persona jurídica controlada dedique más del 80 % de sus actividades al ejercicio de funciones que le hayan sido asignadas por el poder adjudicador que la controla o por otras personas jurídicas controladas por dicho poder adjudicador, independientemente de quién sea el beneficiario de la ejecución del contrato.*
  
- Xedapenetan:

- 12.4: *Un contrato celebrado exclusivamente entre dos o más poderes adjudicadores quedará fuera del ámbito de aplicación de la presente Directiva, cuando se cumplan todas y cada una de las condiciones siguientes:*
  - a) *que el contrato establezca o desarrolle una cooperación entre los poderes adjudicadores participantes con la finalidad de garantizar que los servicios públicos que les incumben se prestan de modo que se logren los objetivos que tienen en común;*
  - b) *que el desarrollo de dicha cooperación se guíe únicamente por consideraciones relacionadas con el interés público, y*
  - c) *que los poderes adjudicadores participantes realicen en el mercado abierto menos del 20 % de las actividades objeto de la cooperación.*
- .....

Europako Justizia Auzitegiak modu ezberdinean interpretatu ditu xedapen hauek. Hemen bi adibide:

- C-96/18 auzia: Berlingo *Land*-ek eta Coloniako udalak hitzarmen bat sinatu zuten. Honen bitartez, udalak doan eskuratu zuen suteei aurre egiteko programa informatiko bat, eta programa horren eguneratzeak Berlingo *Landaren* eskura jartzeko konpromisoa hartu zuen. Informatika enpresa batek helegitea tartekatu zuen hitzarmenaren aurka, eta Europako Auzitegiak izenpeturiko hitzarmenaren aldeko epaia eman zuen 2020ko maiatzaren 28an:
  - **1) La [Directiva 2014/24/UE](#) (...) debe interpretarse en el sentido de que un acuerdo que, por una parte, establece que un poder adjudicador cede gratuitamente un software a otro poder adjudicador y, por otra parte, se vincula con un acuerdo de cooperación en virtud del cual cada una de las partes de este último se obliga a ceder gratuitamente a la otra los futuros desarrollos del software que pudiera implementar **constituye un «contrato público», en el sentido del artículo 2, apartado 1, punto 5, de esta Directiva, cuando tanto de los términos de los referidos acuerdos como de la normativa nacional aplicable resulte que dicho software será, en principio, objeto de adaptaciones.****
  - **2) El artículo 12, apartado 4, de la Directiva 2014/24 debe interpretarse en el sentido de que una cooperación entre poderes adjudicadores puede quedar excluida del ámbito de aplicación de las normas de contratación pública previstas en esta Directiva cuando tal cooperación recaiga sobre actividades de apoyo a los servicios públicos que han de prestar, incluso de forma individual, cada uno de los socios de esa cooperación, siempre y cuando tales actividades de apoyo contribuyan a la realización efectiva de los referidos servicios públicos.**
  - **3) El artículo 12, apartado 4, de la Directiva 2014/24, en relación con el considerando 33 y el artículo 18, apartado 1, de la misma, debe interpretarse en el sentido de que una cooperación entre poderes adjudicadores no debe**

*tener el efecto, de conformidad con el principio de igualdad de trato, de favorecer a una empresa privada respecto a sus competidores.*

- Aldiz, C-429/19 auzia: Alemanian, hainbat erakunde publikok partzuergo bat sortu dute, hondakinak balorizatzeko eta ezabatzeko. Agindutako zereginetako bat egiteko baliabide egokirik ez duenez, hitzarmen bat sinatu du beste erakunde publiko batekin, horren ardura har dezan, eragiketa horrek sortzen dizkion gastuengatik ordainsariaren truke. Hitzarmen horren aurrean, enpresa pribatu batek dagozkion baliabideak jartzen ditu, kasu honetan lankidetzaz ez dela existitzen eta egoera hori kontratu publikotzat hartu behar dela eta, ondorioz, lizitazioaren xede izan behar duela iritzita. Auzitegiak helegitea onartzen du:
  - *...En consecuencia, el convenio controvertido en el litigio principal **parece tener únicamente por objeto la adquisición de una prestación mediante el abono de una retribución. En estas circunstancias, y sin perjuicio de la verificación por parte del órgano jurisdiccional remitente, el contrato público en cuestión en el litigio principal no se vería afectado por la exclusión prevista en el artículo 12, apartado 4, de la Directiva 2014/24.***
  - *El artículo 12, apartado 4, letra a), de la Directiva 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero de 2014, sobre contratación pública y por la que se deroga la Directiva 2004/18/CE, debe interpretarse en el sentido de que no cabe considerar que exista una cooperación entre poderes adjudicadores cuando un poder adjudicador, responsable en su territorio de una misión de interés público, no lleva a cabo íntegramente él mismo tal misión que le incumbe en exclusiva en virtud del Derecho nacional y que requiere la realización de varias operaciones, sino que encarga a otro poder adjudicador, que no depende de él y que es también responsable de esa misión de interés público en su propio territorio, que efectúe alguna de las operaciones requeridas a cambio de una retribución.*

Egoera honen aurrean, eta Idazkari honen iritziz, askoz ere zentzuzkoagoa litzateke lankidetzaz bertikaleko formula bat proposatzea – aldeaz aurretik IZFERen kapitalean udalak parte hartzea eskatuko luke –, lankidetzaz hitzarmenaren segurtasun juridikoa bermatzeko eta informatikaz zerbitzuen sozietatean parte-hartze eraginkorra eta udal-interesen ordezkartza hobea lortzeko.

Argitu beharra dago, lankidetzaz hitzarmen baten aurrean gaudenez, Udalak ordaindu beharreko kontraprestazioa ezin dela prezioztat hartu, ezta jasotako zerbitzuen kostu hutsa baino handiagoa izan ere, bestelako kasuan benetako kontratu baten aurrean egongo ginatekeelako.”

Aipatutako jurisprudentiaren bilakaera ikusita, idazkari honek berretsi egiten du IZFERen konfigurazioa eta funtzionamendua aldatu behar direla, sektore publikoko kontratuen legerian botere esleitzailen baliabide propioei buruz ezarritako baldintzak betetzeko. Horretarako, udalerrri mailako tokiko erakundeek parte hartu beharko lukete, beren

zerbitzuak berezko bitarteko gisa ematen baitizkiete, bai kapitalean, bai erabaki-organoetan, ohiz kanpoko egoerak saihestuz.

- 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, bere 49.h) artikulua honako hau xedatzen du:

*h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:*

*1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.*

*2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea*

Lankidetzaren hitzarmenaren honen luzapena onartzeko eskumena Udaltza Plenoarena da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua xedaturikoaren arabera. Halaber, aipaturiko Legearen 47.2.h) artikuluan xedaturiko kontuan harturik, hitzarmenaren onespenez korporazioko kideen gehiengoaren aldeko botoa (gehiengo absolutua) behar du, udalari dagozkion funtzioak edo jarduerak sektore publikoko beste erakunde bati eskualdatzea baitakar.

Beraz, Idazkari honek honako ebazpen-proposamena aurkezten du:

## PROPOSAMENA

**LEHENA.- Onartzea lau urtez luzatzea** Tolosako udala eta IZFE, S.A.-Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen arteko Lankidetzaren Hitzarmena, udalari zerbitzu informatikoak emateko xedea duena.

**BIGARRENA.- Onartzea** luzapen hori 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera kontatzen hastea. Luzapen-epea amaitu baino lehen, edozein momentutan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena iraungitzea.

**HIRUGARRENA.-** Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmenaren luzapena izenpe dezala.

**LAUGARRENA.-** Hitzarmenaren luzapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea.

**BOSTGARRENA.-** Erabaki hauek IZFE, S.A.-Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du IZFE sozietatearekin eginiko hitzarmenaren luzapena.

## **12. HASIERAZ ONARTZEA TOLOSAKO HAUR ETA NERABEEN OPORRALDI GARAIKO AISIALDI-ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA.**

Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

### **IKUSIRIK**

**LEHENA.-** 2024ko urriaren 9an egindako probidentzia baten bidez espediente bat hastea xedatu zuela Tolosako Alkateak, ondorengo helburuarekin: *udaleku irekien zerbitzua kontratatzeko erregelamendua egitea.*

**BIGARRENA.-** 2024ko azaroaren 13an Gazteria Azpisaileko teknikariak dagokion proposamen teknikoa egin duela, ondorengoa adieraziz:

*“LEHENA.- Abian jartzea Tolosako udalerrian udako aisialdi eskaintza arautzeko ordenantzaren sortzeko espedientea: 2024IORD0003.*

*BIGARRENA.- Iragarkia jendaurrean jartzea 20 lanegunez, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita”.*

**HIRUGARRENA.-** 2024ko urriaren 25ean Gazteria Azpisaileko teknikariak dagokion txosten teknikoa egin duela, ondorengoa adieraziz:

*“Horiek horrela eta dauden aurrekariak kontuan hartuz Tolosako Gazteria azpisailetik Tolosako Udalekuak zerbitzua martxan jartzeko beharrezko araudia lantzeko beharra azaldu da”.*

**LAUGARRENA.-** 2024ko urriaren 21ean Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak dagokion txosten teknikoa egin duela, ondorengoa adieraziz:

*“LEHENA.- Erregelamendu proposameneko 12. artikulua egokitzea, eta era honetara uztea: «Aisialdi-eskaintzako erabilera-hizkuntza euskara izango da orokorrean, eta, hain justu ere, euskararen erabilera sustatzea izango du eskaintzak xede, betiere herritarrek aitortuak dituzten hizkuntza-eskubideei kalterik eragin gabe».*

*BIGARRENA.- Txosten honetan azaldutako irizpideei jarraikiz, horiek aintzat hartzea udaleku-zerbitzuaren lizitazio-prozeduran.*

*HIRUGARRENA.- Proposamenaren berri ematea Kultura, Festak eta Gazteria Sailari, dagozkion aldaketak egin ditzan”.*

**BOSGARRENA.-** 2024ko abenduaren 9an Berdintasuna Saileko zerbitzuburuak dagokion txosten teknikoa egin duela, ondorengo adieraziz:

*“Beraz, guk gure oporraldiko aisialdian hartutako neurriak helburu hori betetzera bideratuta egongo dira. Neurriak honakoak izango dira:*

- *Begiraleen kontratazioan parekidetasuna bermatzea*
- *Programazioa aukera berdintasunean oinarritua izatea. .*
- *Genero ikuspegia kontuan hartzen duten ekintzak sustatzea.*

*Genero diskriminazioak ez ematea ahalbidetzea*

## KONTUAN HARTURIK

Espediente honi dagokion txosten juridikoa igorri dela, eta honako hau dioela:

**LEHENA.-** Prozedura honetan ondorengo **araudia** da aplikatu beharrekoa:

1. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena (aurrerantzean 2/2016 Legea).
2. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen (aurrerantzean, 7/1985 Legea).
3. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean, 39/2015 Legea).
4. 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena (aurrerantzean 2/2024 Legea).
5. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (aurrerantzean 3/2018 Lege Organikoa).

**BIGARRENA.-** 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikuluan, udalerrien **eskumen propio gisa** aitortzen du honako hau:

*“24) Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea”.*

Halaber, 2/2024 Legearen 321. artikulua zehazten du gai hauetan Udalek dituzten eskumenak:

*“1.– Udalei dagokie eginkizun orokor hauek betetzea, beren eskumenerako lurralde-eremuan:*

*a) Erregelamenduak egiteko ahala egikaritzea, beren zerbitzuak antolatzeko.*

*b) Beren erantzukizunpean eman beharreko zerbitzuen plangintza egitea, egon daitekeen autonomia-erkidegoko eta lurraldeko plangintzarekin bat etorritik, hala badagokio.*

*c) Beren eskumenerako zerbitzuen prezio publikoak ezartzea.*

*d) Beren titulartasuneko zerbitzu eta zentroak ikuskatzea eta haiei dagokienez zehatzeko ahala egikaritzea; baita titulartasun pribatukoak dagokienez ere, baldin eta itunik, kontraturik edo hitzarmenik badute udal-eskumenerako zerbitzuak emateko.*

*e) Gizarte-ekimena sustatzea eta bultzatzea, baita herritarren parte-hartzea, asoziazionismoa eta boluntariora ere, bereziki pertsona adingabeena.*

*f) Lege honek eta lege hau garatzeko arauak eta jarduketaren eremu bakoitzean aplikatu beharreko sektore-araudiak esleitzen dizkieten beste eskumen orokor eta espezifiko guztiak”.*

**HIRUGARRENA.-** 2/2024 Legearen 7.1.a) artikulua dioenari jarraiki, Udalak izango duen esku-hartzeak ardatz izan behar du adingabeen ongizatea, nagusiki:

*“1.– Pertsona adingabeek beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzen dituztela bermatzeko, euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, honako jarduketaren ardatz hauen inguruan antolatu beharko dituzte esku-hartzeak:*

*a) Haurren eta nerabeen ongizatea, beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzea eta beren eginbeharrak beren gain hartzea sustatzea”.*

Izan ere, adingabeek jolaserako eta aisialdirako eskubidea dute, 2/2024 Legearen 35. artikulua dioen bezala:

*“1.– Pertsona adingabeek atsedenerako, jolaserako eta aisialdirako eskubidea dute, aisialdi hezigarria barne, ingurune irisgarri, seguru, osasungarri eta inklusiboetan hezteko, osorik garatzeko eta sozializatzeko funtsezko elementu gisa.*

*2.– Lege honen ondoretarako, aisialdi hezigarritzat hartzen da garapen integralari laguntzen dioten aisialdirako jardueren multzoa; jarduera horiek pertsona adingabeak parte hartzeko ohituretan, ingurumena errespetatzeko ohituretan edo konpromiso, elkartasun eta gizarte-inklusioko balioetan heziko dituzte, eta pertsona adingabeei*

*berdinen arteko harremanak eta gizarte-gaitasuneko trebetasunez jabetzen lagunduko diete”.*

**LAUGARRENA.-** Lege bereko 78. artikulua araberan, aisialdi-zerbitzuak dirauen bitartean, ondorengoak izango dira jarraitu beharreko jarduteko printzipioak:

*“Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, aisialdi hezigarriko jarduerak sustatzeko dituzten eskumenak egitarituz, printzipio hauen arabera jardungo dute:*

*a) Aisia-jardueren heziketa-educia indartuko dute, zeinen oinarria baita elkarrekiko errespetua, elkartasuna, ekitatea, tratua ona, indarkeriarik eza eta jasangarritasuna.*

*b) Jarduera horietan genero-berdintasuna sustatuko dute, pertsona adingabeen heziketa integrala eta errespetuzko ohiturak eta balio demokratikoak eskuratu ditzaten laguntze aldera.*

*c) Arduratuko dira bermatzeaz pertsona adingabe guztiek aukera berak dituztela jolaseko eta aisialdi hezigarriko jarduerak gauzatzeko eta nor bere gaitasun eta aisia-ohiturak garatzeko; horretarako, ekintzak antolatuko dituzte aisialdiarekin lotutako genero-desberdintasunak eta -estereotipoak desagerrarazteko.*

*d) Pertsona adingabeek aisialdi hezigarriko jarduerak egitea hezkuntza arautuarekin eta familia-bizitzarekin bateragarria dela zaintzea”.*

**BOSGARRENA.-** Erregelamendu honetan oinarrituz sortzen diren deialdietan aurkeztutako eskaera orrietan jasotako datu pertsonalak Udaleko Erregistroan gordeko dira, eta 3/2018 Lege Organikoa izango zaie aplikagarri, honen ondorioz dagozkien eskubide guztiak izango dituztelarik subjektuek.

**SEIGARRENA.-** 7/1985 Legeko 22.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeriak emandako eskumenak baliatuz, Udaleko Osoko Bilkurari dagokio erregelamenduak onartzeko eskumena:

*“2. Hauek dira, nolahi ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak:*

*d) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea”.*

Ondorioz, **Udaleko Osoko Bilkura** izango da Erregelamendua onartzeko organo eskuduna.

**ZAZPIGARRENA.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, ordenantza honen izapidetzeak pauso hauek izango ditu:

- Hasierako onespina, osoko bilkurari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesdunen entzunaldiko epea, 30 laneguneko, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezten.
- Aurkeztutako alegazioak ebatzi eta ordenantzaren behin betiko testua onartzea;



osoko bilkurari dagokio.

• Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat emango dute.,

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako udaleko Herritarrak Lan Esparruko Batzorde Informatiboak, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu zuen.

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Aitor Agirresarobe, Josune Sanz, Goiuri Ezeiza eta Aitzol Gartzia.

**Abstentzioak:** Iker Uson eta Leire Zubeldia.

Beraz, Herritarrak Lan Esparruko Batzorde Informatiboak gehiengoz onartu du honako

## IRIZPENA

**LEHENA.**- Tolosako haur eta nerabeen oporraldi garaiko aisialdi-zerbitzua arautzen duen Araudiari hasierako onespina ematea, honako testuaren arabera:

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. Arauaren xedea

*Programa honen helburua da Tolosako haur eta nerabeen udako oporraldi garaiko aisialdi-zerbitzua erregulatzea.*

### 2. Esparru subjektiboa/Zerbitzuaren onuradunak

1. Aisialdi-eskaintzan, urte horretan Tolosan erroldatutako 6 eta 14 urte bitarte betetzen dituzten haur eta nerabeek parte hartu ahal izango dute.

2. Aisialdi-eskaintza adin tarte hauen arabera banatuko da;

- a) 6 -10 urte bitarteko adin-tartea.
- b) 11- 14 urte bitarteko adin-tartea.

### 3. Arauaren hartzaileak

*Araudi hau udako oporraldietako aisialdi-eskaintzan parte hartuko duten 6-14 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago.*

## XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

### 1. Araudiaren helburu espezifikoak

*Honako hauek dira zerbitzuaren helburu espezifikoak:*

- a) *Haur eta nerabeekin aisialdi hezitzailea eta erakargarria antolatzea, bizi-esperientzia berriak eraikiz.*
- *Haur eta nerabeei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea. Eurek eraikitako aisia hezitzailea sustatzea.*
  - *Haur eta nerabeen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.*
  - *Haurrak eta nerabeak bere osotasunean garatzeko bitartekoa izatea.*
  - *Haurrak eta nerabeak ahalduntzea eta burujabe izaten ikastea. Autoestimua eta motibazioa lantzea.*
  - *Haurrek eta nerabeek askotariko jarduera fisiko eta kirol jarduerak probatzea eta ezagutzea.*
  - *Haur eta nerabe taldeetan gerta daitezkeen askotariko botere-harreman guztien arteko oreka bilatzea. Bereziki genero artekoak, heldu eta haurren artekoak eta taldearen eta inguru naturalaren artekoak.*
  - *Haurrak eta nerabeak askeagoak egiten dituzten balioekin jolastea; talde-lana, elkarlana, eskuzabaltasuna, errespetua, berdintasuna,...*
  - *Haurren eta nerabeen aniztasuna errespetatzea eta balore gisa lantzea.*
  - *Aisialdi-eskaintza euskaraz garatzea; euskararen erabilera soziala indartzea, bizipen positiboekin lotuz.*
  - *Partaideek herriaren eta bertako eragileen inguruan duten ezagutza areagotzea.*
  - *Tolosako eragileen partaidetza aisialdi-eskaintzan ahalbidetzea.*

## **2. Zaintza-zerbitzua**

*Aisialdi-eskaintza honen barruan zaintza-zerbitzua eskaini ahalko da, lana eta familia uztartzea izanik helburu. Zerbitzu hau aisialdi-eskaintza hasi aurretik eta aisialdi-eskaintzaren ondoren eman ahal izango da, sortzen diren beharretara egokituta. Izen-emate kanpainan zehaztuko dira zerbitzu honen baldintzak.*

## **3. Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

*1. Parte hartzeko eskabideak aisialdi-eskaintzari dagokion eredu ofizialean aurkeztu beharko dira aurrez aurre UDATEN, erregistro elektronikoko bidez edo Udalak bereziki ezarriko duen plataforma bidez.*

*2. Eskabideak aurkezteko epe zehatzak urteroko deialdian zehaztuko dira.*

## **4. Eskabideak eta erantsi beharreko agiriak betetzea.**

*Ondorengo hauek dira eskaera egiterako garaian aurkeztu beharreko agiriak:*

*a) Izen-emate orria, behar bezala beteta eta sinatuta. Eskaera bakoitzak zenbaki korrelatiboa izango du, eta eskatzaile bakoitzari kopia bat emango zaio, esleitutako*

zenbakiarekin.

b) Ordezkaritza agiria.

c) Dokumentuak ofizioz begiratzeari uko egiten badiote, desgaitasunaren zenbatekoa ziurtatzen duen agiria.

d) Osasun-arazoak dituzten haur eta nerabeen kasuan, euren beharreatatik kontuan izan beharreko egoerarik bada, Udaleko Gazteria zerbitzuarekin zuzenean kontaktatu beharko dute adin-txikien ordezkariak, euren beharrianak jakinarazteko.

## **5. Eskabideak zuzentzea edo hobetzea**

Kultura, Festak eta Gazteria Sailak, 39/2015 legearen 64. artikulua arabera jardungo du, interesdunak 10 eguneko epea izanik akatsak zuzentzeko, edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaeran atzeri egin duela ulertuko dela adieraziko zaio.

## **6. Aholkularitza**

1. Aisialdi-eskaintzari buruzko informazio guztia Tolosako Udalaren webgunean argitaratuko da.

2. Tolosako Udalaren Kultura, Festak eta Gazteria Sailak behar den aholkularitza emango du zerbitzu honi buruzko edozein zalantza edo kontsultaren aurrean, aurrez aurre, telefonoaren bidez edo posta elektroniko bidez.

## **7. Plazak esleitzea**

1. Plazak behin-behinean esleituko dira. Eskatzaile kopurua eskainitako plazena baino handiagoa bada, esleipenerako zozketa, zenbakiaren arabera egingo da (eskatzaile bakoitzari eskatzaileen behin betiko zerrenda osatutakoan esleitutako zenbakiaren arabera egingo da). Zozketaren eguna eta lekua behin-behineko zerrendarekin batera iragarriko dira. Ondoren, esleitutako plazen zerrenda Tolosako Udalaren webgunean eta iragarki taulan argitaratuko da. Emaitzak modu anonimizatuan argitaratu beharko dira, edo sarrera murriztua izan beharko dute, adin-txikien datu-babesa bermatzeko.

2. Aisialdi-eskaintzan eskainitako plaza guztien % 5a gutxienez, % 33ko desgaitasuna edo hortik gora eta/edo ofizialki aitortutako mendetasun-gradua duten adingabeentzat gordeko da.

3. Plazen esleipenak behin betikoak izango dira ordainketak formalizatzen direnean, deialdian ezarritako epean.

4. Ordainketa eta epeak Prezio Publikoen Ordenantzak arautuko ditu.

## **8. Itxaron-zerrenda**

Zozketa egin eta behin-behineko esleipena egin ondoren, plazarik lortu ez duten eskabideak itxaron-zerrendan sartuko dira, zozketaren hurrenkeraren arabera.

### **9. Kuota. Ordainketa**

*Tolosako Udaleko Osoko Bilkuran onartutako urteko prezio publikoen arabera izango da kopurua, eta hau deialdian zehaztuko da.*

### **10. Kuotak itzultzea**

*Prezio publikoak arautzen dituen Ordenantzak ezarriko ditu kuotak itzultzeko baldintzak.*

### **11. Udako aisialdi-eskaintzan parte hartzen dutenek bete beharreko arauak**

*Aisialdi-eskaintzan parte hartuko dutenek, deialdian jasotako elkarbizitza- eta lan-kidetzak arauak bete beharko dituzte. Arau hauek behin baino gehiagotan emango balira, pertsona hori zerbitzutik kanporatua izango da.*

### **12. Hizkuntza irizpideak**

*Kanpainen eskaintza Tolosako Udalaren hizkuntza irizpideen arabera egingo da.*

### **13. Berdintasun irizpideak**

*Kanpainen eskaintza Tolosako Udalaren berdintasun irizpideen arabera egingo da.*

### **14. Datuen kontsulta**

*Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua aitortzen du herritarrek eskubidea dutela edozein administrazio egindako dokumentuak ez aurkezteko. Hala, Tolosako Udalak zuzenean kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu dokumentu horiek bere datu-baseetan eta administrazio eskudunetan, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez (euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzako plataforma komuna, administrazioen artean datu elektronikoak trukatzeko nodo autonomiko gisa), baldintzak betetzen direla egiaztatze behar den informazioa, eta, bereziki, araudi honetako 4. puntuan adierazitako datuak egiaztatze. Hori horrela izango da, beti ere, interesdunak adostasuna adierazten badu dokumentu horiek Tolosako Udalak zuzenean kontsultatzeko edo ateratzeko. Zehazki, Tolosako Udalak NISAE bidez kontsultatu ahal izango dituen datuak ondorengoak izango dira:*

- a) *Parte-hartzailearen errolda.*
- b) *Hala izatekotan, parte-hartzailearen desgaitasun-mailaren ziurtagiria.*

### **15. Udalekuetako parte-hartzaileek bete beharreko arauak**

1. Udalekuak bizikidetzarako eta balioak ikasteko espazioak dira eta, horregatik, parte-hartzaileek bizikidetzara- eta lankidetzara-arau batzuen mende egon behar dute. Parte-hartzailearen batek behin eta berriz urratzen baditu, posible izango da zerbitzutik kanpo uztea.

2. Parte-hartzaileek honako arau hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- a) Jarduera guztietan parte hartzea.
- b) Norberaren higiena behar bezala zainduko da.
- c) Telefono mugikorra, musika-erreproduzigailuak (mp3, mp4, etab.), argazki-kamerak edo beste edozein gailu elektronikoa erabiltzea mugatuta egongo da, jardueraren garapenean eragozpenak saihesteko.
- d) Parte-hartzaileei beren etxeetara deitzeko aukera emango zaie, behar izanez gero.
- e) Gainerako parte-hartzaileak errespetatzea. Ez da onartuko arraza, erlijio, sexu-egoera eta/edo itxura fisikoagatik edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik beste lankideei eraso eta/edo min egin diezaiekeen adierazpenik edo jokabiderik.

3. Erakundea ez da arduratuko parte-hartzaileen objektu pertsonalak galtzeaz, hausteaz edo hondatzeaz.

### **16. Datuen babesa**

Deialdi honen xede diren informazioa eta datuak Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena) babesten dituzte.

**BIGARRENA.-** Araudi hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Argitaratzea erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Tolosako Udalaren webgunean eta Gardentasun Atarian.

**LAUGARRENA.**-Xedatzea informazio publikoko epean alegazio edo iradokizunik ez badago, Araudia behin betikoz onartutzat emango dela. Bestelako kasuan, udalbatzak dagokion erabakia hartu beharko du, alegazio edo iradokizunak aztertu eta ebatzi ondoren.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

**Abstentzioak:** Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, hasierako onarpena eman dio Tolosako haur eta nerabeen opporraldi garaiko aisialdi-zerbitzua arautzen duen erregelamenduari.

### **13. ONARTZEA HIZKUNTZA POLITIKAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN PROPOSAMENA.**

Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abenduaren 17ko irizpena.

### **IKUSIRIK**

LEHENA.- Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, Garbiñe Marzol Ormazabalek, 2024ko abuztuaren 19ko probidentzia baten bitartez, xedatu zuela espediente bat hastea, hizkuntza-politikako plan estrategiko berria egiteko.

BIGARRENA.- Udalak eskumena duela euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko. Hala xedatzen du 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7.2. artikuluan: «*Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena*». Horrekin lotuta, 2/2016 Legearen 17.26. artikulua berriaz aipatzen du planak egiteko eskumena: «*Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera*».

HIRUGARRENA.- Herritarren hizkuntza-eskubideak zein diren xedatzen duela 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normalizatzekoak, 5. artikuluan, eta erakundeei betebeharra ezartzen diela horiek bermatzeko. Horrekin lotuta, 10/1982 Legearen 26. artikulua finkatzen du erakundeek neurriak hartu behar dituztela euskara

sustatzeko: «*Euskal herri-aginteen neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko*».

LAUGARRENA.- Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari jarraikiz, neurriak hartu behar direla euskara sustatzeko. Europako Kontseiluak 1992an onartu zuen Gutuna, eta Espainiako Estatuak 1992an sinatu eta 2001ean berretsi zuen. Hau dago hartutako konpromisoen artean, 7.2. artikuluan: «*Aldeek konpromisoa hartu dute ezabatzeko, oraindik egin ez badute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketenak*». Horrekin lotuta, artikulua berak ohar bat egiten du sustapen-politikei buruz, alegia, euskara sustatzea ez dela hartuko hizkuntza hegemonikoaren diskriminaziotzat: «*Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzatzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada*».

BOSGARRENA.- Udalek autonomia dutela hizkuntza-politika bideratzeko, hala jasotzen baitu 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, printzipio gidarrietan, 5.3. artikuluan: «*Tokiko hizkuntza-autonomia: udalei autonomia aitortzen zaie euskararen erabilera sustatzeko eta dinamizatzeko, bai eta beren hizkuntza-normalizazio instituzionala eta soziala lortzeko prozesua diseinatzeko ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, dekretu hau eta aplikatzekoa den gainerako araudia ere betez*». Artikulu berak ezartzen du, hala ere, aintzat hartu behar direla irizpide orokorrak: «*Kontuan hartu behar dituzte autonomia-erkidegoko erakunde komunek ezarri dituzten irizpideak euskararen erabilera planifikatu eta arautzeko*».

SEIGARRENA.- Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2024ko urtarrilaren 30ean onartu zuela Aroa marko estrategikoa. Dokumentu hori gainerako erakundeen esku utzi du, nork bere errealitatearen arabera egokitu, eta dagozkion plan estrategikoak egiteko.

ZAZPIGARRENA.- Tolosako Udalak indarrean duela *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2022-2024*. Eusko Jaurlaritzak onartutako ESEP markoaren barruan egin zen plan hori, eta, izatez, beste plan batzuen segida izan zen: lehenik, 2000ko hamarkadan EBPN Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren arabera plan estrategikoak onartu ziren, eta 2010eko hamarkadan, ESEPen arabera. ESEP ordezkatu du Aroa marko berriak.

ZORTZIGARRENA.- Azken urteotan hizkuntza-politikan egindako bidearen ebaluazioa egin dela, plan berria prestatzeko oinarri modura. Zehazki, *Arloz arloko diagnostikoa* izeneko dokumentua prestatu du Euskara eta Hezkuntza Sailak, eta Euskararen Aholku Kontseiluan kontrastatu eta osatu da. Horrez gain, beste bi dokumentu ere landu dira: bat, bilakaera soziolinguistikoari buruzkoa, eta bestea, bilakaera demografikoari buruzkoa.

**BEDERATZIGARRENA.-** Hamar urterako plan estrategiko bat egitea izan dela helburua, eta, hori bideratzeko, herritarren eta eragileen iritziak jaso direla. Hori xedatzen du Tolosako Udaleko Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantzak, 23.2. artikuluan: «*Udalari dagokio parte hartzeko eskubidea bermatu eta bultzatzea eta erabaki politikoak har tzeko prozesuetan herritarren esku-hartzea erraztea. Horretarako, bide eta tresna nahikoak sustatu behar ditu, irekiak, malguak eta denboraren erabilerara egokituak, ahalik eta jende gehien eta askotarikoagoa parte hartu ahal izateko egokiak*». Xede horrekin, bi partaidetza-bide jorratu dira. Batetik, galdera ireki bat egin du Udalak («*Zer behar da Tolosan euskararen erabilera indartzeko?*»); 34 ekarpen jaso dira, eta txosten batean landu dira, espedientean jaso denez. Bestetik, talde-eztabaidak egin dira Emun aholkularitzaren bidez (kontratazio-espedientea: 2024SCME0001), eta emaitzak jaso dira espedientean. Bi prozesuetatik jasotako informazioa aintzat hartu da diseinuan.

**HAMARGARRENA.-** Planaren zirriborroa osatuta, Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin dela, aintzat hartuta zer xedatzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 20. artikuluan. Ebaluazioa egiteko oinarritzat hartu dira 2024/744 Alkatetza Dekretuak, 2024ko apirilaren 8koak, finkatutako jarraibideak. Ebaluazioa Euskara eta Hezkuntza Sailak egin du, eta Berdintasun Sailaren ekarpenak jaso ditu. Ebaluazioaren ondorioak aintzat hartu dira planaren behin betiko proposamena prestatzean, eta aintzat hartuko dira urtez urteko kudeaketa-planak prestatzean eta finkatutako ebaluazioak egitean ere.

**HAMAIKAGARRENA.-** Azken urteotan ahalegin handia egin dela hizkuntza-plangintzan ari diren eragileen eta Udalaren arteko lankidetzaren areagotzeko, elkarren lana osatzeko eta koordinazioa hobetzeko. Plan estrategiko berriaren helburua izan da lan-eredu hori hasieratik gorpuztea, eta, hala, planean jaso da udalerrian hizkuntza-politikan diharduten hiru aktore nagusien lana: Udalarena, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearena eta Galtzaundi Euskara Taldearena. Alde horretatik, eta *Aroa* markoan bertan finkatu den lan-ereduarekin lotuta, plan estrategikoa ez da soilik Udalarena: udalerri-izaera du.

**HAMABIGARRENA.-** Tolosako Udalak baduela tresna bat hizkuntza-politika eragileen lankidetzaz garatzeko: Tolosako Euskararen Aholku Kontseilua. Haren erregelamenduan jaso dago honako eginkizun hau, 3. artikuluan: «*Tolosako Udalari laguntzea euskarari buruzko plan estrategikoak diseinatzen eta garatzen*». Horrekin lotuta, plan estrategikoa prestatzeko prozesuan aldian-aldian eman da horren berri Aholku Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren bileretan. Planaren azken proposamena ere landu du Batzorde Iraunkorrak.



## KONTUAN HARTURIK

Txosten juridikoa igorri dela, eta honako hau dioela:

LEHENA.- Prozedura honetan ondorengo araudia da aplikatu beharrekoa:

1. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Arautzekoa (aurrerantzean 10/1982 Legea).
2. Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Europako Kontseiluak 1992ko azaroaren 5ean onartua (aurrerantzean Hizkuntzen Europako Gutuna).
3. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena (aurrerantzean 2/2016 Legea).
4. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (aurrerantzean 7/1985 Legea).
5. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (aurrerantzean 9/2017 Legea).
6. 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa (aurrerantzean 179/2019 Dekretua).
7. 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoari buruzkoa (aurrerantzean 3/2022 Legea).
8. 11/2022 Legea, abenduaren 1koa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa (aurrerantzean 11/2022 Legea).
9. 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko (aurrerantzean 19/2024 Dekretua).
10. 97/2023 Dekretua, ekainaren 27koa, erakunde publiko eta pribatuen jardura eta kudeaketan euskararen garapen maila ebaluatu, egiaztatu eta aitortzeko sistema arautzen duena (aurrerantzean 97/2023 Dekretua).

BIGARRENA.- 2/2016 Legeak bere 17. artikuluan udalerrien eskumen propio gisa aitortzen du honako hau:

*“1. Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:*

*26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera”.*

Bertako 7. artikulua Udalaren eskumenak zerrendatzen ditu euskararen erabilerari dagokionez, eskuartean dugun plan estrategikorako bereziki interesgarriak direlarik 2, 3 eta 5. puntuak:

“2.– Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

3.– Udalerriei dagokie, halaber, beren lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea eta, oro har, toponimoen eta leku geografikoen gaineko prozedura arautu eta haiek onartzea, horrek ezertan galarazi gabe Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10. artikuluan eta aplikatu beharrekoa den gainerako legerian ezarritakoa. Izen horien idazkeraz den bezainbatean, dagokion hizkuntzaren arau akademikoak errespetatuko dira, eta euskararen kasuan, Euskaltzaindiak ezarrita indarrean dauden hizkuntza-arauak.

5.– Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin”.

HIRUGARRENA.- Udala izango da hizkuntza ofizialak erabiltzeko hizkuntza-irizpideak onartzeko eskumena daukana, 7/1985 Legearen 4. artikuluari eta 2/2016 Legearen 10. artikuluari jarraiki. Hau bera aitortzen du 11/2022 Legearen 187. artikulua bere 2. eta 3. puntuetan:

“2. Euskal administrazio publikoek saiatu behar dute beren zerbitzuko langileek hizkuntza-gaikuntza egokia izan dezaten eta euskara erabil dezaten euren jardueraren eremuan, eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.

3. Horretarako, euskal administrazio publikoek, haien mendeko instituzio eta organismoek, Eusko Jaurlaritzak berariaz ezarritako irizpideei jarraituz, hizkuntza-plangintzarako tresnak onartuko dituzte, bakoitzak berea, eta bertan finkatuko dituzte plangintzaldi bakoitzerako lortu nahi diren helburuak, hartu behar diren neurriak eta jarri behar diren bideak”.

LAUGARRENA.- 19/2024 Dekretuak euskararen normalizazioa helburu bezala ezartzen du, helburu hau burutzeko moduetako bat plan estrategikoak izango direlarik, bere 5. artikulua dionari jarraiki:

“1. Euskararen normalizazioa helburu estrategikoa da, eta euskal sektore publikoko entitateek zeharkako politika publiko gisa kudeatuko dute, egiten dituzten jarduera guztietan eragina izango baitu.

2. Entitate bakoitzak, bere gobernu plana egiten duenean, eta plan horri lotutako helburuak eta ekintzak diseinatzen dituenean, eta baita horiek gauzatzeko diru

*partidak ezartzerakoan ere, ekintza horiek euskararen normalizazioan izan dezaketen eraginaren gaineko hausnarketa egingo du eta euskararen sustapenerako behar diren neurriak hartuko ditu.*

*3. Hizkuntza-plangintza egiteko, euskal sektore publikoko entitate bakoitzak honako hauek prestatu eta onartu beharko ditu:*

- a) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.*
- b) Plan estrategikoak.*
- c) Kudeaketa-planak.*

*4. Normalizazio-prozesua plangintzaldietan antolatuko da. Plangintzaldi bakoitzak bost urteko iraupena izango du”.*

BOSGARRENA.- 1992ko azaroaren 5ean, Europako Kontseiluak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna onartu zuen, hizkuntza gutxituak babestu eta sustatzeko.

Hizkuntzen Europako Gutuna gutxiengoaren hizkuntzak babesteko eta sustatzeko tresna nagusia da; hala ere, Gutunak berak bakarrik ez du bermatzen hizkuntzen babesa; sinatu ez ezik, estatu bakoitzak bere araudiaren bidez berretsi eta garatu behar du.

Gorte Nagusiek baimena eman ondoren, Konstituzioaren 94.1 artikulua araberak, Estatuak 1992ko otsailaren 2an sinatu zuen, eta 2001ean berretsi (2001-09-15eko BOE). Frantziaren kasuan, ordea, 1999an Gutuna sinatu bazuen ere, ez du inoiz berretsi. Beraz, Gutunak euskara babesten du EAEn, baita Nafarroako Foru Komunitatearen zati batean ere (eremu euskaldunean), baina ez Lapurdin, Zuberoan edo Nafarroa Behean.

Gutuneko 7. artikulua dioenez, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak indartzea du helburu, ez tratatuz hizkuntza gehiengodunetako hiztunak eta hizkuntza gutxituetakoak elkarren arteko gatazkan edo lehian dauden talde bezala:

*“Oraindik egin ez badute, alderdiek konpromisoa hartzen dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeari dagokionez justifikatu gabeko bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasun oro ezabatzeko, baldin eta helburua hizkuntza horren mantentzea edo garapena adoregabetzea edo arriskuan jartzea bada. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea, hizkuntza horietako hiztunen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna sustatzeko eta haien egoera bereziak kontuan hartzeko, ez da diskriminazio-ekintzat hartuko hizkuntza zabalduenetako hiztunekiko”.*

SEIGARRENA.- EAEko legediari dagokionez, 10/1982 Legea da oinarritzko legea dagokigun gaian. Legeko 5 eta 26. artikulua dira bereziki kontuan hartzekoak:

*“5. artikulua*

1. *Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, ahoz zein idatziz.*

2. *Euskal Herriko herritarrei oinarrizko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:*

- a) *Ahozko eta/edo idatzizko harremanak euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea*
- b) *Irakaskuntza bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea.*
- c) *Aldizkako argitalpenak, irrati- eta telebista-programazioak eta beste hedabide batzuetakoak euskaraz jasotzeko eskubidea.*
- d) *Lanbide-, lan-, politika- eta sindikatu-jarduerak euskaraz egiteko eskubidea.*
- e) *Edozein bileratan euskaraz hitz egiteko eskubidea.*

3. *Botere publikoek eskubide horien erabilera bermatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan, eraginkorrak eta errealak izan daitezen.*

#### 26. artikulua

*Euskal herri-aginteeek neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako arlo guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek hizkuntza horretan jardun ahal izan dezaten merkataritza-, kultura-, elkarte-, kirol-, erlijio- eta bestelako jardueretan”.*

Honi jarraiki, 2/2016 Legea eta hau garatzen duen 179/2019 Dekretua dauzkagu, euskara zerbitzu-hizkuntza eta erabilera normal eta orokorreko lan-hizkuntza izango direla ezartzen dutenak:

2/2016 Legearen 6.1 artikulua: *“Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala, eta, alde horretatik, erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da. Edonola ere, bermatu beharko da herritarrek benetan egikaritu ahal izatea toki-erakundeekin harremanak izateko orduan hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea eta, hortaz toki-erakundeek hizkuntza horretan artatzeko duten betebeharra, hartarako behar diren neurriak harturik.*

*Euskarari eta gaztelaniari aitortutako ofizialtasunaren arabera, bai euskara toki-erakundeen ekintzetan erabiltzea, bai gaztelania ekintza horietan erabiltzea, balio juridiko osokoak izango dira, betiere eragotzi gabe toki-erakundeek bermatu beharra daukatela, partikularrekiko harremanetan, horiek hautatu duten hizkuntza ofiziala erabiltzea”.*

179/2019 Dekretuaren 5.3. artikulua: *“3.– Tokiko hizkuntza-autonomia: udalei autonomia aitortzen zaie euskararen erabilera sustatzeko eta dinamizatzeko, bai eta*

*beren hizkuntza-normalizazio instituzionala eta soziala lortzeko prozesua diseinatzeko ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, dekretu hau eta aplikatzekoa den gainerako araudia ere betez. Horretan, kontuan hartu beharko dituzte autonomia-erkidegoko erakunde komunek ezarri dituzten irizpideak euskararen erabilera planifikatu eta arautzeko. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean udalei hizkuntzen kudeaketaren arloan aitortzen zaien autonomia oinarri hartuta, udalok hizkuntza-politika, ekintzak eta jarduna bideratuko dituzte, batetik, euskararen erabilera guztiz normalizatzerara eta, bestetik, erakundeen eta administrazioaren funtzionamendua progresiboki euskalduntzera”.*

179/2019 Dekretuaren 12. artikulua: *“Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek, beren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, tokiko jardueretan euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa orokorrean eta normaltasunez erabiltzeko modua antolatu eta arautuko dute, jarraian ageri diren artikuluetan jasotako irizpideekin bat etorrira”.*

ZAZPIGARRENA.- Lau arau sartu dira indarrean 2022 eta 2024 bitartean, eskuartean daukagun gaian eragin berezia daukatenak eta araudi honetara egokitzen den plan bat onartzea beharrezko egiten dutenak:

a) 3/2022 Legea. Bere 76-79 artikuluetan sektore publikoaren funtzionamendu hizkuntzak arautzen ditu.

b) 11/2022 Legea. Bere 187. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan hizkuntza-eskakizunak eta euskararen erabilera normalizatzeko planak aipatzen ditu:

*“1. Euskara eta gaztelania dira euskal administrazio publikoetako hizkuntza ofizialak, eta administrazio horiek bermatu beharko dute bi hizkuntzok erabiltzea beren barneko zein kanpoko harremanetan.*

*2. Euskal administrazio publikoek saiatu behar dute beren zerbitzuko langileek hizkuntza-gaikuntza egokia izan dezaten eta euskara erabil dezaten euren jarduera-eremuan, eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.*

*3. Horretarako, euskal administrazio publikoek, haien mendeko instituzio eta organismoek, Eusko Jaurlaritzak berariaz ezarritako irizpideei jarraituz, hizkuntza-plangintzarako tresnak onartuko dituzte, bakoitzak berea, eta bertan finkatuko dituzte plangintzaldi bakoitzerako lortu nahi diren helburuak, hartu behar diren neurriak eta jarri behar diren bideak”.*

c) 19/2024 Dekretua. Bere II. kapituluak, hizkuntza-plangintzari buruzkoak, hiru atal ditu: lehenengoak hizkuntza-plangintzako tresnak eta plangintzan parte hartzen duten subjektuak arautzen ditu; bigarrenak hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen ditu; eta hirugarrenak euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoak eta kudeaketa-planak arautzen ditu, euskal sektore publikoko erakundeek plangintzaldiaren ebaluazio orokorra berau amaitutakoan egingo

dutela ezarriz.

Hirugarren ataleko 17. artikuluan, hain zuzen, plan estrategikoak arautzen dira:

*“1.– Plan estrategikoa jarduketa-prozesu bat da, zeinean elementu hauek jasotzen baitira, plangintzaldi bakoitzari begira: lortu beharreko helburuak, hartu beharreko neurriak, eta euskara zerbitzu-hizkuntza gisa ere erabiliko dela bermatzeko eta lan-hizkuntza gisa areagotu eta normalizatzeko jarri beharreko bitartekoak, betiere oinarri hartuta abiaburuko egoeraren diagnostiko kuantitatibo eta kualitatiboa.*

*Nolanahi ere, plan estrategikoan entitatearen plantillaren egoerari buruzko azterketa bat sartu beharko da, bai eta hizkuntza-eskakizunen eta haien derrigortasun-daten xehetasuna ere.*

*2.– Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoa landu eta onartuko du plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, bere barne-antolamenduko arauei jarraituz. Onartu ondoren, entitatearen web-atarian argitaratu beharko da.*

*Plana egiteko, entitate bakoitzak hasierako diagnostiko bat egin beharko du, normalizazioaren alderdi guztietan abiapuntuko egoera zein den jakiteko. Diagnostikoaren helburua izango da adierazle batzuei buruzko informazioa lortzea eta plangintzaldirako aurreikuspen zehatza egitea.*

*Entitateek plangintzaldiaren amaierarako adierazle horietako bakoitzean lortu beharreko helburuak zehaztuko dituzte, baita horiek lortzeko hartu beharreko neurriak eta erabili beharreko bitartekoak ere. Plan estrategikoa onartu ondoren, entitateak Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen sailari helaraziko dio haren onarpena.*

*3.– Koordinazioa bermatzeko, plangintzaldi bakoitzaren hasieran, hizkuntza-politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak plan estrategikoa egiteko eredu bat egin eta entitateen eskura jarriko du, beharrezkotzat jotzen badute beren plan estrategikoak diseinatzerakoan erabiltzeko.*

*4.– Entitate bakoitzak, hasierako diagnostikoan eta plan estrategikoan bertan, koordinaziorako beharrezkotzat ezartzen diren adierazleak sartuko ditu, dekretu honen eranskinean jasotzen den moduan. Era berean, eranskinean ez dauden baina egokitzen jotzen dituen beste batzuk ere sartu ahal izango ditu entitateak.*

*Adierazleen aginte-taula eta egitura aldatu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen sailburuaren aginduz.*

*5.– Entitate bat beraren barruan plan estrategiko bat baino gehiago egon daitezke, arlo funtzional bakoitzaren berezitasunen arabera.*

*6.– Plan estrategikoan, entitateak euskarazko administrazio-unitateak izendatu ahal izango ditu, beren eginkizunak nagusiki euskaraz beteko dituztenak. Euskarazko administrazio-unitateak dira lanpostuen % 80an gutxienez lanpostu*

*bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenak, arduraduna barne.*

*7.– Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak haren zerbitzura dauden langileen ordezkariekin kontsultatu beharko du bere plan estrategikoaren diseinua, aplikatzekoa den araudian ezartzen diren baldintzetan, salbu eta langileen lan-baldintzei eragiten dieten neurriak jasotzen badira; kasu horretan, negoziatu egin beharko da, Euskal Enplegu Publikoaren 2022ko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 191. artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*8.– Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen sailak entitate bakoitzaren plan estrategikoari buruzko aginduzko txostena egingo du, plana onartu aurretik. Txostena bi hilabeteko epean emango da, baina ez da loteslea izango. Epe hori igaro eta txostena bidali ez bada, entitateak izapideekin jarraitu ahal izango du.*

*Txostena eskatu ahal izateko, entitateak eguneratuta eduki beharko ditu Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen sailari hizkuntza-normalizazioaren arloan eman behar dizkion datuak”.*

d) 97/2023 Dekretua. Arau honen arabera, euskararen kudeaketa aitortzeko sistema kontuan hartzea posible izango da, hala badagokio, Euskal Sektore Publikoko erakundeek izapidetzen dituzten dirulaguntzen deialdietara aurkeztu diren proiektuen balorazioan.

ZORTZIGARRENA.- Aurkeztutako dokumentuak bat egiten du Europako araudiarekin eta Estatuko eta EAEko legediekin, helburua baita herritarren egunerokotasunean euskararen erabilera sustatzea eta, planaren amaierarako, egungo egoera zabaltzea. Herritarrek euren egunerokotasuna euskaraz egitea bultzatzea nahi da, gutxien erabiltzen dutenei edo ez dakitenei euskarara aldaketa egiten lagunduz pixkanaka.

BEDERATZIGARRENA.- Nolanahi ere, kontuan hartu behar da plana aplikatzean eta kudeatzean errespetatu egin beharko dela, beti eta ororen gainetik, herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea, hau da, herritar, herritar edo zinegotzi eta korporatibo bakoitzak Tolosako Udalarekiko harremanetarako aukeratzeko duen hizkuntzaren erabilera bermatzeko betebeharra, eta administrazio-prozeduretan eta parte-hartze politiko eta herritarreko prozeduretan eskubideak gauzatzen direla bermatzeko neurri eta jarduketak egokiak arbitratzea, 2/2016 Legearen 6. artikuluan eta 3/2022 Legearen 76. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, inolako diskriminazio instituzionalik gabe.

Izan ere, eskubide honen urraketa diziplina arau-hauste oso larria izango litzateke, 11/2022 Legearen 178.b) artikuluari (udaleko langileei dagokiena) eta 19/2013 Legearen 29.1.b) artikuluari (korporatiboek dagokiena) jarraiki:

178.b) artikulua: *“Falta oso astun dira: b) Diskriminazioa dakarren edozein ekintza.*

*Diskriminazioaren arrazoi izango dira arraza edo etnia, erlijioa edo uste sendoak, desgaitasuna, adina, orientazio sexuala, hizkuntza, iritzia, jaioleku edo bizilekua, sexua edo beste edozein arrazoi pertsonal edo sozial”.*

*29.1.b) artikulua: “Arau-hauste oso larriak dira: b) Honako arrazoi hauetakoren batengatik diskriminazioa dakarten jarduerak: arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo orientazio sexuala, hizkuntza, iritzia, sorlekua edo bizilekua, sexua edo beste edozein gorabehera pertsonal edo sozial. Era berean, arau-hauste oso larriak dira arraza edo jatorri etnikoan, erlijioan edo sinesmenetan, desgaitasunean eta adinean edo orientazio sexualean oinarritutako jazarpenak eta jazarpen moralak, sexuala eta sexuan oinarritutakoa”.*

Horrelako planak onartzeko eskumena alkateak duela oro har, kontuan hartuta zer dioen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1. s) artikuluan. Ordea, planaren izaera eta hedadura ikusirik, eta urte anitzeko plan estrategikoa denez, proposamena da Udalbatzak onartzea, kasu horietan doktrinak dioenean oinarrituta.

Tolosako Udaleko Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Aitor Agirresarobe Murgi, Goiuri Ezeiza Arandia, Aitzol Gartzia Azurmendi, Josune Sanz Vidal, Iker Uson Gonzalez, Leire Zubeldia Rezola.
- **Kontrako botoak:** Ez da izan.
- **Abstentzioak:** Ez da izan.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

## PROPOSAMENA

**LEHENA.-** Hizkuntza-politikako plan estrategikoaren proposamena onartzea.

**BIGARRENA.-** Plana Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

**HIRUGARRENA.-** Plana garatzeko, urteko kudeaketa-planak eta horien balantzeak egitea, eta horren berri ematea Euskararen Aholku Kontseiluan.

**LAUGARRENA.-** Planaren lehen erdia betetzean, 2029an, ebaluazioa egitea, eta horren berri ematea Euskararen Aholku Kontseiluari, behar diren egokitzapenak eginda.



**BOSGARRENA.-** Planaren indarraldia amaitzean, 2034an, amaierako ebaluazioa egitea, eta horren berri ematea Euskararen Aholku Kontseiluari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Hizkuntza Politikako Plan Estrategikoaren proposamena.

**14. BERRI EMATEA: TOLOSAKO UDAL-BIZTANLEEN ERROLDAREN BERRIKUSPENETIK ATERATAKO BIZTANLEEN KOPURU OFIZIALA, 2024KO URTARRILAREN 1EAN.**

**AURREKARIAK**

2024ko azaroaren 29an igorritako bi jakinarazpenetan (sarrera-erregistroa: 15,066 eta 15.067 zk.dunak), Errolda Kontseiluak jakinarazi zitzaion udal honi biztanleriaren zifra ofiziala, 2024ko urtarrilaren 1eko datarekin.

**ARAUDIA**

**1.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduak (uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua) ezartzen dute udalek Estatistikako Institutu Nazionalari (aurrerantzean, INE) bidali behar dizkiotela, baliabide informatiko edo telematikoen bidez, udal-erroldako datuetan gertatzen diren hileko aldaketak

**2.-** Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 81. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek udal-erroldak berrikustea onartuko dute, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari erreferentzia eginez, eta aurreko ekitaldian egindako jarduerak formalizatuko dituzte.

Horretarako, kontuan hartuko dituzte dagokion udalerriko erroldan izandako aldaketak, hileko truke-fitxategietan Estatistikako Institutu Nazionalera bidali direnak, bai eta hark martxora arte hileko fitxategietan (HppmmMIA.3aA fitxategiak) jakinarazitako koordinazioaren emaitza ere.

**3.-** Populazio-zifraren proposamena lortzeko kontuan hartuko den informazioa erregistro bizi eta aktibo guztiak izango dira erreferentzia-datan, berrikuspenaren urteko urtarrilaren 1ean, eta hauek izango dira:

- Udalek EINera bidali badituzte, IDA-Erroldan HppmmMIA.3aa fitxategietarako argitaratutako urteko egutegian ezarritako egunera arte;
- INEren oinarrian sartu direnak;
- Estatistikako Institutu Nazionalaren koordinaziotik eratorritako gorabeheraren batek eragiten ez badie, eta desadostasuna sortu bada, oraindik berretsi edo ebatzi gabe badago.

**4.-** Ebazpenak, 2018ko uztailaren 20koak, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakartzarena eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarenak, Udalei jarraibide teknikoak ematen dizkiena udal-erroldaren urteko berrikuspenari buruz eta biztanleriaren zifra ofizialen proposamena lortzeko prozedurari buruzkoak emandako prozedura jarraitu ondoren, Udalek urteko egutegian ezarritako epea izango dute EINK egindako eragozpenei alegazioak aurkezteko. Alegazio hauek aztertu eta ebatziko ditu Estatistikako Institutu Nazionalak, Ebazpen honetan jasotako irizpideak jarraituz. Ebazpenean jasotakoez bestelako argudioetan oinarritutako alegazio oro, EINek onartzen ez badu, Erroldatze Kontseiluaren esku utziko da desadostasun gisa, hark txostena egin dezan

**5.-** Erroldatze Kontseiluak desadostasunen berri eman ondoren, bai eta EINeko presidentek Gobernuari helaraziko dion biztanleria-kopuruaren proposamena ere, azken hori udal bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, IDA-Errolda bidez deskargatzeko prest dagoen jakinaraziko zaio FppmMIA.aaa fitxategiari. Fitxategiaren erregistro-diseinua V. eranskinean jaso da, eta alegazioak baietsi/ezetsi egin dira.

Beraz,

**Udalbatzak honako honen berri izango du:** 2024ko urtarrilaren 1ean Tolosako udalerriko biztanleriaren zifra ofiziala **20.109koa** dela, Estatistikako Institutu Nazionala emandako informazioaren arabera.

**Hori horrela,** Informazio hau argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian eta iragarki taulan.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **15. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Besterik gabe, 21:05ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA  
O.e.

IDAZKARI AKZIDENTALA

## LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

### GOBERNU ORGANUA / ORGANO DE GOBIERNO

#### ALKATETZA / ALCALDÍA

KODEA CODIGO	IZENA DENOMINACIÓN	DOT	LH RL	ORDAINARIA RETRIBUCIÓN
1.101	ALKATEAREN IDAZKARIA SECRETARIO DE ALCALDÍA	1	BB E	46.075,13
1.102	KOMUNIKAZIO ARDURADUNA RESPONSABLE DE COMUNICACIÓN	1	BB E	47.110,11

### KONTU-HARTZAILAZA ETA DIRUZAINZA / INTERVENCIÓN Y TESORERÍA

#### KONTU-HARTZAILAZA / INTERVENCIÓN

KODEA CODIGO	IZENA DENOMINACIÓN	DOT	LH RL	ES	AZP SUB	TAL GC	TIT	SIN	HA PR	BAL REQ	HE II PL E	HE UM PL O	DERRIG PRECEP	LAN JOR	DE	C D D O	C ESP ESP O	OP CP	EGOERA SITUAC	O HAR OBS
2.101	KONTU-HARTZAILAZA INTERVENCIÓN	1	GNF FHN	GN HN	KHD INT	A1	900	B S	GNL CHN	30	C2	C2	1994.01.31 31.01.1994	ML FA	E	30 29	52.409,84 45.521,16		BBO OP	* **
2.102	KONTU-HARTZAILAZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA TÉCNICO SUPERIOR INTERVENCIÓN	1	F	AB AE	TEK TEC	A1	650	E N	LO CG	24	C2	C2	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	N	24	25.321,66		O	
2.105	KONTABILITATEKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO CONTABILIDAD	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	22	C1	C1	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	N	20	16.488,50		O	
2.106	FAKTURETAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA AUXILIAR ADMINISTRATIVO FACTURAS	1	F	AO AG	LAG AUX	C2/C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2022.06.30 30.06.2022	EE CD	N	17	13.544,16	1.942.83	O	

#### DIRUZAINZA / TESORERIA

KODEA CODIGO	IZENA DENOMINACIÓN	DOT	LH RL	ES	AZP SUB	TAL GC	TIT	SIN	HA PR	BAL REQ	HE II PL E	HE UM PL O	DERRIG PRECEP	LAN JOR	DE	C D D O	C ESP ESP O	OP CP	EGOERA SITUAC	O HAR OBS
2.103	DIRUZAINZA TESORERÍA	1	GNF FHN	GN HN	KHD INT	A1	900	B S	GNL CHN	30	C2	C2	2019.06.30 30.06.2019	ML FA	E	28 27	38.276,84 32.388,16		BBO OP	* **
2.104	DIRUZAINZAKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO TESORERIA	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	N	19 20	15.310,82		BBO OP	
2.107	ERRENTAKO TEKNIKARIA TÉCNICO RENTA	1	F	AO AG	KUD GES	A2	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2007.03.27 27.03.2007	EE CD	N	22	20.021,82		O	
2.108	ERRENTAKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO RENTA	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	N	19	15.899,66		O	
2.109	ERRENTAKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO RENTA	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2019.06.30 30.06.2019	EE CD	N	19	15.899,66		O	
2.110	ZERGA-BILTZAILEA RECAUDADOR	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2014.09.30 30.09.2014	EE CD	N	21	18.844,00		O	
2.111	NAHITAEZKO DIRU-BILKETAKO TEKNIKARIA TÉCNICO DE RECAUDACIÓN EJECUTIVA	1	F	AO AG	TEK TEC	A1/A2	220	E N	LO CG	12	C2	C2	2022.02.24 24.02.2022	EE CD	N	24	22.966,16		H V	
2.112	NAHITAEZKO DIRU-BILKETAKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO DE RECAUDACIÓN EJECUTIVA	2	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2022.02.24 24.02.2022	EE CD	N	19	15.310,82		BBO OP	
2.113	ERRENTAKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO RENTA	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2023.12.01 01.12.2023	EE CD	N	19	15.899,66		BBO OP	

## LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

### IDAZKARITZA / SECRETARÍA

#### IDAZKARITZA OROKORRA, KONTRATAZIOA ETA ONDAREA / SECRETARÍA GENERAL, CONTRATACIÓN Y PATRIMONIO

KODEA CODIGO	IZENA DENOMINACIÓN	DOT	LH RL	ES	AZP SUB	TAL GC	TIT	SIN	HA PR	BAL REQ	HE II PL E	HE UM PL O	DERRIG PRECEP	LAN JOR	DE	C D DO	C ESP ESP O	OP CP	EGOERA SITUAC	OHAR OBS
3.101	IDAZKARITZA SECRETARÍA	1	GNF FHN	GN HN	IDA SEC	A1	900	B S	GNL CHN	30	C2	C2	1994.01.31 31.01.1994	ML FA	E	30 29	52.409,84 40.632,34		O	**
3.102	IDAZKARITZAKO TEKNIKO JURIDIKOA TÉCNICO JURÍDICO SECRETARIA	1	F	AO AG	TEK TEC	A1	220	E N	LO CG	27	C2	C2	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	N	25	27.677,16		O	
3.103	KONTRATAZIO TEKNIKARIA TÉCNICO CONTRATACIÓN	1	F	AO AG	TEK TEC	A1	220	E N	LO CG	24	C2	C2	2020.06.30 30.06.2020	EE CD	N	25	26.499,34		O	
3.104	ETXEBIZITZAKO TEKNIKARIA TÉCNICO VIVIENDA	1	F	AO AG	KUD GES	A2	220	E N	LO CG	21	C2	C2	2020.06.30 30.06.2020	EE CD	N	22 23	18.844,00	1.009,5	BBO OP	
3.105	ONDARE-ERANTZUKIZUNENKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	N	19	15.310,82		O	
3.106	UDAL-ONDARE ETA IDAZKARITZAKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO PATRIMONIO MUNICIPAL Y SECRETARIA	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	N	19	15.310,82		ZE CS	
3.107	IDAZKARITZA ETA OSOKOBILKURETAKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO SECRETARIA Y PLENOS	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	N	19	15.310,82		BBO OP	
3.108	KONTRATAZIOA ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO CONTRATACIÓN	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2019.09.26 26.09.2019	EE CD	N	19	15.310,82		BBO OP	
3.109	ADMINISTRAZIOAREN MODERNIZAZIOARAKO ADMIN. OROKORREKO TEKNIKARIA TÉCNICO DE ADMINISTRACIÓN GENERAL DE MODERNIZACIÓN ADMINISTRATIVA ADM. ELECTRÓNICA	1	F	AO AG	TEK TEC	A1	220	E N	LO CG	24	C2	C2	2022.02.24 24.02.2022	EE CD	N	24	24.732,82		BBO OP	
3.110	ESPEDEIENTEEN ADMINISTRATZAILEA ADMINISTRADOR EXPEDIENTES	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2001.03.29 29.03.2001	EE CD	N	19	15.310,82		BBO OP	
3.111	KONTRATAZIO ETA EROSKETA KUDEATZAILEA GESTOR DE CONTRATACIÓN Y COMPRAS	1	F	AO AG	KUD GES	A2	220	E N	LO CG	24	C2	C2	2023.12.01 01.12.2023	EE CD	N	22	19.432,84		H V	

#### ERREGISTROA ETA INFORMAZIOA, HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (U DATE) / REGISTRO E INFORMACIÓN, SERVICIO DE ATENCIÓN AL CIUDADANO (U DATE)

KODEA CODIGO	IZENA DENOMINACIÓN	DOT	LH RL	ES	AZP SUB	TAL GC	TIT	SIN	HA PR	BAL REQ	HE II PL E	HE UM PL O	DERRIG PRECEP	LAN JOR	DE	C D DO	C ESP ESP O	OP CP	EGOERA SITUAC	OHAR OBS
3.201	ERREGISTRO ETA HERRITARREN ARRETARAKO BULEGOKO ADMINIS. / ADMVO. OFICINA REGISTRO Y ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	1998.06.19 19.06.1998	EE CD	N	20	18.255,16		BBO OP	
3.202	ERREGISTRO ETA HERRITARREN ARRETARAKO BULEGOKO ADMINIS. / ADMVO. OFICINA REGISTRO Y ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA	3	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2019.06.30 30.06.2019	EE CD	N	20	18.255,16		O	
3.203	ERREGISTRO ETA HERRITARREN ARRETARAKO BULEGOKO ADMINIS. / ADMVO. OFICINA REGISTRO Y ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA	1	F	AO AG	ADM	C1	220	E N	LO CG	12	C1	C1	2019.10.31 31.10.2019	EE CD	N	20	18.255,16		BBO OP	

## LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

### GIZA BALIABIDEAK / RECURSOS HUMANOS

KODEA CODIGO	IZENA DENOMINACIÓN	DOT	LH RL	ES	AZP SUB	TAL GC	TIT	SIN	HA PR	BAL REQ	HE II PL E	HE UM PL O	DERRIG PRECEP	LAN JOR	DE	C D D O	C ESP ESP O	OP CP	EGOERA SITUAC	OHAR OBS
3.301	GIZA BALIABIDEETAKO ARDURADUNA RESPONSABLE RECURSOS HUMANOS	1	F	AO AG	TEK TEC	A1	840	EN	LO CG	24	C2	C2	2001.03.29 29.03.2001	MF	N	25	28.854,84		O	
3.302	GIZA BALIABIDEETAKO ADMINISTRARIA (A) ADMINISTRATIVO RECURSOS HUMANOS (A)	1	F	AO AG	ADM	C1	220	EN	LO CG	22	C1	C1	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	N	20	16.488,50		O	
3.303	GIZA BALIABIDEETAKO ADMINISTRARIA (B) ADMINISTRATIVO RECURSOS HUMANOS (B)	1	F	AO AG	ADM	C1	220	EN	LO CG	22	C1	C1	2007.01.30 30.01.2007	EE CD	N	19	15.310,82		O	
3.304	GIZA BALIABIDEETAKO ADMINISTRARIA (C) ADMINISTRATIVO RECURSOS HUMANOS (C)	1	F	AO AG	ADM	C1	220	EN	LO CG	22	C1	C1	2022.02.24 24.02.2022	EE CD	N	19	15.310,82		BBO OP	
3.305	GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA TÉCNICO DE RECURSOS HUMANOS	1	F	AO AG	KUD GES	A2	220	EN	LO CG	12	C1	C1	2023.03.02 02.03.2023	EE CD	N	21	17.077,34		BBO OP	
3.306	GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA TECNICO RECURSOS HUMANOS	1	F	AO AG	KUD GES	A1	840	EN	LO CG	24	C2	C2	2023.12.01 01.12.2023	EE CD	N	24	24.732,82		H V	

### UDALTZAINGOA / POLICIA LOCAL

KODEA CODIGO	IZENA DENOMINACIÓN	DOT	LH RL	ES	AZP SUB	TAL GC	TIT	SIN	HA PR	BAL REQ	HE II PL E	HE UM PL O	DERRIG PRECEP	LAN JOR	DE	C D D O	C ESP ESP O	OP CP	EGOERA SITUAC	OHAR OBS
4.101	UDALTZAINBURUA OFICIAL JEFE POLICIA LOCAL	1	F	AB AE	ZB SE	C1/A2	210	BS	LB CE	22	C1	C1	1994.01.31 31.01.1994	ML FA	E	22	32.388,16		BBO OP	
4.102	UDALTZAINGOKO OFIZIALORDEA SUBOFICIAL POLICIA LOCAL	1	F	AB AE	ZB SE	C1	210	BS	LB CE	20	C1	C1	2011.06.30 30.06.2011	ML FA	E	22	27.677,16		H V	
4.103	UDALTZAINGOKO AGENTE LEHENA AGENTE PRIMERO POLICIA LOCAL	5	F	AB AE	ZB SE	C1	210	EN	LO CG	19	B2	B2	1994.01.31 31.01.1994	GAG MTN	E	21	31.210,34		O BBO/OP	
4.105	UDALTZAINA (G/A/G) AGENTE POLICIA (M/T/N)	8	F	AB AE	ZB SE	C1	210	EN	LO CG	17	B2	B2	1994.01.31 31.01.1994	GAG MTN	E	19	27.677,16		O BBO/OP	
4.106	UDALTZAINA (G/A/G) AGENTE POLICIA (M/T/N)	1	F	AB AE	ZB SE	C1	210	EN	LO CG	17	B2	B2	2010.12.28 28.12.2010	GAG MTN	E	19	27.677,16		O	
4.107	UDALTZAINA (G/A/G) AGENTE POLICIA (M/T/N)	1	F	AB AE	ZB SE	C1	210	EN	LO CG	17	B2	B2	2011.12.26 26.12.2011	GAG MTN	E	19	27.677,16		BBO OP	
4.108	UDALTZAINA (G/A) AGENTE POLICIA LOCAL (M/T)	9	F	AB AE	ZB SE	C1	210	EN	LO CG	17	B2	B2	1994.01.31 31.01.1994	GA MT	E	19	24.732,82		O BBO/OP	
4.109	UDALTZAINA (G/A) AGENTE POLICIA LOCAL (M/T)	1	F	AB AE	ZB SE	C1	210	EN	LO CG	17	B2	B2	2013.12.26 26.12.2013	GA MT	E	19	24.732,82		BBO OP	
4.110	UDALTZAIN ADMINISTRATIBOA AGENTE POLICIA LOCAL ADMINISTRATIVA	2	F	AB AE	ZB SE	C1	210	EN	LO CG	17	C1	C1	2002.09.30 30.09.2002	EE CD	E	19	19.432,84		O	
4.111	TRAFIKO KOORDINATZAILEA COORDINADOR TRAFICO	1	F	AB AE	ZB SE	C1	210	EN	LO CG	19	C1	C1	2023.12.01 01.12.2023	GA MT	E	21	24.732,82		ZE CS	
4.112	UDALTZAIN LAGUNTZAILEAK AUXILIARES DE POLICIA LOCAL	2	F	AB AE	ZB SE	C2	100	EN	LO CG	11	B2	B2	2024.10.31 31.10.2024	GA MT	N	15	15.310,82		H V	
4.113	UDALTZAINA (G/A) AGENTE POLICIA LOCAL (M/T)	1	F	AB AE	ZB SE	C1	210	EN	LO CG	17	B2	B2	2024.12.19 19.12.2024	GA MT	E	19	24.732,82		H V	

## LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

### GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA / SERVICIOS SOCIALES Y SALUD

KODEA CODIGO	IZENA DENOMINACIÓN	DOT	LH RL	ES	AZP SUB	TAL GC	TIT	SIN	HA PR	BAL REQ	HE II PL E	HE UM PL O	DERRIG PRECEP	LAN JOR	DE	C D D O	C ESP ESP O	OP CP	EGOERA SITUAC	OHAR OBS
5.101	GIZARTE ZERBITZU ETA OSASUNEN ARDURADUNA RESPONSABLE SERVICIOS SOCIALES Y SALUD	1	F	AB AE	EMT TEM	A1/A2	395	B S	LB CE	24	C2	C2	1994.01.31 31.01.1994	EE CD	P	25	26.499,34		O	
5.102.1	GIZARTE LANGILEA "Prebentzioa eta Gizarteratzea" TRABAJADOR SOCIAL "Prevención e Integración Social"	1	F	AB AE	EMT TEM	A2	390	E N	LO CG	11	C1	C1	2022.06.30 30.06.2022	EE CD	N	21	17.666,32		BBO OP	
